



2024-2025 IKASTURTEAREN ANTOLAKETA BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUETAN

**Hezkuntza sailburuordearen
ebazpena**



AURKIBIDEA

SARRERA	8
1. HEZKUNTZA SAILBURUORDETZAREN LAN ILDOAK.....	10
1.1. LIDERGO PEDAGOGIKOA ETA HEZKUNTZA ERALDAKETA.....	10
1.1.1. Zuzendaritza taldeak.....	11
a) Zuzendaritza-taldekideen formazioa	11
b) Zuzendaritza taldeen hautaketa	13
c) Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	13
1.1.2. Berrikuntza Arduradunak.....	14
1.2. CURRICULUMA eta EBALUAZIOA.....	16
1.2.1. Curriculumaren garapena.....	16
1.2.2. Digitalizazioa	19
a) Ikasle eta irakasleen datu babesa	19
b) Adimen artifiziala	20
c) Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotika (Eskola adimentsua).....	20
d) Irakasleen konpetentzia digitala hobetzeko formazioa.....	22
1.2.3. Euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna	22
a) Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia 2024-2027	23
b) Irakurzaletasuna bultzatzeko plataforma: Elibrum	23
c) Irakasleen konpetentzia didaktiko-metodologikoa	24
1. Eleaniztasunerantz.....	24
2. Pluriliteracies	24
3. R900.....	24
4. R400.....	24
5. H eta I ikastaroak:	24
d) Irakasleen hizkuntza-konpetentzia eta konpetentzia komunikatiboa.....	24
1. R300.....	25
2. Eleaniztasunerantz B.....	25
3. English for Better Teaching	25
e) Euskararen normalkuntza, euskal kultura eta hezkuntza soziolinguistikoa	25
1. Hizkuntza Normalizazioko mintegiak (HN mintegiak-ULIBARRI programa).....	25
2. R600.....	26



f) Ikasle etorri berrientzat programak.....	26
1. Eusle programa	26
2. Hizkuntza indartzeko irakasleak (HIPI)	28
1.2.4. 2030 Jasangarritasunerako Estrategia	29
1.2.5. Nazioartekotzea	30
1.3. ESKOLA INKLUSIBOA ETA ONGIZATEA.....	32
1.3.1. Bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa, zaintza emozionala barne	32
a) Bizikasi ekimena.....	33
b) Hezkuntza eremuan jokabide suizida suizidioa prebenitzeko, esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategia	35
1.3.2. Hezkidetzaren berdintasunaren eta tratu onaren bidean	35
a) Indarkeria matxistaren biktima diren neska, nerabe eta emakumeei laguntzeko ikastetxeetarako jarraibideak.....	38
b) Trans ikasleei eta haien familiei laguntzeko protokoloa EAE-ko ikastetxeentzat.....	39
c) Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokoloa..	40
1.3.3. Hezkuntza-orientazioa	41
1.3.4. Eraldatzen programa.....	42
1.3.5. Bidelaguna programa.....	42
1.4. IKASTETXEARI ZUZENDUTAKO FORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA	43
2. IKASTETXE-ANTOLAKETA ETA –PLANGINTZA	45
2.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA.....	45
2.2. ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)	45
Ikastetxeetan telefono mugikorren eta erloju adimendunen erabilera erregulatzea.....	45
2.3. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHIP).....	46
2.4. IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA (IPD).....	47
2.5. IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP) eta MEMORIA	48
2.5.1. Ikastetxearen urteko plana (IUP)	48
a) Irakaskuntza-jardueren programa	49
1. Helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak	49
2. Hezkuntza konplexutasunaren indizea.....	50
3. Ohiko irakaskuntza-jardueren programa (OIJP)	50
b) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programa	52
c) Urteko kudeaketa-programa.....	54



d) IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena	55
2.5.2. Ikastetxearen urteko memoria (IUM)	55
3. IKASLEAK	56
3.1. IKASLEEN ANTOLAKETA.....	56
3.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEAK	56
3.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak.....	57
3.2.2. Arreta nahasmendua edo ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak.	59
3.2.3 Adimen-gaitasun handiko ikasleak.....	59
3.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea	60
3.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historia bereziak dituzten ikasleak.....	61
a) Ospitale- edo etxe-arretako edo arreta terapeutiko-hezigarriko premiak dituzten ikasleak .	61
b) Gaixotasun minoritarioak, elikadura-alergia anizkoitzak eta beste gaixotasun batzuk dituzten ikasleak	62
3.3. IKASTETXEEK HLBP-AK (ARRETAREN- EDO IKASKUNTZAREN NAHASMENDUA, HIZKUNTZAREN GARAPENAREN NAHASMENDUA, ADIMEN-GAITASUN HANDIAK) DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA	62
3.4. EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA BERRITZEGUNEKO HLBPetako AHOLKULARITZARI	63
3.5. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA	63
3.5.1. Curriculumera sartzeko egokitzapenak.....	64
a) Curriculum-egokitzapen indibidual garrantzitsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GECp) aurkezteko epeak.....	64
b) Bigarren Hezkuntzan adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak.....	64
c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatzeko aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak	65
d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek curriculumera sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak.....	65
e) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako eskolatzeko aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak.....	65
3.6. CURRICULUM-ANIZTASUNAREN PROGRAMA.....	66
3.7. ESKOLA-EGUTEGIA ETA –ORDUTEGIA.....	67
3.7.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskola-ordutegiak.....	67
3.7.2. Batxilergoko ikasleen ordutegia.	71
3.7.3. Lanbide Heziketako ikasleen ordutegia.....	72
Araudi horrekiko salbuespenak.....	72



3.8. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA	72
3.9. ERLIJOIA	73
Erljioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan	73
3.10. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK	74
3.11. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA	74
3.11.1. ETAPA AMAIERAKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN JARRAIPENA Error! Marcador no definido.	
3.11.2. ETAPA ERDIKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA	74
3.11.3. PISA	74
4. IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZAKO PERTSONALA	76
4.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA	76
4.1.1.- Jakintzagaiak eta taldeak banatzea	76
4.1.2. Irakasleen ordutegiak prestatzea	77
4.1.3. Jakintzagaien eta taldeen banaketa eta ikastetxearen ordutegia onartzea eta jendaurrean jartzea	77
4.2.- URTEKO LANALDIA	78
4.3.- ASTEKO LANALDIA	78
4.3.1. Dedikazio arrunta duten irakasleak	78
a) Hezkuntza-laguntza	79
b) Lanaldi-murrizketa duten irakasleak	80
Lanaldiaren 1/2ko murrizketa	80
Lanaldiaren 1/3ko murriztea	80
Lanaldiaren 1/3 duten irakasleen ordutegia	80
Osasun-arazo larriengatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak	80
Gaixotasun kronikoa duten senideei arreta emateko baimena duten irakasleak	81
c) Ezohiko egoerak	81
d) Irakasleen ordutegi pertsonala	82
e) Gorputz hezkuntzako, Musikako eta Plastika eta Ikus-hezkuntzako irakasleak	82
f) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak	83
Hezkuntza-premia bereziak babesteko profesional espezifikoak	83
g) Hizkuntza indartzeko irakasleak eta Eusle irakasleak	83
h) Erljioko irakasleak	84
4.4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE BATZUK	84
4.4.1. Zuzendaritza-taldea	84



4.4.2. Zuzendaritzakoak ez diren beste kargu batzuk	85
a) BeA figura eta BODI irakasleak	85
b) Irakasle ordezkaria.....	86
c) DBHko koordinatzailea.....	86
d) BAT taldeko koordinatzailea	87
e) Eraldatzen programa koordinatzailea	87
f) Adi Mentoreak. (Eskola Adimentsua programa).....	88
4.4.3. Zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketak kalkulatzeko arauak	89
4.4.4. Zuzendaritzako-kargudunen ordutegia.....	90
Murrizketa-orduak aplikatzea	90
4.4.5. Zuzendaritzakoak ez diren beste karguen ordutegiak.....	¡Error! Marcador no definido.
4.5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA. Lanaldia betetzen dela kontrolatzea.....	91
4.6.- DEPARTAMENTUAK	92
4.6.1. Departamentuen antolaketa eta funtzionamendua	93
a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeak:	93
b) Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak.....	94
Lanbide Heziketako irakaskuntzak:	95
c) Departamentuaren bilerak.....	96
d) Didaktika-departamentuaren zereginak	96
e) Departamentuko burutza	97
f) Departamentuko burutza izendatzea	98
g) Departamentuaren dokumentazioa.....	98
4.6.2. ORIENTAZIO-DEPARTAMENTUA	99
a) Orientazio-departamentua eratzea	99
b) Orientatzaileen eginkizunak	99
c) Hezkuntza-orientazio irakasleen ordutegia.....	101
4.7.- HEZKUNTZA-ARRETA.....	101
4.7.1. Hezkuntza-arretako irakasleak.....	101
a) Hezkuntza-arretako irakaslearen funtsezko zereginak	102
b) Absentzien parte.....	102
4.8. GELAKO ETA TUTORETZAKO TALDEAK	102
4.8.1. Tutoreak izendatzea.....	102
4.8.2 Tutorearen edo tutoreen eginkizunak	103



a) Bertaratze-hutsegiteen kontrola.....	104
b) Bilerak gurasoei edo legezko tutoreekin.....	104
c) Batxilergoko taldeetan tutoretza antolatzea.....	105
d) Lanbide Heziketako taldeetan tutoretza antolatzea.....	105
4.9. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IKASLEEN TUTORETZA.....	105
4.10. HAUTAKETA PROZESUETAN HAUTATUTAKO IRAKASLEEN PRAKTIKALDIA.....	105
4.11. LANGILE ESPEZIFIKOAK.....	106
4.11.1. Jangelako arduraduna.....	106
4.11.2. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programako irakasleak.....	108
4.11.3. Irakaskuntzaz kanpoko lanak.....	108
4.11.4. Irakasle eta hezitzaile lan-kontratudunak.....	109
a) IBT laguntza-zerbitzua.....	109
b) Zeinu-hizkuntzaren interpretea.....	109
c) Hezitzaile lan-kontratudunen lanaldia betetzen dela kontrolatzea.....	110
d) Hezitzaile lan-kontratudunen bertaratze-partea.....	111
5. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK.....	112
5.1.- IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSI GABEKO JARDUERETARAKO ERABILTZEA.....	112
5.2.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA TRAMITATZEA ETA ORDAINTZEA.....	112
5.3.- DATU PERTSONALEN BABESA.....	113
5.4.- IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA.....	114
5.5.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA.....	114
5.5.1.-Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan.....	114
5.5.2.-Osasun-arreta eskola-orduetan.....	114
5.5.3.- Ibilgailuak ikastetxera sartzea.....	114
5.5.4.- Obrak.....	114
5.5.5.-Tabakoa eta alkohol-dun edariak.....	115
5.5.6.-Eskolako laborategien erabilera.....	115
5.6.-LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA.....	115
5.6.1.-Segurtasuneko laguntzailea.....	116
5.6.2.-Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan.....	116
5.6.3.-Larrialdi-simulakroak.....	116
5.6.4.- Botikin eramangarria.....	116
5.6.5.- Laneko istripuak.....	117



5.6.6.-Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa 117

SARRERA

2024-2025 ikasturtean zehar **Euskal eskola publikoaren eraldaketarako I. Plan Estrategikoaren** diseinuan murgilduko gara. Ze helbururekin? Gure sistemako ikastetxeen hezkuntza-kalitatea hobetzea, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea eta hezkuntza-ingurunearen erronkei eta aukerei eraginkortasunez erantzuteko gida argia eta egituratua diseinatzea. Mugarri bat izango da Eskola publikoarentzat eta, era berean, aukera bat etorkizuneko gizarte irudikatzeke.

2024-2025 ikasturteari begira, [Curriculum](#)a inplementatzen jarraituko dugu eta esku artean ditugun eta eraikitzen joango garen lanabes berriein egingo dugu bidea. Gure helburua da **ebaluazio hezitzailean** jauzi kualitatiboa egitea ikasleen ikaste-prozesu berri eta arrakastatsua bermatze bidean. Berariazko **formazioa** eskainiko dugu curriculumari lotuta; izan ere, curriculumaren hedapena irakasle bakoitzak bere geletatik inplementatzeaz harago doa. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (aurrerantzean IHP) islatu behar da aldaketa curricularra, metodologia egokiak hautatuz, digitalizazioa ikaskuntza prozesuaren zerbitzura jarritz, beti ere ikaslea erdigunera ekarrita

Azken bi urteetan, Hezkuntzako Berrikuntza-arduradunaren figura izan dugu gure ikastetxeetan. (aurrerantzean, BeA figura). Ikusi da figura horiek funtsezko zeregina betetzen ari direla gure ikastetxeetan: ikastetxeko berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako kultura sustatzen ari dira, batik bat. Nola? Praktika pedagogiko berritzaileak aztertuz eta esperimendatuz, hezkuntza-teknologiaren erabilera eraginkorra eta arduratsua bultzatuz, eta irakasleen arteko lankidetzaren erdigunera ekarritz.

Era berean, BeA figurek ikastetxeen barruan eta ikastetxeen artean praktika-komunitate profesionalak sortzen laguntzeko ahalmena dute, non esperientziak, ezagutzak eta baliabideak trukatzeko hezkuntza-komunitateko kide guztien garapen profesionalari laguntzen dioten. Horrela, ikastetxeek egungo eta etorkizuneko hezkuntza-ingurunearen aldaketetara eta erronketara egokitzeko duten gaitasuna indartzen da eta irakasle guztientzako kalitatezko hezkuntza esanguratsua bermatu.

Gure ikastetxeko ekosistema izan behar da pixkanaka kohesionatu, eraldatu eta egokitu behar dena. Eta horretarako, 2022-2023 ikasturtean hasitako bideari jarraipena emango diogu, Berrikuntza Arduradunak lanean jarraituko dute eta ikaskuntza-sareak sortuko ditugu prozesu eta proiektu esanguratsuetan eragiteko.

Ondo dakigun moduan, irakasle taldea oro har, eta, bereziki irakasle bakoitza, hezkuntzaren eraldaketarako motorrak dira, aldaketaren eragile, ikasleen gidari eta hezkuntza-komunitatearen erreferente. Hori dela eta, 2024-2025 ikasturterako, hurrengo lan ildo nagusiak aintzat hartuko dira:

- **Lidergo pedagogikoa eta Hezkuntza Eraldaketa**
- **Ebaluazio hezitzailea**
- **Euskara eta eleaniztasun gehigarria**



- Digitalizazio arduratsua
- Eskola inklusiboa, bizikidetzeta eta ongizatea

Lan ildo nagusi horiek, besteak beste, hurrengo helburuetan zehazten dira:

- Ikastetxeetako zuzendaritzen hezkuntza-lidergoa eta irakasle guztien ahalduntzea sustatzea.
- Curriculum berriaren ezarpenean bide egitea.
- Ebaluazio hezitzailearen markoan sakontzea.
- Ikastetxeko Proiektu Digitala garatzea.
- Hezkuntza-komunitate eleaniztunak bultzatzea; curriculumen hizkuntzen kalitatean eragitea eta bereziki euskararen normalkuntzarako estrategia berriak garatzea, hala nola, hezkuntza soziolinguistikoan arreta berezia jarritz.
- Ikasle guztien errealitatera egokitutako eskola inklusiboaren estrategietan sakontzea.
- Ongizate emozionala eta bizikidetzeta estrategian bide egitea.

Ikasturte honetan izango ditugun erronkei modu eraikitzailean erantzungo badiegu, ezinbestekoa izango da hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztion konpromisoa, betiere, elkarlana ardatz harturik.

[↑Aurkibidea](#)



1. HEZKUNTZA SAILBURUORDETZAREN LAN ILDOAK

Ikasturte hau planifikatzeko lehentasunezko esparruei dagokienez, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Lidergo pedagogikoa eta Hezkuntza Eraldaketa
- Ebaluazio hezitzailea
- Euskara eta eleaniztasun gehigarria
- Digitalizazio arduratsua
- Eskola inklusiboa, bizikidetzeta eta ongizatea

1.1. LIDERGO PEDAGOGIKOA ETA HEZKUNTZA ERALDAKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legearen¹ hitzaurrean jasotzen den bezala, ikasleek ikaskuntzaren subjektu aktibo gisa betetzen duten posizio zentralak berekin dakar lidergoen eta gobernantza-ereduen ikuspegi eraldatzailea, bai eskola-antolamenduan, bai Euskal Hezkuntza Sistema osoan ere. Hala, eskola-antolamenduan premisa hau hartzen da abiapuntutzat: **zuzendaritza eta zuzendaritzaren eginkizun espezifikoak betetzen dituen pertsona-taldea arrakasta-faktore erabakigarria da ikastetxearen kudeaketa eta hezkuntza-proiektua bera bultzatzeko, bai eta gelan, ikastetxe osoan eta haren mugetatik kanpo lankidetzeta-praktikak sustatzeko eta sinergiak sortzeko ere**. Esparru instituzional horretan, hezkuntza-komunitatea da, ikastetxearen beraren bitartez, hezkuntza-proiektuetatik eratorritako aberastasuna islatzen duena, ikasleen errealitatera gardentasunez egokituz, kontuak emanaz eta proiektu berritzaile baten bidez, ikasleek beren gaitasunak garatzen jarraitzea ahalbidetuko dien konpetentzia-mailarik handiena lor dezaten. Laburbilduz, hezkuntza-komunitateak ingurune gero eta konplexuago batean jardun behar du, eta esparru horretan etengabe sortuko dira aldaketak eta ziurgabetasunak; globalizazioak eduki eta konpetentzia asko markatuko ditu; digitalizazioa gero eta zabalagoa izango da, eta klima-aldaketa, gainera, gizadiak aurrez aurre izan duen desfiorik handienetako bat izango da, hezkuntza-sisteman ere inplikazio zeharo garrantzitsuak izango dituena.

Testuinguru horretan, Legearen II. kapituluak nabarmentzen du nolako **eginkizun baliotsua betetzen duten zuzendaritza-organoek lidergo pedagogikoan eta ikastetxeei etengabeko eraldaketa- eta egokitzapen-prozesu hori bideratzeko tresna egokiak emateko moduan**. Prozesu horretan, **zuzendaritzaren zeregina erabakigarria izango da**, eta hala azpimarratzen da legean. Azken helburua da ikastetxeen **zuzendaritza-egiturak ardatz hauetan oinarritzea: autonomia, eskumen propioen erabilera, kudeaketaren erantzukizuna eta ebaluatzeko gaitasuna**. Horretarako, zuzendaritza eta haren barneko maila guztiak osatzen dituzten pertsonak errendimendu handikoak izango dira, baliabide nahikoak eta aintzatespen profesionala edukiko dituzte, eta pizgarri ekonomikoez gozatuko dute.

[↑Aurkibidea](#)

¹ [17/2023 LEGEA](#), abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.



1.1.1. Zuzendaritza taldeak

Eskola arrakastaren lidergoa eramateko ezinbestekoa da eskola-zuzendaritzei bere eginkizuna eraginkortasunez betetzeko behar duten formazioa eta laguntza ematea. Hori horrela, xedea da ikastetxeen eraldaketa sustatzeko zuzendaritza-talde kompetenteak, kohesionatuak, ebaluatuak eta iraunkorrak bermatzea.

Testuinguru honetan ikastetxe publikoetako **zuzendarien eginkizunetarako sarbidea**, eta zuzendarien zein zuzendaritza-talde **prestakuntza**, **ebaluazioa**, **aintzatespena** eta zuzendaritzako **kargu-uzteak** arautzen duen [29/2023 otsailaren 28koa Dekretua](#) dugu hizpide.

[↑Aurkibidea](#)

a) Zuzendaritza-taldekideen formazioa

Jakin badakigu, irakasleez gain, zuzendaritza-taldea dela ikasleen arrakastaren faktorerik erabakigarriena. Azterlan berriek azpimarratzen dute zuzendaritza-taldeen etengabeko eta berariazko formakuntza funtsezkoa dela eskola-errendimendua eta, oro har, hezkuntza-kalitatea hobetzeko. Eskola-liderren prestakuntzak eragin zuzena du ikaskuntza-ingurune positiboa sortzean eta hezkuntza-politikak eraginkortasunez ezartzean. Beraz, zuzendaritza-taldeen formakuntza erdigunean jartzen jarraituko dugu, 2022-2023 ikasturtean hartutako bidearekin bat eginez, egungo hezkuntza-erronkei aurre egiteko beharrezko kompetentziak dituztela bermatzeko.

Ebidentzia zientifikoek hezkuntza-lider horientzako formakuntzaren dimentsioari arreta berezia emateko beharra nabarmentzen dute. Formakuntzak kudeaketa alderdietan ez ezik, trebetasun pedagogikoetan, lidergo eraldatzailean eta hezkuntza berritzatzeko estrategietan ere oinarritu behar du. Ikuspegi integral hori funtsezkoa da zuzendaritza-taldek eraginkortasunez gidatzea eta hezkuntza-ingurunearen eskaera aldakorretara egokitzea bermatzeko. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak formakuntza-programa aurreratu eta pertsonalizatuetan inbertitzen jarraituko du, hezkuntza-bikaintasunarekin konprometitutako zuzendaritza-talde eskudunak sendotzeko.

- **Zuzendarien hasierako formakuntza:**

Zuzendarien hasierako formazioa *Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa* (aurrerantzean **ZEB_HPPE**) deritzon prestakuntza-programaren bitartez erregulatzen da.

PEFI_EFD prestakuntza-programaren ezaugarri orokorrak honako hauek dira:

- *Programaren helburua:* zuzendari-lanpostuari dagokion zuzendaritza-eginkizuna eta lidergo pedagogikoa betetzeko irakasleek eskuratu behar dituzten [kompetentziak](#) eskuratzea.
- *Programaren edukiak:* 5 modulutan antolatuta daude. Programan egiten diren prestakuntza-jarduerek moduluen edukiak erlazionatzen dituzte, eta, horrela, modu globalizatuan lantzen dira.
 - 1 Modulus.- Ikastetxearen funtzionamendu eta antolaketa egokirako **arau-esparrua**
 - 2 Modulus.- **Lidergo Pedagogikoa** eta ikasle guztien arrakasta
 - 3 Modulus.- **Lidergo etikoa** eta ikastetxeko bizikidetzaren positiboa



- 4 Modulua.- **Lidergo eraldatzailea**: aldaketaren kudeaketa eta hezkuntza berrikuntza
- 5 Modulua.- **Lidergo estrategikoa** eta ikastetxeen antolaketa eraginkorra
- *Programaren formakuntza-jarduerak*: prestakuntza-programak bere helburuetara, plangintzara eta estrategietara egokitutako hainbat formakuntza-jarduera biltzen ditu (ikus V. eranskina. Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoak (ZEB_HPPE), [Jarraibideak, 2024-2025 ikasturterako ikastetxe publikoetako hezkuntzako berrikuntza-arduradunei \(BeA figurak\) buruzkoak](#)). Hauek dira formakuntza-jardueren ezaugarriak:
 - Jarduerak formakuntza-ibilbideetan antolatzen dira, edukiaren arabera, eta honela sailkatzen dira: ikastaroak, mintegiak, praktiken komunitateak, topaketa monografikoak, nazioarteko programak, formakuntza-egonaldiak eta lidergo-topaketak hezkuntzakoak ez diren inguruneetan.
 - Jarduera batzuk nahitaezkoak dira ZEB_HPPE programarako; beste batzuk, berriz, aukerakoak dira formakuntza-ibilbidea pertsonalizatzeko.
 - Formakuntza-jardueretan aplikazio praktikoak, ebaluazio-mekanismoak, helburuen jarraipena eta ikastetxeak hobetzeko esku hartzeko estrategiak sartuko dira.
 - Formakuntza aurrez aurre eta online emango da, eta Moodleguna plataforma erabiliko da parte-hartzaileen parte-hartzea eta aprobetxamendua ziurtatzeko.
- *Programaren iraupena*: ZEB_HPPE prestakuntza-programak 120 orduko iraupena izango du; 80 ordu derrigorrezko formakuntza-jarduerei dagozkie, eta 40 ordu hautazko jardueri. 2024ko urritik 2025eko maiatzera bitartean izango da.
- *Programa koordinatzea eta gainbegiratzea*: Berritzegune Nagusiko Lidergo Pedagogikoaren eta Hezkuntza Eraldaketaren Arloari dagokio. Formakuntza-jarduerak honako hauek emango dituzte: arlo horretan gaitasun egiaztatua duten langileek: hezkuntza-ikuskariak; ikastetxeetako zuzendariak edo ikastetxeetako pertsona bakarreko beste gobernu-organoek (guztiak ebaluazio positiboa izango dute zuzendaritza-eginkizuna betetzean); laguntza-zerbitzuetako langileak; unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak; Hezkuntza Saileko funtzionarioak; gai espezifikoetan adituak diren herri-administrazioetako beste langile batzuek; edo administrazioetako ez diren adituek.
- *Hartzaileak*: Programa hau derrigorrez egin behar dute:
 - 2024-2025 ikasturtean ez-ohiko izendapena duten eta ZEB_HPPE programaren egiaztatzea ez duten zuzendariak.
 - Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako (baldin eta zuzendari kargua 2025eko ekainaren 30ean hutsik geratzen bada) zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketan parte hartu nahi duten irakasleak eta ZEB_HPPE programaren egiaztapenik ez badute. Deialdia hori 24-25 ikasturteko lehen hiruhilekoan egingo da.



2024-2025 ikasturtean programa horretan parte hartzeko deialdia hurrengo ebazpenean zehaztuta dago: [EBAZPENA, 2024ko ekainaren 6koa, Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendariarena, Hezkuntzari buruzko otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuan ezarritako zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko berariazko prestakuntza-programari buruzko prestakuntza-ikastarorako deialdia egiten duena.](#)

- **Zuzendarien etengabeko formakuntza**

Zuzendarien etengabeko formakuntzarako aurreikusitako formakuntza-jarduerak [2024-2025 BeA jarraibideen](#) V. eranskinean- Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza (zuzendarien mintegiak, ikasketaburuen mintegiak, mentoretza, monografikoak,...) jasota daude.

Prestakuntza horren helburua zuzendariak zuzendaritza-funtzioa eta lidergo pedagogikoa betetzeko beharrezkoak diren kompetentziak garatzea da.

Zuzendari bakoitzak bere ikastetxeko beharrei erantzuteko nahi dituen formakuntza-jarduerak aukeratu ahal izango ditu, eta, horrela, bere formakuntza-ibilbidea osatu ahal izango du.

- **Ikasketa buru eta idazkarien formazioa**

Prestakuntza-programa espezifikoak eskaintzen dira pertsona bakarreko gobernu organoentzat, zuzendari ez direnak eta zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasten direnak. Halaber, eguneratze-programa espezifikoak eskaintzen dira gobernu-organo horientzat.

Programaren helburua: Ikasketa buruek eta idazkariak eskuratu eta garatu ditzatela zuzendaritza-eginkizuna eta lidergo pedagogikoa betetzeko beharrezkoak diren kompetentziak.

Aurreikusitako formakuntza-jarduerak [2024-2025 BeA jarraibideen](#) V. eranskinean- Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza (zuzendarien mintegiak, ikasketaburuen mintegiak, mentoretza, monografikoak,...) jasota daude.

[↑Aurkibidea](#)

b) Zuzendaritza taldeen hautaketa

[29/2023 Dekretuaren](#) arabera, zuzendariak hautatzeko eta izendatzeko merezimendu-lehiaketa urtero deituko da, eta ikasturtearen amaieran zuzendari-kargua hutsik geratuko den ikastetxeak hartuko ditu barnean. Hori horrela, 2024-25 ikasturtearen lehen hiruhilekoan zuzendariak izendatzeko hautaketa merezimendu-lehiaketa deitzea aurreikusten da.

[↑Aurkibidea](#)

c) Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa

Zuzendaritza-funtzioa ikastetxeen funtzionamendua hobetzeko eta aldaketa kudeatzeko gehien eragiten duten faktoreetako bat da; hala, funtzio hori ebaluatzeak aukera ematen du ikastetxeen eraginkortasuna bultzatzeko eta etengabeko hobekuntzan laguntzeko.

Zuzendaritzen jardunaren ebaluazioa zuzendaritza-funtzioaren eta -kompetentzien garapena aztertzeraz, hobetzeraz eta laguntzeraz zuzenduta dago. Izan ere, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioari ikuspegi



banaezin bikoitzetik egingo zaio aurre: hezigarritik, agintaldiko ikasturte bakoitzeko, eta egiaztatzetik, agintaldia amaitzean.

Egun indarrean dugun [otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuak](#) ebaluaziorako zehaztapenak ezartzen ditu.

- **Zuzendaritza-Proiektudun zuzendaritzak:**

2024-25 ikasturtean Zuzendaritza-Proiektua duten ikastetxeetako zuzendaritzek bere agintaldiko hurrengo urtean egongo dira: **1.urtean, 2.urtean, 4.urtean, 7.urtean, 12.urtean eta 15.urtean.**

1. urteko eta 2. urteko proiektudun zuzendaritzak [29/2023 Dekretuak](#) zehazten dituen kompetentzietan oinarritutako ereduarekin ebaluatuak izango dira.

Dekretuaren ildotik, zuzendaritza eginkizunaren kompetentziak hobetzeko, eguneroko praktikaren hausnarketa egiteko eta berdinen arteko ezagutzaren transmisioa bermatzeko *zuzendaritzen arteko ikaskuntza* bultzatuko da.

Horretarako, **ezagutza partekatzea eta berdinen arteko ikaskuntza oinarri**, eskarmentudun zuzendaritzek (proiektuaren 4. 7. 12. eta 15. urteetan ari direnak) zuzendaritza berrien (proiektuaren 1. eta 2. urteetan ari direnak) mentorizazioan eta ebaluazioan parte-hartu ahal izango dute.

Zuzendaritzen arteko ikaskuntzan arituko diren eskarmentudun zuzendariak mentorizazioan zein ebaluazioan parte hartuko dute formazio akreditazioa izango dute. Akreditazio horiek, besteak beste, *Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko kompetentziak eguneratzeko prestakuntza-programa espezifikoa*ren (ZEB_KEPPE) parte bat baliozkotuko dute.

- **Ez ohiko izendapeneko zuzendaritzak:**

[29/2023 Dekretuak](#) arautzen du, Zuzendaritza-Proiektua duten zuzendaritzez gain, ezohiko izendapenarekin jardunean arituko diren zuzendaritzen ebaluazioa egingo dela izendapena ezartzen den aldirako.

Ez ohiko izendapena duten zuzendaritzek Ikastetxeko Urteko Planean (IUP) lidergo pedagogikoarekin lotutako helburu bat gutxienez txertatuko dute (Jarduketa-plana). Helburu horrek adieraziko du ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin bat etorriko den lidergo asmoa. Ikastetxeko Urteko Memorian (IUM) ebaluatuko da zehaztutako helburuaren lorpen maila.

[↑Aurkibidea](#)

1.1.2. Berrikuntza Arduradunak

Ikasturte honetan berriz ere Berrikuntza **Arduradunaren figura (BeA)** esleitu da, ikastetxearen berrikuntza eta formazio planei modu integramean erantzuteko. Figura hori elkarlanean arituko da zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin batera eta bere eginkizun nagusia da ikastetxean ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, IHParekin eta horren ondoriozko dokumentu estrategikoekin bat etorriz.



Hori kontuan hartuta, [Hezkuntza sailburuordearen jarraibideak, 2024-2025 ikasturterako ikastetxe publikoetako hezkuntzako berrikuntza-arduradunei \(BeA\) buruzkoak](#) argitaratu dira. Bertan arautzen dira figura horren inguruko zehaztapen guztiak, besteak beste figura horren funtzioak:

- lidergo pedagogikoko funtzioa
- ikastetxeak dinamizatzeko funtzioa
- formakuntza-funtzioa
- material didaktikoak sortzeko eta erabiltzeko prozesua koordinatzeko eta dinamizatzeko funtzioa
- hizkuntza-berrikuntzako funtzioa
- sareak sortzeko eta Euskal Eskola Publikoa indartzeko funtzioa

Eginkizun horiek garatu ahal izateko formazio eta akonpainamendua programa bat diseinatu da **“BeAk trebatzen”** izenpean. BeA figuraren funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren konpetentziak, ezagutzak eta tresnak eskuratzeko balioko duena.

Formazio horrek bere funtzioak arrakastaz gauzatzeko beharrezkoak diren prozesuak eta tresnak ulertzen lagunduko dio. Gainera, formazio horren bidez, esperientziak partekatze guneak eta uneak eskainiko dira. Gune horien bitartez, harreman formalak eta informalak sustatzeko aukera izango da, ikastetxeen arteko sareak eta praktika-komunitateak sortzeko.

Ikastetxearen Urteko Planean berrikuntzarako esleitutako ordu-kredituaren plangintza jasoko da; plangintza horretan zehaztuko dira BeA figuraren zein berrikuntzarako orduak dituzten irakasleen (BODI irakasleak) zereginak eta horri dagokion antolaketaren zehaztapena. Horrez gain ikastetxean prozesu horien jarraipen- eta ebaluazioa ere islatuko dira. Horretarako, tresna bat jarriko da ikastetxeko zuzendaritzaren esku. Azken ebaluazioan hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak zehaztuko dira. Zuzendariak azken ebaluazio hori Ikastetxearen Urteko Memorian txertatuko du.

Hezkuntza Ikuskaritzak arestian aipatutako plangintzaren ikuskatzea egingo du. Ikuskatze horrek, gutxienez, hurrengo mementoak izango ditu:

- **Iraileko lehen hamabostaldian.** Aurreikusitako ekintzak:
 - Ikastetxeko zuzendariak BeA figura gisa izendatutako irakasleak baliozkotze-batzordeak onartutako proposamenarekin bat datozela egiaztatzea.
 - Pertsona horiek dagokien ikastetxeko klaustrakide gisa jardun aktiboan daudela egiaztatzea.
 - Aurreko bi egiaztapenetako batzuk betetzen ez badira, ziurtatu BeA figura gisa izendatzen dela karrerako funtzionario bat, 2024-2025 ikasturterako BeA figuren jarraibideetan ezarritako baldintzak betetzen dituenak.
 - Egiaztapen hori egin ondoren, ikuskaritzak dagokion eraginguneko arduradunari jakinaraziko dio zein ikastetxetan ez dagoen proposamenean aldaketarik, eta zeinetan bai. Azken horietan, figura berri horren datuen berri emango du.
 - Balorazio-batzordeak onartutako proposamenean ezarritakoa betetzen ez bada, eta ezinezkoa bada BeA figuren 2024-2025 ikasturterako jarraibideetan ezarritako baldintzak



betetzen dituen karrerako funtzionario bat izendatzea, egoera zehatza aztertuko da, dagokion eraginguneko arduradunarekin lankidetzan.

- **Lehen hiruhilekoan**, BeA figuraren zereginen plangintza, BODI irakaslerena eta ikastetxean egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak IUPn behar bezala jasota daudela ziurtatuko da. Aldi berean, BeA figuraren datuak eta BODI irakaslerenak (hala badagokio) behar bezala jasota daudela ziurtatuko da *Eskola Jardueraren Dokumentuaren (DAE) 0 bertsioan/ordutegi-koadroetan*, eta balorazio batzordeak onartutako proposamenarekin bat datozela.
- **Ikasturtean zehar**, figura horien jarraipena egingo du, ikastetxearen ikuskatze-prozesuaren barruan.
- **Ikasturte amaieran**, ikastetxeak BeA figuraren azken ebaluazioa egin duela eta ebaluazioan egindako plangintzaren betetze-maila eta hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak jasotzen direla ziurtatuko da.

Berritzegune Nagusiko BeAk Trebatzen prestakuntza-programaren arduradunek BeAk formakuntza-jardueretan duten parte-hartzearen jarraipena egingo dute ikasturtean zehar. Garrantzitsua da gogoraraztea arduradun horiek ez dutela justifikatzen nahitaezko formakuntza-jardueretan BeA bat ez joatea. Bere eginkizuna formakuntza horietara joaten dela kontrolatzea da; aldiz, bertaratze-hutsegiteak justifikatzea ikastetxeko zuzendaritzari dagokio, irakasleen bertaratzea kontrolatzeko araudi orokorraren arabera.

Hauak dira aurreikusitako ekintzak:

- *Beak Trebatzen* programaren nahitaezko formakuntza-jarduera bakoitza amaitzean, eraginguneko arduradunak formakuntza-akta bat bidaliko dio ikastetxeko zuzendaritzari, eta akta horretan formakuntzan parte hartu duten ikastetxeak adieraziko dira.
- BeA figuraren bat formakuntza horietako batera joaten ez bada, eraginguneko arduradunak horren berri emango dio dagokion ikastetxeko zuzendaritzari.
- Jakinarazpen biak ikastetxeko posta ofizialera bidaliko dira (0xxxxaa@hezkuntza.net).

[↑Aurkibidea](#)

1.2. CURRICULUMA eta EBALUAZIOA.

Ikasturte honetako eginkizun nagusia da ikastetxeetan ikaskuntza sakona bermatzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea. Prozesu horiek ezinbestean ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin, gainontzeko dokumentu estrategikoeekin eta indarrean dauden Curriculum Dekretuekin bat egin behar dute. Hori guztia, zuzendaritza-taldearen lidergoarekin; ikastetxeetako Berrikuntza Arduradunekin eta klaustrakideekin lankidetzan estuan egingo da. Azken xedea da ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea hobetu eta ikasleen aniztasunari ikuspuntu inklusibotik erantzutea.

[↑Aurkibidea](#)

1.2.1. Curriculumaren garapena.

Ikastetxeek funtsezko zeregina izaten jarraituko dute **curriculumak hezkuntza-etapa guztietan etengabe ezartzeko eta egokitzeko**, eta modu koherentean integratuko dituzte ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektuan. Hala ere, egokitzapen horiek antolatze eta planifikatzeko



orduan ikastetxeek autonomia handiagoa izatea sustatuko da, ikasleen berariazko beharretara eta hezkuntza-testuingurura egokitu daitezten.

Autonomia horren esparruan, ikastetxearen zereginak alderdi hauetan oinarrituko dira:

- a) **Curriculumaren antolaketa malgua.** Jakintzagaiak malgutasunez eta koherentziaz antolatzea (proiektu globalizatuen, eremuen bidez...) eta ikasleen ezaugarrietara gehien egokitzen diren antolakuntza- edo arreta-neurriak hartzea. **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan**, eremuetan multzokatutako jakintzagaiak diseinatzea eta planifikatzea, etaparen lehenengo bi ikasturteetan gutxienez
- b) **Programazio didaktikoak** eta, hala badagokio, dagozkien **ikas-egoerak, erronken bidezko lanak, proiektu globalizatuak...** eguneratu, ezarri eta ebaluatuko dira. Horretarako ikastetxeak **plangintza eta formazioa** antolatuko du.
- c) **Curriculum-erabakien jarraipena eta kudeaketa.** Hartutako curriculum-erabakiak modu eraginkorrean inplementatzen direla ziurtatzea, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan dokumentatuz eta erabaki horien gauzatzea, jarraipena, ebaluazioa eta hobekuntza dagozkion ikastetxeko organoekin koordinatuz. Gainera, curriculum-erabaki berriak hartzea errazten jarraitzea, hezkuntza-prozesuaren etengabeko azterketa-, egokitzapen- eta hobekuntza-ziklo bat sustatuz, ikasleen eta hezkuntza-ingurunearen premia aldakorretara egokitzeko.
- d) **Material didaktikoak sortzea eta gainbegiratzea.** Kalitatezko material didaktikoak ikertzea, hautatzea eta garatzea, ikastetxeko hezkuntza-helburuekin lerrotatuta eta ikasleen premia espezifikoa eragokituta. Horren barruan sartuko da hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzeko baliabide digitalak, gidak eta tutorialak sortzea eta/edo hautatzea.
- e) **Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia eta Konpetentzia eleaniztuna sustatzea.** Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektua eta haren jarraipena egiten laguntzea, Hezkuntza Proiektuarekiko eta ikasleen errealitate soziolinguistikoarekiko koherentzia bermatuz, euskararen erabilerari garrantzi berezia emanez. Jakintzagai guztietan hizkuntzen trataera integratuz eta integratuz oinarritutako metodologiak inplementatzen bultzatzea, testuinguru eleaniztuna eta kulturartekoa aintzat hartuta.
- f) **Irakurketa Estrategia garatzea.** Argitaratu berri den [Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia](#) ikastetxean ezartzea, bere baitan hartuko dituen jakintzagai guztietako testuetan ikasleen ulermen gaitasuna hobetzeko proposamenak, eta irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamenak. Lortutako emaitzak ebaluatzea eta etengabe hobetzeko neurriak proposatzea.

Hori lortzeko funtsezkoa izango da hurrengo **alderdiak zaintzea**:

- a) **Klaustrokideen formazioa.** Atal honetan giltzarria izango da ikastetxean **Formazioa Plana** diseinatzea, koordinatzea eta bere jarraipena egitea, BeA figuraren lidergoarekin eta zuzendaritza-taldeak gainbegiratuta. Plan horretan, berrikuntza-proiektuak eta haien formazio-programak barne hartuko dira, elkarren arteko erlazioak ezar daitezten eta izaera integrala izan dezaten.



b) **Ikastetxean abian dauden berrikuntza-proiektuak.**

Berrikuntza-proiektuek inpaktua izan dezaten helburu argiak, ekintzak, kronogramak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak izango dituzte. Izan ere, eraginkortasunez eta era koordinatuan hedatzearen aldeko apustu argia egingo da.

c) **Ikastetxearen diagnostikotik abiatutako hobekuntzak.**

Ikastetxeak kanpo-ebaluazioetako datuetatik (ebaluazio diagnostikoak, USE proba, bestak beste...) eta barne-ebaluazioetako datuetatik abiatutako **diagnostikotik; hobekuntza-arloak identifikatuko ditu**, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei dagokienez, bai hezkuntzaren teknologiarri dagokionez. Horren ondoriozko **hobekuntza proposamenen diseinu, inplementazio, jarraipena eta ebaluazioa egingo da.**

d) **Beste ikastetxeekin sareak eta harremanak.**

Ikasturte honetan abian jarriko dira **berrikuntza-proiektuekin lotutako praktika-komunitateak.**

Praktika-komunitate bat ikastetxeen arteko lan-talde bat da, berrikuntza-proiektu jakin baten diseinuari, garapenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko esperientziak, ezagutzak eta praktika onak partekatzen dituena.

2023-2024 ikasturtean, praktika profesionaleko komunitate baten bidez garatzen ari diren berrikuntza-proiektuak identifikatu dira. Praktika-komunitate profesional horiei buruzko oinarritzko informazioa [24-25 BeA jarraibideen](#) VI eranskinean azaltzen da. Identifikazio horrek ez du esan nahi ikasturtean zehar praktika-komunitate profesional berriak eratu ezin daitezkeenik, aurretik egindako formakuntza-jarduera bati (monografikoa, ikastaroa...) jarraipena emateko eta eraginkortasuna bermatzeko.

Praktika-komunitate batean parte hartzea borondatezkoa izango da ikastetxearentzat, baina komunitate horretan atxikitze konpromisoa hartu ondoren, ikastetxeak kasuan kasuko praktika-komunitateak ezartzen dituen konpromisoak bete beharko ditu.

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du praktika-komunitate horretan BeAk ala beste irakasleren batek parte hartuko duen. Kasu horretan, BeA figurak irakasle horrekin koordinatzeko ardura izango du, praktika-komunitate horren babespean garatzen diren berrikuntza-proiektuen ezarpenaren jarraipena egin ahal izateko.

Praktika-komunitate horiek Berritzegune Nagusiko esparru bateko aholkulari baten laguntza izan dezakete, baina lehentasuna emango zaie beren kideen arteko autoantolamenduari eta erantzunkidetasunari.

Praktika-komunitate horietan, ikaskuntza partekatuko ekintzak landuko dira, ikastetxeetan bertan kokatutako esperientziak trukatzeko eta komunikatzeko gune irekien bidez. Behaketan, trukean eta formakuntzan oinarritutako ekintza horien bidez, BeA figuren konpetentzien garapena sustatu nahi da, eta kasuan kasuko hezkuntza berrizatzeko eta eraldatzeko proiektua garatzeko beharrezkoak diren formakuntza-bitartekoak eskaini.

[↑Aurkibidea](#)



1.2.2. Digitalizazioa

Azken hiru urteotan, aurrera pausu handiak eman dira Euskal Hezkuntza Sistemaren digitalizazio prozesuan.

Hezkuntza Sailak abian jarritako 2022-2024 aldirako [Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planak](#) eta [Euskal hezkuntza-sistema ez-unibertsitarioaren mentoretza digitalari buruzko DigCompEdu Gelan](#) programak esparru honetan aurrerapen esanguratsuak egitea ahalbidetu dute. Horrela, besteak beste, EAEko ikastetxe guztiek haien estrategia digitala diseinatu (IPDa) eta inplementatzen hasi dira eta irakasleen ehuneko %90etik gorak bere kompetentzia digitala hobetzeko formazioa jaso du.

Horiek horrela, eta egindako lanean sakontzen jarraitzeaz gain, erronka berrien aurrean jartzen du digitalizazioak hezkuntza. Erronka guzti horien artean, maila ezberdinean, honako hauek jorratzen hastea dagokigu 2024-25 ikasturtean:

- Ikasle eta irakasleen datuen babesaren zaintza.
- Adimen artifiziala hezkuntzan.
- Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotika (Eskola adimentsua edo Adi programa).

Horretaz gain, irakasleen kompetentzia digitala hobetzeko eta akreditatzeko formazioa eskaintzen ere jarraituko dugu. Informazio gehiago d) atalean

a) Ikasle eta irakasleen datu babesa

Hezkuntza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle eta irakasle guztiei datu babeserako baldintza egokiak betetzen dituen identitatea eskaintzen die @ikasle.eus eta @irakasle.eus helbide elektronikoaz baliatuz. Kontu hauek hainbat zerbitzuetarako aukera eskaintzen dituzte eta, azken bi urtetan egindako lanari esker, gehiengo dira, dagoeneko, kontu hau erabiltzen duten irakasleak.

Ikasleekin bide beretik jo beharko litzateke, @ikasle.eus kontuak baitira Hezkuntza Sailak ikasleen datuen babesa bermatzeko jarritako tresna.

Horretaz gain, eta kontutan hartuta anitzak direla ikastetxeetan erabiltzen diren aplikazio digitalak, Datuen Babeserako Euskal Agentziarekin batera, horiek pribatutasuna eta datuen babesa ziurtatzen duten ala ez aztertuko du Hezkuntza Sailak, batez ere, ikasleen datuak biltzeko, erabiltzeko eta biltegitzeko, segurtasun- eta pribatutasun-protokoloa egokitzeko. Izan ere, hezkuntza-ingurunean datuen erabilera arduratsua eta etikoa sustatu beharra dago, betiere, ikasleen ongizatea eta ikaskuntza lehentasuntzat hartuta.

Ikasleei egiten zaizkien proposamen didaktikoetan kontutan hartu beharra dago, besteak beste, horiek gauzatzeko erabili beharreko baliabideak eta horien erabilerarako baldintzak baieztatzea; adibidez, sare sozialen erabilerarako araudia, non, ebazpen hau idazten den unean, jasotzen den 14 urte bitarteko gazteek ezin dituztela horiek erabili.



b) Adimen artifiziala

Azken urteotan eta, batez ere, adimen artifizial sortzaile azken plataformak orokortu direnetik, indar handia hartzen ari dira teknologia hau erabiltzen duten baliabideak. Hainbat arrazoi daude adimen artifizialak (hemendik aurrera, AA) hezkuntza praktikari egin diezaiokeen ekarpena aztertzeko, adibidez:

- Ikaskuntzaren pertsonalizazioa
- Ikasteko zailtasunen identifikazio goiztiarra
- Banakakoari egokitutako feedback esanguratsua eta azkarra
- Zenbait administrazio lanen automatizazioa
- Ikasleen alfabetizazioa

Adimen artifizialak aukerak eskaintzeaz gain, erronka berrien aurrean ere jartzen gaitu, argi-ilunak dituen, eta, horregatik, azpimarratu behar da printzipio etiko eta pedagogiko sendoek gidatu behar dutela adimen artifiziala hezkuntzan txertatzeko prozesua. Irakasleek prestakuntza egokia jaso behar dute tresna horiek modu eraginkor eta gogoetatsuan erabiltzeko, teknologiak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak osatu eta aberasten dituela ziurtatuz, baina inoiz ez irakaslearen begirada eta erabakia ordezkatuz, ohiko irakaskuntza osatu eta aberasten duela ziurtatuz, ordezkatu beharrean.

Gainera, eta aurreko puntuan adierazi bezala, funtsezkoa da ikasleen datuen pribatasuna eta segurtasuna bermatzea hezkuntzan adimen artifizial sistemak erabiltzean.

Horretarako, ikasturtean zehar gai honen inguruko sentsibilizazio prozesua hasiko da Digitalizazio eta Berrikuntza teknopedagogiko esparrutik ekintza anitzak antolatuz, besteak beste:

- AAren inguruan sentsibilizazio ubidea eskaintzea. (Informazioa gehiago [24-25 BeA jarraibideetako](#) V. eranskinean).
- AAren erabilera hezkuntzan inguruko pilotu bat abiatzea.
- [Kit Digital](#)ean AAren atala eskaintzea.

c) Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotika (Eskola adimentsua).

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculumaren testuinguruan, pentsaera konputazionalak, programazioak, robotikak eta STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) diziplinek hezkuntza-etapa guztietan duten garrantzia azpimarratzen da, eta agerian geratzen da irakaskuntza egokitu beharra dagoela arlo horiek txiki-txikitik integratzeko.

Bide hau jorratzeko asmoarekin, Hezkuntza Sailak Eskola Adimentsua programa jarriko du abian 2024-25 ikasturtean. Programa honek jarraian zehazten diren helburuak izango ditu:

- **Konpetentzien garapena:** pentsamendu konputazionalarekin, programazioarekin eta robotikarekin lotutako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko konpetentziak sustatzea.
- **Metodologiak eta teknologiak erabiltzea:** Ikasgelan metodologiaren, teknologiaren, materialen eta baliabide digitalen erabilera sustatzea, ikasleek pentsamendu konputazionalarekin, programazioarekin eta robotikarekin konpetentziak gara ditzaten, curriculumaren arabera.



- **Hezkuntza-materialak sortzea:** Ikasgelan pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika garatzeko diseinatutako material digitalak eta analogikoak sortzea eta euskal hezkuntza-sistemaren esku jartzea sustatzea.
- **Irakasleen formakuntza eta laguntza:** Ikastetxeetan arlo horiek bultzatzeko beharrezko formakuntza eta laguntza ematea.
- **Ekipamendua:** Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika sustatzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitzea ikastetxeak.
- **Genero berdintasuna eta Hezkuntza Inklusiboa:** Genero berdintasuna bermatzea eta estereotipoetatik eratorritako edozein desberdintasun gainditzea, hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa sustatuz, ikasleak elkarren artean konektatutako mundu jasangarri batean herritar arduratsuak izateko prestatuko dituen.
- **Iraunkortasunaren kultura.** *Eskola Adimentsua* programaren funtsezko helburu bat da iraunkortasuna sustatzea Garapen Iraunkorreko Helburuen (GJH) esparruan, bereziki 4. GJHaren esparruan. Helburu horren ardatza da "hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea, eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea guztientzat". Pentsaera konputazional, robotika eta programazioko prestakuntza bat dator 4. GJHarekin, XXI. mendeko trebetasunak sustatzen baititu, berrikuntza eta sormena sustatzen baititu eta hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa bermatzen baitu. Konpetentzia horiek aukera ematen diete ikasleei iraunkortasuneko erronka globalei heltzeko, irtenbide teknologikoak diseinatzeko eta lan-aukerak hobetzeko. Arlo horiek curriculumean sartzeak mundu interkonektatu eta jasangarri baterako prestatzen ditu ikasleak, kalitatezko hezkuntzaren eta garapen iraunkorraren helburuak betez.

Helburu hauek betetzeko, baliabide anitzak jarriko ditu Hezkuntza Sailak ikastetxeen eskura, besteak beste:

- **Ekipamendua:** Ikastetxeei beharrezko ekipamendua ematea ikasleen konpetentzia digitalak garatzeko, bereziki pentsamendu konputazionalari eta programazioari dagozkienak.
- **Adi mentoreak:** DigCompEdu Gelan programan abian jarritako mentore digitalen ereduari jarraiki, Adi programak mentoreak izango ditu sisteman laguntza, aholkularitza eta formazioa emateko. Berritzegune Nagusiaren Digitalderen eskutik, mentore hauek pentsaera konputazionala, robotika eta programazioa egunerokoan txertatzeko baliabideen sorkuntzarako laguntza eta aholkularitza eskainiko dute.
- **Formazioa:** Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa beren-beregi lantzeko formazioa eskainiko du hiru formatutan:
 - Mintegiak: Ikastetxeen urteko formakuntza-planean sartuta daude, hala erabakitzen badute. Aukerako bi mintegi mota egongo dira:
 - Hasiberrientzat: Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa integratzen hasten diren ikastetxeentzat (30 ordu).
 - Aurreratuentzat: Aurretiko esperientzia duten ikastetxeentzat (23-24 ikasturtea), ikuspegi praktikoarekin (20 ordu).



- Norbanako formazioa : 10 orduko online ikastaroa, NOOC (online ikastaro masibo irekia)formatuan. Honek esan nahi du ikastaro honek ez duela ez tutorizazio, ez ebaluaziorik, hortaz, ez da zertifikatuko. Dena den, irakasleek eskura izango dute pentsaera konputazionala, robotika eta programazioaren inguruko ibilbide formatibo egituratua haien praktika hobetzen lagunduko diena.
- Adimengune webgunea: webgune honetan irakasleek eskura izango dituzte, besteak beste, hainbat gailuren erabileran trebatzeko bideotutorialak eta ikasgelaratzeko praktika proposamenak.

Eskola Adimentsua programa aurrera eramateko, beharrezkoa da ikastetxeek formazioa eta aholkularitza egokia jasotzeaz gain, baliabide eta ekipamendu egokiaz hornituta egotea. Hori dela eta, Hezkuntza Sailak ikastetxe guztiei diru zuzkidura emango die. Diru zuzkidura hau gela kopuru eta etapen arabera izango da, Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik Batxilergoraino. Diru horren truke, ikastetxe bakoitzak, pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa lantzeko baliabide digital bat jarri beharko du Hezkuntza Sailaren eskura, honek bere eduki plataformetan parteka dezan, Berritzegune Nagusiak adieraziko dituen ezaugarri jarraiki, 2025eko apirilaren 30erako.

Informazio gehiago eta zehatzagoa ikastetxeen esku jarriko den *Eskola Adimentsua* programa deskribatzen duen dokumentuan izango duzue.

d) Irakasleen kompetentzia digitala hobetzeko formazioa.

Digitalizazio eta berrikuntza teknopedagogiko arlotik, azken urteotan ikasitakoak praktikan jartzen laguntzeko eta gure ikasleen kompetentzia digitaletan eragina izateko, digitalizazio ikastaro espezifikokoak eskainiko zaizkie ikastetxeei, interesa izango balute, haien ikasturteko formazio planean gehitu ditzaten:

- Hezkuntza Baliabide Digitalak eXelearning-en.
- Teknopedagogia praktikoa eta ikasleen kompetentzia digitala.
- Adimen artifiziala hezkuntzan.

Formazioa ez da derrigorrezkoa izango eta ikastetxe bakoitzak aukeratuko du bere interesen arabera (informazio gehiago BeA jarraibideetan).

Honetaz gain, bere kompetentzia digitalaren akreditazioan aurrera egin nahi duten irakasleek aukera izango dute A2, B1 eta B2 mailetako ikastaroak txanda irekien bitartez lortzeko.

[↑Aurkibidea](#)

1.2.3. Euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna

Ikasleek Hizkuntza Komunikaziorako Kompetentzia eta Kompetentzia Eleaniztasuna garatzea funtsezkoa da beste kompetentzia guztiak ere modu egokian garatzeko. Hizkuntzak beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen ditu errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundua ikusteko eta ulertzeko eta besteekin hartu-emanak izateko era jakin bat transmititzeko.

Horregatik, ikasturte honetan ere Hezkuntza Sailburuordetzak formazioa eta aholkularitza eskainiko ditu **ikastetxeetan hizkuntzen ikaste- eta irakaste-prozesuak hobetzeko eta irakasleek haien hizkuntza-**



gaitasunetan sakontzeko. Ikastetxeek haien Hizkuntza Proiektuan adierazi beharko dute zein ekimen, proiektu edo egitasmotan parte hartuko duten aipatutako alderdiak lantzeko, eta Ikasturteko Planean jaso horietatik erator daitezkeen irakasleentzako formakuntza jarduerak.

a) Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia 2024-2027

Ikasleek bizitzan zehar izango dituzten erronkei arrakastaz aurre egiteko eta irteera-profilaren mesedetan, irakurtzeko konpetentzia curriculumeko arlo guztien zeharkako ardatza da, eta ikasgai guztiak ikasteko ezinbesteko tresna kontsideratzen da. Esandako guztiak, ezinbestean, ikastetxeetako irakurketarako estrategia egungo testuinguruan kokatzea eskatzen du.

Horretan laguntzeko, Hezkuntza Sailak 2024-2027 epealdirako [Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia](#) hezkuntza komunitate osoaren eskura jarri berri du

Irakurketa Estrategiaren arrazoia da ikastetxe batean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea, helburu argi eta zehatz batetik abiatuta: irakurle onak prestatzea, jakitun izanik ikaslearen irakurtzeko konpetentzia garatzeko, jarduera koordinatua eta behar bezala programatua behar dela.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren baitan, Ikastetxeko Irakurketa Estrategiak funtsezko ardatzetako bat izan behar du. Ikastetxeak ondo zehaztutako programazio bat behar du, curriculum-arlo guztietatik irakurketaren tratamenduari aurre egingo diona, ikasleei irakurketaren oinarriko prestakuntza bermatuko diona eta etorkizuneko garapenaren oinarriak irakurle trebe gisa jarriko dituena.

2024-2025 ikasturtean Hezkuntza Saileko aholkularitza zerbitzuak hasiko dira udaberrian argitaratutako Irakurketa Estrategia ikastetxeei ezagutarazten. Besteak beste, 2024-2025 ikasturtean [Hedatze](#) programan eta [Eleaniztasunerantz](#) deialdian parte hartuko duten ikastetxeek oinarriko prestakuntza jasoko dute Irakurketa Estrategia berriaren gakorik garrantzitsuenak ezagutzeko.

[↑Aurkibidea](#)

b) Irakurzaletasuna bultzatzeko plataforma: Elibrum

Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzeko, 2024-2025 ikasturtean *Elibrum* programa gauzatuko da Kultura Sailarekin lankidetzan. Programa pilotu hori Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxetan ezarriko da, eta ikasleek liburu digitalak eskainiko dituen plataforma digital baterako sarbidea izango dute. *Elibrumek* irakurzaletasuna errazteaz gain, liburuaren gozamina sustatuko duen ingurune ludiko eta soziala ere sortuko du. Pilotuaren emaitzak ebaluatu eta hobekuntzak egin ondoren, *Elibrum* programa hurrengo ikasturteetan institutu gehiagotara zabaltzeko asmoa dago.

Funtsezkoa da irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzea 12 eta 18 urte bitarteko ikasleen artean. Garapen-aldi hori funtsezkoa da irakurtzeko grina lantzeko; izan ere, gazteak beren nortasunak osatzen eta beren horizonte intelektualak eta emozionalak zabaltzen ari dira. Irakurketak, hizkuntza- eta ulermen-trebetasunak hobetzeaz gain, irudimena estimulatu du, empatia garatu du eta gaitasun kritikoa indartzen du. Gainera, irakurtzeko ohitura sendo batek lotura zuzena du arrakasta akademikoarekin eta epe luzerako garapen pertsonalarekin. *Elibrum* bezalako programak, liburuetarako sarbide digitala eta ingurune interaktiboa, ludikoa eta soziala uztartzen dituztenak, tresna indartsuak dira irakurzaletasuna elikatze eta ikasleen hezkuntza-esperientzia aberasteko.

[↑Aurkibidea](#)



c) Irakasleen konpetentzia didaktiko-metodologikoa

Irakasleen konpetentzia didaktikoak eta metodologikoak berebiziko garrantzia dute ikasleen hezkuntza-garapen integralean. Ikuspegi pedagogiko aktibo eta berritzaileen bidez, hizkuntzen tratamendua integratzeaz eta hobetzeaz gain, ikasleen komunikazio-konpetentzia indartu nahi da. Jarraian, Hezkuntza Sailak 2024-2025 ikasturtean ezarriko dituen funtsezko zenbait formakuntza-ekimen eta -programa zehazten dira, irakasleen konpetentzia horiek indartzeko:

1. Eleaniztasunerantz:

Deialdi honetako [A eta B modalitateetan](#), metodologia didaktiko eta metodologiko aktibo eta berritzaileak nabarmentzen dituen formakuntza-eredu bat sustatzen da. Metodologia horiek hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala garatzeko diseinatuta daude, eta, horrela, ikasleen komunikazio-konpetentzia garatzea errazten da. 2024-2025 ikasturtean Eleaniztasunerantz deialdian parte hartzen duten ikastetxeetako irakasle guztiek Irakurketa Estrategiari buruzko prestakuntza jaso beharko dute, deialdian zehazten den bezala.

2. Pluriliteracies:

2024-2025 ikasturtean zehar, programa honen hirugarren edizioa egingo da, alfabetatze anitzen bidez hizkuntza-gaitasunak hobetzeko. Parte-hartzaileek ingelesezko prestakuntza espezifikoa jasoko dute, arlo eta ikasgai guztietako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak aberasteko. Lehenengo aldiz, programa hau ingelesez irakasten duten irakasleentzat ez ezik, euskaraz irakasten dutenentzat ere eskuragarri egongo da. Xehetasun gehiago, emandako [estekan](#) aurki daitezke.

3. R900:

[Euskarazko ahozko komunikazioa irakas-jarduenean](#) lantzeko ikastaroa, IRALE programaren bitartez. Hizkuntza-Proiektuan zehaztu beharko da programa honetatik eratorritako egitasmoa ikastetxean nola inplementatuko den.

4. R400:

[Ikas materialgintza euskaraz sortzeko ikastaroa](#), IRALE programaren bitartez. Hizkuntza Proiektuan zehaztu beharko da programa honetatik eratorritako ikasmateriala ikastetxean nola inplementatuko den.

5. H eta I ikastaroak:

Euskararen inguruko irakaskuntza-didaktika eta ikastetxean euskararen normalizazioa bultzatzeko estrategien gaineko [ikastaroak](#).

[↑Aurkibidea](#)

d) Irakasleen hizkuntza-konpetentzia eta konpetentzia komunikatiboa

Irakasleen hizkuntza- eta komunikazio-konpetentziak funtsezko zeregina du ikasleen hezkuntza-kalitatean eta garapen integralean. Atal honetan, 2024-2025 ikasturtean irakasleen artean konpetentzia horiek indartzeko hainbat prestakuntza-ekimen eta -programa zehazten dira.



1. R300:

Helburua da irakasleen [euskara kompetentzia sendotzea](#) IRALE programaren bitartez.

2. Eleaniztasunerantz B,

[B modalitatea](#): modalitate honetan proposatzen den prestakuntza-ereduak barne hartzen du ere irakasleek atzerriko hizkuntzan komunikatzeko duten kompetentzia hobetzea. Prestakuntza horretarako, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailatik B2 mailara, eta B2 mailatik C1 mailara igarotzeko diru-zuzkidurak emango dira, gutxienez, 50 ordurekin, 3 urteko epean ziurtagiria lortzeko.

3. English for Better Teaching ([esteka](#)):

irakasleek ingelesez duten hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta ingelesez irakasteko prozesuak hobetzeko berariazko prestakuntza da hau. 2024-2025 ikasturtean berriz ere eskainiko da ikastaroa, deialdi baten bidez, modu mugatuan, 2025ko lehen lau hilekoan gauzatzeko. Programan onartuak diren irakasleak liberatuko dira 3 hilabetez, eta ikastetxeak ordezkioa jasoko du. B2 mailatik C1 mailara jauzi egiteko hizkuntza-trebakuntzaz aparte eguneratze didaktiko eta metodologikoa ere jorratuko da, curriculumare erreferentzia–hartuta. Hizkuntz trebetasunen barruan, bereziki, ikaskuntza jardueran ahozko komunikazioa landuko da. Era berean, ingeleseko material didaktikoak sortzeko eta horien hizkuntza-kalitatea bermatzeko jarraibideak emango dira.

[↑Aurkibidea](#)

e) Euskararen normalizazioa, euskal kultura eta hezkuntza soziolinguistikoa

Curriculumak adierazten duen bezalaxe, gaur egungo gizartea ezaugarritzen duten erronka sozialei erantzun ahal izateko, garrantzizkoa da kultura bakoitzak behar horiei eskaintzen dizkien erantzunak ezagutzea, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta beste kultura batzuen ekarpenak baloratzeko edo aintzat hartzeko, kulturen arteko errespetua eta elkarriketa bultzatuko duten kulturarteko hezkuntza-planteamenduen bidez.

Horrekin lotuta, curriculumak jasotzen du, [Oinarrizko Hezkuntzaren printzipioetan](#), Oinarrizko Hezkuntzako arloek eta jakintzagaiek euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoak txertatu behar dutela. Hori dela eta, aholkularitza bideratuko da Berritzegune Nagusitik, Hizkuntza-Proiektuetan gai hauek jorratu nahi dituzten ikastetxeetan; ULIBARRI mintegietan ere landuko da.

1. Hizkuntza Normalizazioko mintegiak (HN mintegiak-ULIBARRI programa)

Hilabetean behin, [Ulibarri Programan](#) dauden ikastetxeetako irakasle arduradunei zuzendutako mintegiak dira, haien euskararen normalizaziorako planak garatzen laguntzeko. 24-25 ikasturtean ere mintegi horiek astearte goizetan egingo dira, bi ordu eta erdiko saioetan, 09:30etik 12:00ak arte. Zortzi saio aurreikusten dira ikasturtean zehar. Mintegi saio gehienak aurrez aurrekoak izango dira, baina on-line saioak ere programatu ahal izango dira. Aurrez aurreko saioak eraginguneka antolatuko dira.

Edukiei dagokienez, Ulibarri programari eta euskararen normalizazioari buruzko informazioa eta praktika onak partekatzeaz gain, saioen bigarren zatian mintegiek praktika-komunitateen kutsua



hartuko dute ikasturte honetan ere: parte hartzaileak haien interesdun gaien araberako azpitaldeetan elkartu eta, helburu bat adostuta, gai horiek jorratu eta ikastetxeetarako erabilgarria izango diren ekoizpenak sortuko dituzte. Besteak beste, azpitalde horietan honako gai hauek jorratu ahal izango dira:

- familiak, bidelagun: komunikazio plana
- euskal kulturaren transmisioa testuinguru kulturantzunean
- ikasle euskaldun aktiboak sortze bidean: eduki soziolinguistikoak, jarrerak eta portaerak
- euskararen normalizazioa ikastetxearen esparru digitalean.

2. R600

[Curriculumean euskal kultura jorratzeko ikastaroa](#) da. Hizkuntza-Proiektuan zehaztuko da ikastaro honetatik eratorritako egitasmoa ikastetxean nola inplementatuko den.

f) Ikasle etorri berrientzat programak

Kulturartekotasuna sustatzeko proiektuetatik datozen formazio eta akonpainamendu beharrak hizkuntzan, ongizatean eta kultur aniztasunean:

1. Eusle programa

Eusle ekimena hizkuntza-murgiltze programa bat da, gure hezkuntza-sistemara etorri berri diren ikasleei eskolako komunikazio-hizkuntza, euskara, eskuratzeko prozesua errazteko. Programak bi zutabe nagusi ditu, ikaslearen ongizate emozionala zaintzea eta komunikaziorako hizkuntza ahalik eta lasterren ahalbideratzea (A2 maila) garapen akademikoa gauzatzeko konpetentzia izateko.

2024-2025 ikasturtean [Eusle Programan](#) parte hartzen duten ikastetxeek DBHko 1. mailako eta 2. mailako ikasle hauek izango dituzte:

- 2024. urtean Bigarren Hezkuntzara iritsi berriak diren ikasleak, edo 2023. urtean HIPIaren laguntza lehenengoz jaso dutenak.
- Taldea osatzeko gutxienez 6 ikasle beharko dira.
- Taldeko ikasleen altak eta bajak kasuan kasuko Lurralde Berrikuntzako arduradunari eta Ikastetxeen eta Plangintzaren arduradunari jakinaraziko zaizkie.

Ikaslearentzat programaren iraupena 24 hilabetekoa izango da baina 36 hilabete arte luza daiteke, beti ere, Programako Batzordeak eta Eusle irakasleak, proba bat egin ondoren, horrela erabakitzen badute, beti ere ezarritako irizpideen arabera:

- Proban lortutako maila.
- Jatorrizko hizkuntzarekiko hizkuntza-distantzia.
- Hizkuntza-errefortzuan sartzeko data (HIPI/Eusle): urte hasieran, ikasturte hasieran edo ikasturte amaieran.
- Eusle DBH 3. mailan dauden ikasleak eta 24 hilabeteko errefortzua ez badute jaso, posible izango da EUSLE programan luzapena izatea, ikastetxeko antolaketa ahalbidetzen badu eta programako batzordeak ikaslearen ibilbide akademikorako egokitzat baloratzen badu.



Programa hasitakoan ezin izango da talde berririk sortu, eta ohiko alditik kanpo matrikulatuta dauden ikasleei hizkuntza errefortzuko irakasleen laguntza emango zaie (Eusle programan ez badute sartzerik). Ikasle horiek datorren ikasturtean sartu ahalko dira programan.

Programan sartuko diren ikasleen zerrenda eta programak eskatzen dituen beste datu batzuk Lurralde Berrikuntzako arduradunari eta kasuan kasuko Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxean eta Plangintzaren arduradunari helaraziko zaizkie. Zerrenda hori baliozkotu eta programan zehaztutako dokumentazioa entregatu ondoren, EUSLE irakaslea esleituko zaie.

Eusle programa duten **ikastetxeek** honako **konpromisoak** beteko dituzte:

- **Talde dinamizatzailerik bat eratzea.** Inplikaturako irakasleek, Eusle irakasleek, irakasle orientatzaileak eta zuzendaritza-taldeko kide batek osatuko dute lantaldea. Talde horrek programaren eta ikasleen jarraipena egingo du, batzorde pedagogikoari informazioa emango dio eta hobetzeko proposamenak egingo ditu eta hartutako erabakiak idatziz jasoko ditu.
- **Eusle irakasleak aukeratzea** ikastetxean behin betikoa edo egonkortasuna dutenen artean hizkuntzen irakaskuntzan esperientzia badute edo gaiarekiko jarrera baikorra dutenak. Bere jardunaldi osoa Eusle gelako ikasleen arreta eta premietara bideratzera eta bere ikasleen erreferentziarako geletan euskarazko arloetan laguntza ematera bideratuko da.
- **Programarako berariaz prestatutako material didaktikoa** eta programari lotutako metodologia **erabiltzea.**
- Eusleren ildoan **aldaketa metodologikoa sustatzea erreferentzia-gelan.** Hizkuntza eta edukiak modu integratuan tratatzeko metodologiak aplikatuko dira.
- **Berritzegune Nagusiko aholkulariarekin elkarlanean aritzea** ikastetxeko dokumentuak partekatuz (JPPak, programazioak, ikas-egoerak, egokitutako materialak...), Eusle ikasleen arrakasta bermatze aldera.
- Eusle programan parte hartze duten **ikasleen ebaluazioaren prozesua elkarlanean** egitea irakasle tutoreen eta Eusle irakasleen artean.
- **Eusle gelari espazio egokia esleitzea**, tamainari, irisgarritasunari, altzariei eta beharrezko baliabide material eta teknologikoei dagokienez.
- Ikastetxearen Urteko Planean **ekintza** zehatzak sartzea, **familiekin lan** egiteko.
- **Ikuskaritzarekin** parte hartzea programaren ebaluazioan eta laguntza-zerbitzuekin programak eskatzen dituen alderdietan.

Eusle ikastetxeari arestian ezarritako baldintzak betetzen dituen programa-kontratua denez, horietako bat edo gehiago arrazoirik gabe ez betetzeak programatik kanpo uztea ekar dezake.

Hezkuntza Sailak, Berritzegune Nagusiaren bidez, ikastetxeei aholkularitza eta behar dituzten material didaktikoak emango dizkie programa hau garatzeko. Aldi berean, behar den formazioa antolatuko du.



2024-25 ikasturtean, honako jardun hauei emango zaie lehentasuna:

- Talde dinamizatzaileari dagokionez: Funtzioen banaketa ezartzea eta ikasleen jarraipena eta ebaluazio sistema egiteko egutegia eta ordutegia zehaztea, bai eta ikasleen alfabetatze prozesurako laguntzak antolatzea ere.
- Eusle programa duten eta, gainera, HIPI irakasleak dituzten ikastetxeetan, irakasle horien arteko koordinazioa bultzatzea, ikasle sartu berriei ematen zaien hezkuntza-erantzuna koherentea izan dadin.
- Harrera-planak eguneratu eta eraginkortasunez ezartzea.
- Hiru hilean behin proiektu bat behintzat lantzea Eusle ikasleen erreferentzia-geletan, programan ezarritako oinarri metodologikoekin bat etorriz.
- Erreferentzia gelan landutako arloak eta Eusle gelaren arteko zubiak eraikitzea.

[↑Aurkibidea](#)

2. Hizkuntza indartzeko irakasleak (HIPI)

[Hizkuntza indartzeko irakasleek eginkizun](#) hauek izango dituzte:

- Hizkuntza-indargarriaren programazioa egitea, ikasleen beharretara egokituta.
- Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.
- Tutoreari laguntzea ikasle horientzako Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP) egiteko.
- Material didaktikoak ikuspegi egokiaz aztertzea, antolatzea eta prestatzea, A2 maila lortzeko helburuaz.
- Zuzeneko esku hartzea taldeka egin beharko da (ez banaka).
- Ikasle bakoitzari gutxienez 5 eskola-saio astean ematea.
- Hizkuntza indartzeko irakasle berriek Berritzegune Nagusiko formazioetan parte hartzea.

Hizkuntza indartzeko irakasleek eginkizun hauek **partekatuko** dituzte ikasle etorri berrien **tutoreekin**:

- Gainerako irakasleekin koordinazio-prozesu bat ezartzea, JPP egiteko eta plana abiaraztean bere jarraipena egiteko.
- Ikasle etorri berriei harrera eta inklusioa erraztea, egindako Harrera Planaren arabera, ongizate emozionala zainduz eta sozializazioaren prozesua hurbiletik behatuz.
- Ikasle horiekin berriazko esku hartzea izatea, curriculum gaiztatuak zuzentzeko eta ikastetxeko jardueretan aktiboki parte hartzeko behar den hizkuntza-gaitasuna lor dezaten.
- Ikasleen aurrerapenak eta ikaskuntzak ebaluatzen parte hartzea.
- Material didaktikoaren eta edukien egokitzapen metodologikoak, antolaketakoak eta beharrezkoak direnak egitea.



Eskola-komunitateko kide diren aldetik, hizkuntza indartzeko irakasleek honako eginkizun hauek izango dituzte **gainerako irakasleekin batera**:

- Hizkuntzak irakasteko jarduerak planifikatzea.
- Hezkuntza-prozesuan kulturartekotasun ikuspegia integratzeko jarduerak diseinatzea.
- Harrera-planak eguneratzea eta eraginkortasunez ezartzea.

[↑Aurkibidea](#)

1.2.4. 2030 Jasangarritasunerako Estrategia

[Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak \(GJH\)](#) barne biltzen dituen Garapen Jasangarriko 2030 Agenda berriarekin bat etorritik, eta [2030erako Euskadiko Jasangarritasunareko hezkuntzako Estrategia](#) garatzen jarraitzeko, ikastetxeak modu sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatuko ditu.

Alde horretatik, ikastetxeak jasangarritasunerako konpromisoak zehaztuko ditu, Curriculum garapenari dagokionez, bai eta kudeaketa eta partaidetza komunitarioko praktikei dagokienez. Zehaztopen horiek ikastetxearen dokumentuetan jasoko dira (IHP, AJA, IUP...).

Hezkuntza-komunitateetan jasangarritasunaren kultura txertatzeak arazo ekologiko eta sozialen aurrean ikasleengan beharrezko konpetentziak eta konpromisoa garatzea dakar. Garrantzitsua da ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen **parte-hartze aktiboa sustatzea**, tokiko eta mundu mailako erronkei aurre egiteko **ekintza eraldatzaileak** identifikatu eta gauzatu ahal izateko. Hau lortzeko, diziplinartekotasuna eta curriculumaren alderdi desberdinen arteko lotura indartu beharko dira, **krisi ekologikoarekin, justizia sozialarekin, ekitatearekin eta herritartasun globalarekin** lotutako edukiak curriculumaren barruan integratuz.

Horrela, ikastetxeetan jasangarritasun kulturaren hedapena eta parte-hartzeko eta lankidetzarako aukerak sustatzea ezinbestekoa bilakatzen da. **Jasangarritasunaren aldeko estrategiak definitzeak** eta hedatzeak hezkuntza-komunitateak ekimen eraldatzaileetan modu aktiboan inplikatzeko aukera ematen du, egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun egokia emateko prestatuz.

Testuinguru horretan, hezkuntza-ingurune jasangarriagoa eraikitzen lagunduko duten aurrediagnotikoa, gogoeta... eta ekintza praktiko ugari bideratu daitezke:

- **Eskolako Agenda 2030a** ezartzea: jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea, bereziki ikasleengan, arazo ekologiko eta sozialetan esku hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoak garatuz, tokiko eta munduko eremuan, eta ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak egitea, bai banakakoak, bai kolektiboak, orain eta etorkizuneko.
- Larrialdi klimatikoari egokitzea ikasleekin **lanketa kurrikularra** eginez eta klimaren aldeko ekimenak aurrera eramatea. Horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak egin daitezke (bizikleta edo garraio publikoa erabiltzea, ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko neurriak ezartzea, eta abar.), ondasun komunen kudeaketa hobetzea (energia kontsumoa murriztea, hezkuntza-komunitatearen artean energia arduraz erabiltzea, energia



berriztagarriko sistemak...), ura, materialak (kontsumoa murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea...), eta abar.

- Ikasleen **parte-hartze aktiboa** sustatzea jasangarritasunarekin zerikusia duten **komunitatearentzako zerbitzu-proiektuekin**.
- Tokiko komunitatearekin lankidetzan eta ikuspegi ekosozialarekin, **naturguneak, eskola-patioak eta beste hamaika espazio erabili curriculumara berrizteko**.
- **Eskolak dituen jasangarritasun konpromisotik** abiatuta irizpide ekosozialak txertatzea dokumentu ofizial batean, kudeaketatik haratago. Dokumentu horretan eskola komunitatearen kide guztiek parte hartuko dute.

[↑Aurkibidea](#)

1.2.5 Nazioartekotzea

Egungo curriculumak XXI. mendeko ikasleek gero eta globalizatuagoa den mundu batean bizitzeko oinarriko konpetentziak garatzearen garrantzia azpimarratzen du. Konpetentzia horien artean daude enpatia, autonomia, erresilientzia, espiritu kooperatibo eta kritikoa, konpromiso soziala eta kultura arteko ezagutza eta errespetua. Elkarri lotutako ingurune global batean, trebetasun horiek funtsezkoak dira etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta gizarteari ekarpen positiboa egiteko gai diren herritarrak prestatzeko.

Konpetentzia horien garapena sustatzeko, funtsezkoa da ikasleei atzerrian ikasteko eta beste herrialde batzuetako ikasleekin lankidetzan aritzeko ahalik eta aukera gehien eskaintzea. Nazioarteko esperientzia horrek atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeaz gain, ikasteko motibazioa eta beste kultura batzuekiko errespetua ere sustatzen ditu. Gainera, nazioartekotzeak ikasleen hazkunde pertsonalari laguntzen dio, moldagarritasuna eta kulturen arteko ulermena bezalako trebetasunak garatuz.

Ikasturte honetan, Hezkuntza Sailburuordetzak nazioarteko programei buruzko informazioa emango die ikastetxeei. Berariazko formakuntza eta aholkularitza emango da, programa horiek hezkuntza-proiektuan sartzea errazteko. Programa horien artean [Erasmus+](#) nabarmentzen da, hezkuntza-lankidetzara eta ikasleen eta irakasleen trukea sustatzen duen Europar Batasunaren ekimena.

Atzerrian ikasteko aukerak:

- Truke- eta mugikortasun-programak: Erasmus+ bezalako programetan parte hartzeak aukera ematen die ikasleei atzerrian denboraldi bat igarotzeko, beste herrialde batzuetako hezkuntza-erakundeetan ikasten. Horrek hizkuntza-konpetentzia hobetzeaz gain, irakaskuntza-metodologia eta kultura-testuinguru desberdinetara ere eramaten ditu, haien hezkuntza-esperientzia eta esperientzia pertsonala aberastuz.
- Egonaldi laburrak eta hezkuntza-bidaiak: egonaldi laburrak, ikasketa-bidaiak eta beste herrialde batzuetara bisita kulturalak antolatzea. Esperientzia horiek, truke osoek baino iraupen laburragokoak izan arren, eragin nabarmena dute ikasleen ikuspegi orokorrean eta kulturarteko ulermenean.



- Nazioarteko Udako Programak: Atzerriko udako programetan parte hartzea sustatzea, ikaskuntza akademikoa kultura- eta jolas-jarduerekin konbinatuz, nazioarteko ingurune batean erabateko murgiltzea eskainiz. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzak honako deialdi honetan dituen laguntzak [“Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko plazak, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoz finantzatzeko diren ikastetxetan, DBHko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat”](#).

Beste ikasle batzuekiko lankidetzak:

- eTwinning bidezko diziplinarteko lankidetzak-proiektuak: [eTwinning](#) plataforma bat da, Europako ikastetxeei aukera ematen diena hezkuntza-proiektuetan parte hartzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz. Plataforma horren bidez, ikasleek beste herrialde batzuetako kideekin batera lan egin dezakete proiektu komunetan, talde-lanerako, kulturarteko komunikaziorako eta konpetentzia digitaletarako trebetasunak garatuz.
- Elkarte estrategikoak eta eskolen sareak: Beste herrialde batzuetako ikastetxeekin elkartek ezartzea, baterako proiektuak garatzeko eta jardunbide egokiak partekatzeko. Lankidetzak horiek curriculumeko gai espezifikoetara hel diezaiekete, eta ikasleen eta irakasleen artean ezagutzak eta esperientziak trukatzeko bultzatzea dezakete. Alde horretatik, [Elos Sarea](#) nabarmendu behar da.
- Nazioarteko lehiaketak eta hitzaldiak: Ikasleak nazioarteko lehiaketa, hitzaldi eta mintegietan parte hartzea animatzea. Jarduera horiek plataforma bat eskaintzen dute, ikasleek beren ideiak eta proiektuak aurkez ditzaten, beste herrialde batzuetako kideekin elkarrekin dezaten eta aurkezpen- eta komunikazio-trebetasunak gara ditzaten.

Prestakuntza eta aholkularitza:

- Irakasleen trebakuntza: Irakasleei prestakuntza espezifiko ematea, nazioarteko programak curriculumean eraginkortasunez txertatu ahal izan ditzaten eta beste herrialde batzuekin lankidetzak-proiektuak kudeatu ahal izan ditzaten. Prestakuntza horrek barne hartuko ditu IKT tresnak, kulturarteko irakaskuntzako metodologiak eta nazioarteko proiektuen kudeaketa.
- Erasmus+ programan parte hartzeko aholkularitza: Ikastetxeei etengabeko laguntza eta aholkularitza eskaintzea Erasmus+ eta nazioarteko beste programa batzuk behar bezala inplementatzeko. Horren barruan sartzen da funtsak eskatzeko moduari buruzko orientazioa, trukeen logistika kudeaketa eta esperientzia horien hezkuntza-inpaktua maximizatzea.
- Ikastetxean nazioartekotzea sustatzea: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) eta Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) nazioartekotzea sustatzeko ekintza zehatzak sartzea. Horren barruan sar daiteke nazioartekotzeaz, sentsibilizazio-jardunaldiak antolatzeaz eta nazioarteko dimentsioa ikasgai guztien curriculumean txertatzeaz arduratuko den talde bat sortzea.

Eragin positiboa irakasleengan:



Nazioartekotzeak, ikasleei ez ezik, irakasleei ere egiten die mesede. Job shadowing eta truke-programen bidez, irakasleek aukera dute beren aukera profesionalak zabaltzeko eta gaitasun berriak eskuratzeko. Programa horiek aukera ematen diete irakasleei beste hezkuntza-erakunde batzuk bisitatzeko, praktika pedagogikoak behatzeko eta nazioarteko testuinguru batean etengabeko prestakuntzako esperientzietan parte hartzeko.

- Job Shadowing: Job shadowing-ak aukera ematen die irakasleei beste herrialde batzuetako lankideengandik behatzeko eta ikasteko. Esperientzia honek irakaskuntzako eta hezkuntza-kudeaketako hainbat metodologiaren ikuspegi zuzena eskaintzen du, jardunbide egokiak ikastetxeetara transferitzea erraztuz.
- Nazioarteko trukeak eta egonaldiak: Atzerriko truke eta egonaldietan parte hartzeak beste hezkuntza-sistema batzuetan murgiltzea dakar irakasleentzat. Horrek irakaslan aberasteaz gain, pentsamolde irekia eta malgua sustatzen du, hezkuntza globalizatuaren erronkei aurre egiteko funtsezkoa.
- Nazioarteko lankidetzaproiektuak: Erasmus+ eta eTwinning programen bidez, irakasleek diziplinarteko proiektuetan parte har dezakete beste herrialde batzuetako lankideekin. Proiektu horiek curriculum aberasteaz gain, irakasleen kulturarteko eta lankidetzako gaitasunak indartzen dituzte.

Irakasleek nazioarteko programa horietan parte hartzeak ere eragin biderkatzailea du beren ikastetxeetan. Eskuratutako ezagutzak eta esperientziak gainerako klustroarekin partekatzen dira, eta berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako kultura sustatzen da. Gainera, truke horiek nazioarteko sare profesionalen sorrera sustatzen dute, eta horrek etorkizuneko lankidetzak eta baterako proiektuen garapena errazten ditu.

Ikastetxeen nazioartekotzeak ikasleen ikaskuntza-esperientzia aberasteaz gain, irakaskuntza-jarduna aberasten du eta hezkuntza-komunitate osoa indartzen du. Gainera, herritartasun globala, konprometitua eta arduratsua garatzen laguntzen du. Aukera horiek sustatzea funtsezkoa da funtsezko gaitasunak garatzeko eta Euskadin kalitatezko hezkuntza sustatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

1.3. ESKOLA INKLUSIBOA ETA ONGIZATEA.

1.3.1. Bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa, zaintza emozionala barne

Bizikidetzaren positiboa, aniztasunari erantzutea eta ongizate emozionala eskola inklusiboaren esparruan funtsezko elementuak dira gure ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikorako.

Eskola inklusiboak beren aurrerapen akademiko eta pertsonalerako eta beren autonomia garatzeko behar dituzten hezkuntza-aukerak eskaini behar dizkie ikasle guztiei. Kontua da testuinguru bat eraikitzea, pertsonen egokitzuz, desberdintasunak kontuan hartuko dituen eta talde eta ikasle ahulenek behar dituzten laguntza eta neurriak bermatuko dituen.

Eskola inklusiboak espazio sozial demokratiko eta parte-hartzaileak eraiki behar ditu, sozialki aberastuak, ikaskuntza erraztuko dutenak eta bizikidetzarako, ikasteko, ulertzeko, komunikatzeko, harremanak izateko, jarduteko eta beste taldeekiko proiektatzeko interesa azpimarratuko dutenak.



Horretarako, funtsezkoa da ikasleen arteko harremani "begiratzea". Ikasleen egoera sozio-emozionala eta akademikoa eta berdinen taldean gertatzen dena ezagututa, eskolak arrisku faktoreei erantzun behar die eta ikasleen bizi uneak babestu.

[Bizikasi ekimenaren](#) bidez, ikastetxea ikaskuntza eta garapen pertsonal eta sozialerako gune bihurtu nahi dugu, eskola-komunitateko kide guztiek denboran zehar partekatutako ezagutza eta konpromisoaren bidez elkarbizitzarako esparru positibo eta balizko jazarpen-egoeren aurrean zero tolerantziako esparru seguru bihur dezan.

Horretarako, funtsezkoa da bizikidetzan hezteak; giro ona sortzea, ingurune seguruak eta giro atseginak sortuz, non guztiek parte hartuko duten eta beren konpetentzia guztiak ahalik eta gehien garatuz ikas dezaketen, eta, hala, egiturazko indarkeria baztertzea.

Gainera, bizikidetzarako hezi behar dugu, gaitasun emozionala landuz, ikaskuntza dialogikoa sustatuz, zainketaren pedagogia, tratu ona sustatuz eta autoestimua, entzute aktiboa, asertibitatea, erresilientzia eta enpatia garatuz.

Halaber, adin txikikoek denbora asko ematen dute ikastetxean, non helburu nagusia irakaskuntza eta ikaskuntza errazteko inguruneen bidez garapen integrala bermatzea baita.

Horregatik, Bizikasi Ekimenaren esparruan, gelak ingurune ezin hobea dira buru-osasuna sustatzeko, jokabide suizida prebenitzeko estrategiak ikasteko: arrisku-faktoreez jabetzea, ohiko alarma-seinaleak antzematen jakitea eta laguntza bilatzea.

[↑Aurkibidea](#)

a) [Bizikasi ekimena](#)

2017-18 ikasturtean hasi zenetik, [Bizikasi](#) hainbat esparrutan ezarri da, eta arian-arian, ikastetxearen zereginetan oinarritzen joan da, eskola-jazarpenari ikuspegi sistemiko eta integral batetik erantzuteko, betiere, bizikidetzak positiboa hobetzera eta ikasleengan konpetentzia prosozialak gara daitezkeen bultzatzera bideratuta. Ekimena, besteak beste, bideratuta dago jazarpen-kasu posibleak goiz detektatuz prebenitzera eta, beharrezkoa izanez gero, harreman kaltetuak lehengoratzera.

Ikastetxeetan sor daitezkeen eskola-jazarpeneko egoerak kudeatzen laguntzeko, [EAE-ko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloa](#) ezarri da. Protokolo horretan zehazten da ikastetxeek zer urrats egin behar dituzten eskola-jazarpeneko egoera bat hautematen denean edo horren berri izaten denean.

Eskola-elkarbizitza positiboa sustatzeko ikastetxe bakoitzak bultzatu behar dituen jardueren barruan kokatzen da protokoloa. Eta esku-hartze eskariren bat egon den kasu guztietan ikastetxeek ahalik eta azkarren, eraginkorren eta seguruen jardungo dutela bermatzea da haren helburua.

Era berean, horrelako egoeratan eman beharreko urratsei buruzko orientabide argiak ematen ditu protokoloak. Oinarritzko jardueren proposamen bat da, eta ikastetxe bakoitzak bere inguruabar berezien arabera eta ezarritako elkarbizitza-arauen barruan, zabaldu eta sakondu ahal izango ditu.

Egoera hauek modu eraginkor baten kudeatzeko Hezkuntza Sailak, ikastetxeari aholkularitza eta behar dituen material didaktikoak emango dizkio Bizikasi ekimena garatzeko. Ekimen hau, hain zuzen,



lehentasunezko lan-helburutzat hartzen da **Ikastetxeko Bizikidetzaren Planaren** barruan. Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratu du prozesu osoa, eta Berritzegune Nagusiarekin esku hartzeko protokoloari buruzko aholkuak eta orientabideak emango dizkio ikastetxeari.

2024-25 ikasturtean, honako jardun hauei emango zaie **lehentasuna**:

- **BAT taldea indartzea**, erreferentziazko egitura baita ikastetxean gertatzen diren eskola-jazarpeneko kasuak ebazteko prozesua koordinatzeko eta ekimena garatzean egiten diren esku-hartzeetarako. Era berean, ikasleriaren ondoeza emozionala bideratzeko baliabideak kudeatuko duen taldea izango da, batez ere, jokabide suizida adierazten dutenean. Hori lortzeko, bi ardatz hauetan jardungo da:

Lehenengo ardatza: BAT taldearen egitura eta funtzionamendua finkatzea

- BAT taldea, gutxienez, honako pertsona hauek osatuko dute: zuzendariak edo ikasketa buruak, irakasle orientatzaileak-kontsultoreak, hezkidetzaren arduradunak eta ikasleen ongizate eta babeserako koordinatzaileak.
- BAT taldearen koordinatzailea ikasleen Ongizaterako eta Babeserako koordinatzailea izatea lehenesten da [2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena](#) legean. arautzen dira figura horren inguruko zehaztapen guztik, besteak beste figura horren funtzioak (135. artikuluan).
- Ongizate eta babeserako koordinatzailea irakasle orientatzailea izatea erabakitzen bada, ez du bere espezialitateari lotutako eskola-saiorik emango.
- Ikastetxeko ordutegian asteko saio bat, gutxienez, finkatuko da taldekideak koordinatzeko.
- Eskola jazarpen eta jokabide suizidaren protokoloen eranskinak erreferentziako ikuskariari bidaliko zaizkio. Era berean, Laguntza Zerbitzuen kasuan, helbide elektronikoko honetara bidaliko da: bnbizikidetzabizikasi@berritzeguneak.eus

Bigarren ardatza: BAT taldearen lanean sakontzea dagokion ebazpenean ([Hezkuntza sailburuordearena, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan eskola jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloa eta hezkuntza eremuan jokabide suizidaren aurrean esku hartzeko eta posbentzioa egiteko protokoloa arautzen dituen](#)) zehazten dira eginkizunetatik abiatuta (ikus [Bertsio nabigarria](#)):

- BAT taldearen zereginen aurkezpena egitea hezkuntza komunitatean. Ikasle, irakasle, pertsonal ez-irakaslea eta familiei. **BAT ikastetxea gara.**
- Etengabeko formazio-prozesuaren barruan, Bizikidetzaren ekimenetik eskaintzen diren prestakuntza-proposamenetan parte hartzea. Parte hartze hori ikastetxe guztietarako nahitaezkoa da.
- Hezkuntzako pertsonal ez-irakasleari eta familiei zuzendutako formazioa bere gain hartzea.



- Jokabide suizidaren inguruan sentsibilizazioa, ezagutza eta kontzientziazioan ekiteko Bizikasi webgunean eskuragarri dauden materialen zabalkundea.
- 2024-25 IUPean sartzea Bizikasi ekimena garatzearekin lotutako helburuak eta jarduerak, Bizikidetza Planean programatuak.
- **Tutoretza Planean** garatzea eskola-jazarpena prebenitzeko eta bizikidetza- ziber-bizikidetza positiboak eraikitzeke sortutako curriculum-materialak. Baita norberaren ongizate emozionala lantzeko jarduerak ere. Horiek Bizikasiren webgunean daude eskuragarri.

[↑Aurkibidea](#)

[b\) Hezkuntza eremuan jokabide suizida suizidioa prebenitzeko, esku-hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategia](#)

Adingabeek beren denboraren zati handi bat ikastetxean ematen dute, espazio eta testuinguru hori osasun mentaleko arazoak edota jokabide suizidak detektatzeko leku aproposa bihurtuz. Horri esker, ikasgelak ingurune ezin hobea dira jokabide suizidarekin zerikusia duten faktoreak identifikatzeko (arrisku-faktoreak, babes-faktoreak eta alarma-seinaleak) eta jokabide suizidak hautematea eta saihestea ahalbidetzen duten funtsezko trebetasunak eskuratzeko.

[Osasun Sailak egindako Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren \(2019\)](#) esparruan, Hezkuntza formalean lan egiteko helburu eta neurri espezifikoak ezarrita daude. Prebentzio-estrategiaren 22. neurriak honela dio: *ikastetxeetan identifikatutako suizidio-arriskuko kasuen aurrean jarduketa protokolizatzea.*

2022ko urrian argitaratutako [Hezkuntza Eremuan Jokabide Suizidaren Prebentzioa, Esku-hartzea eta Posbentzioa egiteko Estrategiaren](#) kontzeptu esparrua OMEren, UNESCOren eta Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren gomendioetan oinarritzen da. Gomendio horiek osasun mentala sustatzen duten eskolak sustatzearen alde daude, eta honako hezkuntza- printzipio hauetan oinarritzen da:

- inklusioa
- ikasle gisa zentzua sortzea eta itxaropena sustatzea
- ongizate pertsonala
- segurtasuna, konexioa eta komunikazioa: kalitatezko interakzioak

Estrategia horren zati bat da [Hezkuntza eremuan jokabide suizidaren aurrean esku hartzeko eta posbentzioa egiteko protokoloa](#), jokabide suizida duten ikasleak hautematen edo horien berri izaten den kasuetan ikastetxeek jarraitu beharreko urratsak zehazten baititu.

[↑Aurkibidea](#)

1.3.2. Hezkidetza: berdintasunaren eta tratu onaren bidean

[Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen](#) testu bateginarekin bat etorritik (aurrerantzean, **Berdintasunerako Legea**), ikastetxeak pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredu batean lan egin behar du, sexuaren arabera estereotipoak eta rola alde batera utzita, diskriminazio mota oro baztertuta eta generoaren arabera bereizi gabeko



orientazio akademikoa eta profesionala bermatuta. Eredu horrek oinarri hartu behar du, baita ere, genero-indarkeriaren prebentzioa, hau da, sexismoan sustraituta dagoen edozein motatako indarkeriaren prebentzioa.

Gainera, [EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiak](#) 2023 urterako 11 helburu nagusi ezartzen ditu, eta ezartzen duen 7. helburua honako hau da:

“Hezkidetza: Euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe guztiek beren egoera diagnostikoari erantzun eraginkorra emango dion hezkidetza-plan propioa izan dezaten lortzea”.

Hezkuntza Sailaren [“Euskal hezkuntza-sistemarako, berdintasunaren eta tratu onaren bidean II. hezkidetza-planaren”](#) planaren hedapenari lotuta dago helburua. Hezkidetza-eskola lortzeko, beharrezkoa da ikastetxeetan hezkidetza-plana ezartzea, hezkidetza sustatu, koordinatu eta jarraipena egiteko egitura egonkorrak sortzea, irakasleak hezkidetzan prestatzea, ikasgeletan hezkidetza-materialak eskuragarri izatea eta familien inplikazioa.

Plan horretan **ikastetxeek garatu beharreko hiru helburu estrategiko** ezartzen dira:

1. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonez hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integrean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan.
2. Ikastetxeak beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezan sustatzea.
3. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

Une honetan, [“EAEko hezkuntza-sistemarako II hezkidetza plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean”](#) ebaluazio-prozesu batean dago, baina beharrezkotzat jotzen da aipatutako helburu estrategikoak eta planean garatzen diren hezkidetzaren zortzi zutabeak garatzen jarraitzea.

Beraz, bide horretan jarraitu ahal izateko, aipatu planak honako **ekintza** hauek garatzeko beharra planteatzen du:

- Ikastetxeko egitura egonkorrak sortzea.
- Hezkidetza arduraduna izendatzea eta BAT taldekidea izatea.
- Komunitate hezitzailearen formazioa.
- Ikastetxeko egoeraren diagnostikoari erantzun eraginkorra emango dion hezkidetza-plana garatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzea, indarrean dagoen erakunde arteko hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
- Ebaluazio sistematiko eta zorrotza egitea, eta planean jasotako neurriak ezartzeari eta horien eraginari buruzko datuak biltzea.

Horretarako, ikastetxeak berdintasunarekin dituen konpromisoak zehaztuko ditu hezkuntza eta kultur eskaintzan eta hezkuntza praktikan. Horrek esan nahi du hezkuntza-antolamenduko dokumentuetan



(IHP, AJA, Bizikidetzeta Plana...) berdintasuna eta hezkidetzeta sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko helburuak eta jarduerak sartuko direla.

Hori lortzeko, ikastetxeak hezkidetzeta-plana ([hezkidetzeta-plana egiteko gida](#)) izan behar du, Berdintasun Legeak, 2030 Estrategiak eta [II. Hezkidetzeta Planarekin](#) ezarritakoarekin bat datorrena.

Ikastetxeko Hezkidetzeta-planak honako hauek jasoko ditu:

- Hezkidetzeta tutoretzako edo orientazioko ekintza-planean txertatzea.
- Hezkidetzaren zortzi zutabeen garapena (irakaskuntza-prestakuntza eta haien ezarpena ikasgelan).
- Hezkidetzaren ikuspegia, ikastetxean erabiltzen diren era guztietako hezkuntza- eta curriculum-materialak aukeratzeko orduan (esparru formala eta ez-formala).
- Gelako programazioen, unitate didaktikoen, proiektuen eta/edo ikaskuntza-egoeren diseinuan aplikatuko den hezkidetzeta-ikuspegia.
- Hezkuntza komunitateak hezkidetzarekin eta genero-berdintasunarekin lotutako ekintzetan parte hartzea.

Gainera, 2024-2025 ikasturtean eta hurrengoetan, ikastetxeak jarduketara hauek egingo ditu:

- Klaustroan hezkidetzako arduradun bat izendatuta izatea, pertsona hori BAT taldean (Bizikasi) eta Eskola Kontseiluan hezkidetzako arduraduna izango dela bermatu.
- Zuzendaritza-taldeak ahalbidetuko du hezkidetzako arduradunak eraginguneetako mintegietan edo profesional horientzat antolatzen diren koordinazio- edo prestakuntza-saioretan parte hartzea.
- Hezkidetzeta arduradun berriek, Berritzegune Nagusitik antolatuko den prestakuntza espezifikoan parte hartuko dute: Hezkidetzeta I modulua (online).
- Ikastetxeko hezkidetzeta-plana ezartzea, helburuak ikastetxearen urteko planean islatuz, eta urteko memorian islatuko den ebaluazioa egitea.
- Tutoretza eta Orientazio Planetan genero-ikuspegia txertatzea, hezkidetzaren oinarrietan oinarrituta eta hezkidetzako zortzi zutabeak kontuan hartuta.
- Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza eta garapena genero-ikuspegitik egin dadin sustatzea.

Bestalde, Hezkuntza Sailak konpromiso batzuk hartu ditu 2024-25 ikasturterako:

- II. Hezkidetzeta Planean ezarritako helburuak garatzeko materialak eskuragarri jarri: [Hezkidetzagunea](#).
- Eraginguneetan Hezkidetzeta-mintegiak eta beste koordinazio-foro batzuk antolatzea ikastetxeentzat, Hezkidetzeta-plana garatzeko prestakuntza eta aholkularitza eskainiz.
- [Berdindu](#) prestakuntza eta aholkularitza zerbitzua ematea ikastetxeei sexu eta genero aniztasunaren arloan.



- Emakumeen aurkako indarkeria matxisten aurrean jarduteko jarraibideak zabaltzeko materialak eskuragarri jartzea

[↑Aurkibidea](#)

[a\) Indarkeria matxistaren biktima diren neska, nerabe eta emakumeei laguntzeko ikastetxeetarako jarraibideak](#)

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Gizonek emakumeen aurka emakume izateagatik duten indarkeria da.

Jarraibide horiek emakumeen aurkako indarkeria matxistatzen hartzen dituzte emakumeen aurka egiten diren indarkeria guztiak, neska eta nerabeak eta emakume transexualak barne, emakumeak, edo modu neurrigabearen eragiten dietenak, bai esparru publikoan bai pribatuan, baita haurren aurka ere, amari kalte egiteko. Indarkeria egitez nahiz ez-egitez erabil daiteke, eta indarkeria erabiltzeko bitartekoak fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak izan daitezke, mehatxuak, larderia eta hertsapenak barne, baldin eta horien ondorioz kalte, sufrimendu edo kalte fisiko, sexual, psikologiko, sozial, sozioekonomiko edo ondarezkoa eragiten bada.

Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neska txikien salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideak urratzea, eta emakumeen edo neska txikien duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta eremu birtuala.

Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzen jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkako, emakumea atsekabetzeko borondatez

Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarrizko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, adingabeekiko sexu-abusuak barne, eta eguneroko bizitzarako irakasgai edo eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldi horietan gai hauekin lotutako alderdi eta edukiak sartuko dira: etxeko eremua eta pertsonen zaintza, harreman pertsonalen funtzionamenduaren ezagutza eta harreman afektibo-sexual osasungarriak eta positiboak sustatzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, emakumeen gorputza erakartzeko elementu edo aberastasun-iturri gisa erabiltzea zalantzan jartzea, jarrera matxisten identifikazioa eta prebentzioa, agerikoenak ez direnak barne, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta dibertsitatearen errespetuan oinarritutako bizikidetzaren ereduak ikastea.

Horregatik guztiagatik, [jarraibide](#) hauek ezarri dira EAEko ikastetxeentzat, indarkeria matxistaren aurrean jardun dezaten.



Lau kasu daude, indarkeria erabiltzen duen agentearen arabera. Hala, ikastetxeetan indarkeria matxistaren egoera hauek hauteman daitezke:

1. Ikasle neska bat indarkeria matxistaren biktima da ikastetxe bereko ikasle gizonaren aldetik.
2. Ikasle neska bat indarkeria matxistaren biktima da ikastetxeko langile baten aldetik.
3. Ikasle neska batek indarkeria matxista jasaten du familiakoren baten edo zentroan lan egiten ez duen beste pertsonaren baten aldetik.
4. Biktima ikastetxeko langile bat edo etxean indarkeria matxista jasaten duen ikasle baten ama da.

Jarraibide hauek duela gutxi berrikusi eta berritu dira, eta ikastetxeei aurkeztu zaizkie. Bertan, gerta daitezkeen egoeretan jarraitu beharreko prozedurak adierazten dira, eta funts publikoekin lagundutako ikastetxe guztiek kontuan hartuko dituzte. Protokoloen eranskinak erreferentziako ikuskariari bidaliko zaizkio. Era berean, Laguntza Zerbitzuen kasuan, helbide elektroniko honetara bidaliko da: bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus.

[↑Aurkibidea](#)

b) Trans ikasleei eta haien familiei laguntzeko protokoloa EAE-ko ikastetxeentzat

Generoa konstruktua kulturala da, gizon eta emakumeei, mutiko eta neskatuei, jaiotzean ezarritako sexuaren arabera rol estereotipatu jakin batzuk esleitzen dizkiena. Konstruktua kultural eta sozial horrek haurtxoak markatzen ditu jaio aurretik ere; eta, beraz, genero-agindu horiei haurtzarotik heldutasunera arte jarraitzea behartuta daude. Agindu horiei jarraitzen ez badiete, desberdinak direla sentituko dute eta portaera ez-normatiboa dutela esango da.

Sexu- eta/edo genero-aniztasuna, adingabeei buruz ari garenean, termino inklusibo eta orokorra da, eta adingabe trans deritzenen errealitate oso ezberdinak biltzen ditu.

Eskolak hezkuntza-testuinguru segurua eta sexu- eta/edo genero-aniztasuneko adingabeekiko, haien familiekiko eta inguruarekiko diskriminaziorik gabekoa sortu eta bideratu behar du. Hau da, laguntzarik onena eman ahal izateko testuingurua.

Eskola inklusiboak erantzun bat eman behar dio errealitate anitz horri, hezkidetza- eta berdintasun-gaietan planteamendu globalak eginez, sexu- eta genero-aniztasuna ezagutzean eta errespetatzean oinarrituta, ikastetxeen politiketan, kulturetan eta praktiketean eragina izan dezaten.

Trantsizio-prozesu guztiak ezberdinak dira eta izango dira; haurraren edo nerabearen erritmoa, premiak eta eskariak errespetatu behar ditugu, baita ikastetxean azal daitezkeen genero-adierazpen guztiak ere.

Trans protokoloa duela gutxi berrikusi eta berritu da, eta ikastetxeei aurkeztu zaie. Bertan, gerta daitezkeen egoeretan jarraitu beharreko prozedurak adierazten dira. Protokoloen eranskinak erreferentziako ikuskariari bidaliko zaizkio. Era berean, Laguntza Zerbitzuen kasuan, helbide elektroniko honetara bidaliko da: bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus

[↑Aurkibidea](#)



c) Hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketan babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan [jarduteko protokoloa](#)

Ikasturtearen hasieran ikastetxeko zuzendariak hezkuntza-komunitate osoak protokoloa ezagutzen duela bermatzeko behar diren neurriak ezarriko ditu. Gainera, ikastetxeak kontuan izan beharko du [2/2024 Otsailaren 15eko Haur eta Nerabeen LEGEA](#)ren 144. artikuluan ezarritakoa (Ikastetxeen jarduketak):

“1.– Eusko Jaurlaritzak, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, pertsona adingabeen kontra gauzatutako indarkeria goiz detektatzeko behar diren neurriak hartuko ditu, eta, bereziki, hezitzaileak sensibilizatzeko eta etengabe prestatzeko programak garatuko ditu, diagnostiko goiztiarra eta egoera horiek amaitzeko jarduketak hobetzeko.

2.– Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxe guztiek indarkeria-egoerak komunikatzeko euskal administrazio publikoek araututako eta zentroan aplikatutako prozedurei buruzko informazio guztia emango diete pertsona adingabeei, baita eremu horretako arduradunei buruzkoa eta, bereziki, lege honen 135. artikuluan araututako ikasleen ongizate eta babeserako koordinatzaileari buruzkoa ere.

3.– Modu berean, hedabide elektronikoei buruzko informazioa emango dute, hala nola Eusko Jaurlaritzak pertsona adingabeen eskura jarritako orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzua, telefonikoa nahiz telematikoa.

4.– Ikastetxe horiek etengabe eguneratuta edukiko dute informazio hori, erraz ikusteko moduko leku irisgarrian, eta behar diren neurriak hartuko dituzte pertsona adingabeek informazio hori libreki edozein unetan kontsultatzeko aukera izan dezaten, komunikazio-prozedura horietara eta dauden laguntza-ildoetara sarbidea izan dezaten.

5.– Haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-egoerak detektatzen badira, berdin indarkeria ikasleek zein helduek egin badute, ikastetxe guztiek haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko sektoreko jarduketa-protokoloa aplikatu beharko dute, hezkuntza-eremurako berariazkoa, lege honen 142. artikuluan aurreikusitakoa. Horretarako, ikasleen ongizate eta babeserako koordinatzailearen laguntza eta esku-hartzea izango dute.

6.– Zehazki, lege honen 18. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, arduradun horrek eskumena duten agintariei komunikatzekoak diren kasuak koordinatu beharko ditu, eta betebeharrak horren betetze-maila monitorizatzeko sistema bat ezarri beharko du.

7.– Indarkeriaren biktima diren pertsona adingabeek lehentasuna izango dute Euskal Hezkuntza Sistemari txertatutako ikastetxeetan sartzeko, baita ikasturte barruan ere, ikastetxez aldatu behar badira. Nolanahi ere, beharrezkoak izan daitezkeen berariazko laguntzak eskuratzen dituztela bermatuko da, baita ikasturtean zehar ikastetxe batean sartzen badira ere.

8.– Eusko Jaurlaritzak, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, Haur eta Nerabeei buruzko Informaziorako Euskal Sistemari aditzera emango dio, zeina lege honen 308. artikuluan jasotzen baita, zer datu dagoen eskuragarri eskola-eremuan detektatutako indarkeria-egoerei buruz.”

Ikastetxean mota horretako edozein egoera gertatzen bada, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio.

Halaber, kasu horietan, irakasle ez diren langileen (jantokiko zaintzaileak, laguntzaileak, eskolaz kanpoko jardueren monitoreak, etab.) esku-hartze koordinatua sustatu beharko da.



Ikasturtean zehar, Hezkuntza Ikuskaritzak eskola-zuzendaritzei zuzendutako bilkura bat antolatuko du, protokoloa aztertzeko eta irakasleek arlo horretan duten inplikazioa zehazteko.

Alde horretatik, aipatutako 2/2004 Legeaz gain, kontuan hartu beharko dira:

- [Euskadiko haur eta nerabeen abusu eta sexu-esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak, Arartekoaren maiatzaren 18ko 2/2021 Gomendio Orokorren](#) ondoriozkoak
- [Indarkeria matxistaren biktima diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak](#)
- [8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik erabat babestekoa, 18. artikulua](#), hain zuzen ere

[↑Aurkibidea](#)

1.3.3. Hezkuntza-orientazioa

EAEan, maiatzaren 30eko [77/2023 Dekretuak](#), Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak, eta maiatzaren 30eko [76/2023 Dekretuak](#), Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta EAEan ezartzekoak, oro har, 19. artikuluan eta 25. artikuluan jasotzen dituzte, hurrenez hurren, hezkuntza orientazioaren helburuak, horiek gauzatzeko ardura duten eragileak eta orientazio prozesuak zer jarduketa barne hartzen dituen.

Dekretu horiek hezkuntza-orientazioa definitzen dute. Esparru horretan, Hezkuntza-Orientazioak honako oinarri nagusiak ditu: orientazio akademiko eta profesionala, bizikidetzaren positiboaren garapena eta aniztasunari eta hezkuntza-inklusioari arreta ematea.

Orientazioaren eremuari behar duen garrantzia eta lekua eman nahian [EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ORIENTAZIO-ESTRATEGIA](#) argitaratu da 2023-2026 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren, Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren esparruan. Estrategia honen esparruan lau helburu estrategiko formulatzen dira:

1. EAEko ikastetxe guztietan irakasle orientatzaileek egiten duten lana indartzea eta bateratzea eta lan horri koherentzia ematea.
2. Orientaziorako esku-hartzearen inpaktua handitzea eta, horretarako, ikaslea erdigunean kokatzea, hezkuntzako profesionalekin batera elkarlanean.
3. Ikasle guztien ahalik eta garapen handiena ziurtatzea, haien ezaugarriak eta testuinguru pertsonala kontuan izanik.
4. Hezkuntza-sistema aldaketa-motor gisa bermatzea, ibilbide akademiko eta profesionalak aukera daitezkeen inolako genero-arrakalarik gabe eta beste edozein motatako edo baldintzetako diskriminaziorik gabe

Helburu estrategiko hauei garatzeko Hezkuntza Sailak ondoko jarduketa-ildoak aurrera eramango ditu:

- Aholkularitzarako baliabideak biltzea eta prestatzea.
- Irakasle-orientatzailearentzat mintegiak sustatzea eta aurrera eramatea



- Prestakuntza eskaintzea eta antolatzea (irakasle-orientatzaile berrientzat formazioa, jardunaldiak...).
- Aholkularitza zerbitzua ematea ikastetxeei orientazio arloan.

Orientazio Estrategia honen baitan ezinbesteko garrantzia hartzen dute **tutoretza planek**. Esparru honetan, eman beharreko aholkularitza eta laguntza lanetan, orientatzaileek bermatuko dituzte tutoretza estrategiaren baitan ikastetxean landu beharreko ardatz nagusiak, maila desberdinetako tutoretza planen arteko koherentzia eta plan horien implementazioa.

[↑Aurkibidea](#)

1.3.4. Eraldatzen [programa](#)

Hautatutako ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren artean garatu beharreko **kontratu-programa** da, eta helburu du eskola-arrakasta eta bizitzarako kompetentzien garapen-maila hobetzea, planteamendu inklusibo batetik ikasleekin esku hartuta.

Hori guztia egingo da ikastetxeak pixkanaka eta modu arduratsuan bere autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta kudeaketakoa beren gain hartzea ahalbidetuko duen esparru batean, egungo gizartearen premietara eta ezaugarrietara egokituko den hezkuntza-sistema baterantz aurrera egiteko, ikasle guztien inklusioa, berdintasuna, ekitatea eta hezkuntza-kalitatea sustatuta.

Ikastetxeak bere borondatez parte hartuko du kontratu-programan; baina, nolahi ere, honako hauek izan beharko ditu:

- Irakasleen klaustroaren gutxienez % 60ren konpromisoa
- Eskola kontseiluaren parte hartzeko onarpena

Programa honetan planteatzen den aholkularitza eta jarraipena Hezkuntza Departamentuak horretarako sortutako talde batek egiten du. Aholkularitza ikastetxeen arteko lankidetzak sareak ezartzera ere zuzenduta dago, etengabeko ikaskuntzarako formula berriak sortzen lagunduko duten ezagutzak eta esperientziak trukatzeko.

Kontuan izanik Eraldatzen kontratu-programa bat dela, ikastetxea arestian ezarritako konpromisoak betetzearekin lotzen duena, horietako bat edo gehiago arrazoirik gabe ez betetzeak programatik kanpo uztea ekar dezake.

[↑Aurkibidea](#)

1.3.5. Bidelaguna programa

Eskola orduz kanpoko laguntza [programa](#) bat da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei bideratuta; lehenetsia izanik eskolan zailtasuna edo atzerapenak dituzten ikasleak, horren arrazoia beren gizarte-egoera desabantailatsua bada.

Programaren helburua da eskola-arrakasta indizeak hobetzea, eta, horretarako, hauek egin nahi dira:

- Laguntza eta bitartekoak eman ikasleei, batik bat ingurune fisiko edo estimulu egokirik ez dutenei, denbora osagarri bat erabil dezaten beren eskolako atzerapenari aurre egiteko edo hura prebenitzeko.



- Oinarrizko konpetentzien garapena hobetzea; batik bat, irakurketa, area edo materia instrumentalak, lanaren antolaketa eta ikaste-ohituren eskurapena.
- Ikasleek beren konpetentziei buruz dituzten itxaropenak eta ikastetxeak ikasleei buruz dituenak hobetzea.
- Familien eta ikastetxeen arteko harremana hobetzea

[↑Aurkibidea](#)

1.4. IKASTETXEARI ZUZENDUTAKO FORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

2024-2025 ikasturtean, curriculum egokitzen jarraitu behar dugu, digitalizazioak eta metodologia berriek zein zaintza emozionalak dakartzaten erronkeei aurre egin behar diegu, besteak beste; gizartea aldatzen ari da eta laguntza-zerbitzuek eraldaketa sakon bati erantzun behar diote, hezkuntza-komunitate osoak egokitu beharko duen konfigurazio berri batean.

Testuinguru honetan, berrikuntzarako laguntza zerbitzuak eredu berri bateranzko bidean murgilduta daude, errealitateari egokituta, gure ikastetxeen beharrei modu egokian erantzuteko.

Hona hemen Berritzegune Nagusia osatzen duten 8 esparruak:

1. Lidergo pedagogikoa eta hezkuntza eraldaketa
2. Curriculum garapena
3. Irakaskuntzako metodologia eta konpetentziak
4. Bizikidetzaren eta aniztasunaren kudeaketaren esparruko berrikuntzan
5. Nazioartekotzea
6. Euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna
7. Digitalizazioa eta berrikuntza tekniko-pedagogikoa
8. Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntza

2024-2025 ikasturterako aurreikusten da aholkularitzen lana modu horizontalean egituratzea zonako Berritzeguneen eta Berritzegune Nagusiaren artean. Honako hauek izango dira, egungo Berritzeguneek hartzen dituzten esparruetatik abiatuta, datorren ikasturtean egongo diren eraginguneak: Araban eragingune bat; Bizkaian 4 eragingune eta Gipuzkoan 3 eragingune.

Eraginguneekin batera, egungo Berritzegune Nagusiak formakuntza-prozesuak eta prozesu berritzaileak gidatuko ditu, beste Berritzeguneen lankidetzaren estuarekin eta lankidetzaren lan horizontalean, betiere, Hezkuntza Sailburuordetzaren mendeko bi zuzendaritzekin batera, [Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako](#) zuzendaritza eta [Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntza](#)ren zuzendaritza.

Formakuntzari dagokionez, 2024-2025rako Berritzegune Nagusiak aurreikusi du formakuntza-eskaintza ikastetxeen beharrak aintzat hartuta; zuzendaritza-taldeari lagundu nahi zaiolako ikastetxearen ikasturteko formazio plana diseinatzen, betiere ikastetxearen lehentasunezko lerro estrategikoak eta berrikuntza-proiektuak modu integralean eta kolektiboan garatzeko. Informazio zehatzagoa [24-25 ikasturterako BeA jarraibideetan](#) dago.



Berritzegune Nagusiak konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko guztiei 2024-2025 ikasturteko prestakuntza-eskaintza zabaltzeko egingo diren hiru komunikazio-une garrantzitsuen berri emateko. Jarraian, faseak eta dagozkien prozedurak zehazten dira:

Lehenengo Komunikazio Unea: 24-25 ikasturterako formakuntza eskaintza

Data: 2024ko ekainaren bukaeran

Helburua: 24-25 ikasturte osorako formakuntza eskaintza aurkeztea

Hedabidea: Ikastetxeetako zuzendarientzako posta elektronikoa

Edukia: Formakuntza eskaintzaren hasierako dokumentua

Bigarren Komunikazio Unea: Bigarren hiruhilekorako formakuntza eskaintzaren gogorazpena

Data: Abenduko oporren aurretik

Helburua: Bigarren hiruhilekoan hasiko den formakuntza eskaintza gogoratzea

Hedabidea: Ikastetxeetako zuzendarientzako posta elektronikoa

Edukia: Bigarren hiruhilekorako formakuntza eskaintzaren bertsio doitua.

Hirugarren Komunikazio Unea: Bigarren hiruhilekorako formakuntza eskaintzaren gogorazpena

Data: Udaberriko oporren aurretik

Helburua: Hirugarren hiruhilekoan hasiko den formakuntza eskaintza gogoratzea

Hedabidea: Ikastetxeetako zuzendarientzako posta elektronikoa

Edukia: Hirugarren hiruhilekorako formakuntza eskaintzaren bertsio doitua.

Garrantzitsua da ikastetxeetako zuzendaritza talde bakoitzak arretaz berrikustea komunikazio-une bakoitzean emandako informazioa, komunikazio bakoitzean informazio garrantzitsua egon baitaiteke.

[↑Aurkibidea](#)



2. IKASTETXE-ANTOLAKETA ETA –PLANGINTZA

Ebazpenaren bigarren puntu honetan, ikastetxearen-antolaketari eta -plangintzari buruzko alderdiak landuko dira, eta 2024-2025 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko guztiek kontuan hartu beharreko alderdiak ezarriko dira.

2.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikastetxearen hezkuntza proiektua (aurrerantzean IHPa) proposamen integral eta globala da, loteslea, ikastetxearen testuingurutik abiatuta eta hezkuntza-komunitatearekin eta bere ingurunearen ezaugarriak aztertu ondoren egina. Ikastetxearen identitatea jasoko du, bere balioak, printzipioak eta helburuak zehaztuko ditu baita horiek lortzeko modua ere.

Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak honako alderdi hauek zehaztuko ditu: ikastetxearen identitate-printzipioak, ikastetxearen ezaugarriekin eta balioekin lotuta; lortu nahi dituen hezkuntza-helburuak, ikastetxearen printzipioen araberrakoak; irakasleen klastroak egindako eta onartutako zehaztapen curricularra; ikasleek lortu behar dituzten funtsezko kompetentziak, ikasleen ezaugarrien araberrakoak; oinarritzko irizpideak eta ildo estrategiko nagusiak; eta jarduteko lehenetasunak, hizkuntzaren, curriculumaren eta antolaketaren arloan garatuko direnak.

Ikastetxeko eskola kontseiluari dagokio ikastetxearen hezkuntza-proiektua onartzea. Nolanahi ere, ikastetxeak bere hezkuntza proiektuak argitara eman beharko dituzte, hezkuntza komunitate osoak ezagutu ditzan.

Hezkuntza Sailak Ikastetxearen hezkuntza-proiektua prestatzeko gida gaurkotua jarriko du ikastetxearen eskura, araudi berrira egokitutako gida izango da, ikastetxeak 2024-2025 ikasturtean IHPak egokitzen joan daitezen.

[↑Aurkibidea](#)

2.2. ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)

Ikastetxeetan telefono mugikorren eta erloju adimendunen erabilera erregulatzea

Ikastetxeek beren AJAetan arautu beharko dute telefono mugikorren eta erloju adimendunen erabilera

Teknologia digitalek ahalmen handia dute irakaskuntza eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko, baita ikasleen artean kompetentzia digitala garatzeko ere. Teknologia horiek irakaskuntzarako, ikaskuntzarako, komunikaziorako eta sormenerako eskaintzen dituzten aukera ugariak baliatzea da kontua. Baina, zalantzarik gabe, eta batez ere telefono mugikorrek, zuzeneko eragina dute ikasleen garapenean eta interakzioetan. Horregatik, beharrezkoa da gailu horien erabilera egokia sustatzea, eta bizikidetzaren positiboa bultzatuko duten ohitura, jarrera eta estrategiak bultzatzea, baita esparru digitalean ere. Izan ere, teknologiek aukera eta hobekuntza berriak emateaz gain, arrisku eta mehatxu-iturri ere izan daitezke, eta horiei aurre egin beharra dago.

Hori dela eta, Hezkuntza Sailak laster publikatuko ditu jarraibide batzuk ikastetxeetan telefono mugikor eta erloju adimentsuen erabilera arautzeko zenbait alderdiri buruzkoak. Helburua izango da maila guztietako ikasleak informazio eta komunikazio-teknologiaren erabilera seguruan hezteko, baita teknologia horien erabilera arautu behar duten printzipio etikoetan ere, ziberbizikidetzaren posible izan dadin. Azken



urteotan, alderdi horiek guztiak Bizkasi ekimenaren esparruan edo Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planean jorratu dira, ikastetxeen eskura jarritako gida, prestakuntza eta material didaktikoen bidez.

Horri jarraiki, ikastetxe bakoitzak -ikastetxeen antolamendu eta funtzionamendu-autonomiaren barruan- neurri pedagogikoak hartuko ditu eskola-jardunean telefono mugikorren eta erloju adimendunen erabilera erregulatzeko. Eskola-jardunaren baitan hartzen dira eskola-ordutegia, jolas-orduak, edo ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak —hala nola jantokia edo garraioa—, baita jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak ere, betiere bakoitzaren berezitasunak eta testuingurua kontuan hartuta.

Erregulazioa ikastetxeen Antolaketa eta Funtzionamendu Araudian jaso beharko da, eta ikastetxe horietako Eskola Kontseiluak onartu beharko du, 2024ko urtea bukatu baino lehen. Neurri horiek hezkuntza-komunitateari jakinarazi beharko zaizkio, telefono mugikorrek eta erloju adimendunak gehiegi erabiltzearen arriskuei buruzko sentsibilizazio-ekintzak sustatuko dira, eta, bereziki, ziberjazarpena prebenitzeari buruzkoak.

Era berean, ikastetxeek ziberjazarpena edo telefono mugikorren eta erloju adimendunen bidezko abusu-egoerak prebenitzeko jarduketak aurreikusi behar dituzte euren bizikidetzaren planean, orientazioko eta tutoretza-ekintzako planetan, baita Ikastetxeko Proiektu Digitalean ere, prebentziozko jarrera proaktiboak eta mekanismoak areagotzeko.

Hezkuntza Sailak berariazko materialak eta hezkuntza-komunitateari zuzendutako prestakuntza eskainiko ditu, Interneten eta gailu mugikorren erabilera seguru eta arduratsuari buruz, Berritzegune Nagusiak egin duen GIDA bezalaxe, [Digigunean](#) eskura dagoena.

2.3. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHIP)²

IHIPa Hezkuntza Proiektutik eratortzen den funtsezko dokumentua da, bertan jasotzen baitira hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien irizpide eta erabaki guztiak. IHIPak jasoko dituen erabaki horiek guztiek honako azken xede hau izan behar dute: ikastetxeko ikasle guztiek komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna garatzea, eta Curriculum Dekretuan ezartzen diren hizkuntza helburuak lortzea euskarari, gaztelanian eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean.

Xede- hori lortzeko, gurea bezalako hezkuntza sistema elebidunean, non eskolatze hizkuntza -euskara-gure ikasle askoren bigarren hizkuntza den-, eta, gainera, egoera minorizatuan dagoen, ezinbestekoa da euskarari –bere komunikazio konpetentziari, erabilerari eta normalizazioari- lehentasuna ematea. Horregatik, euskara izango da IHIParen ardatza, eta eleaniztasuna eta kulturartekotasuna ere izango ditu helburu, beste irakas-hizkuntzak eta ikasleen beste hizkuntza eta kulturak ere aintzat hartu behar dituelako.

Hortaz, goiko xedeak lortze aldera, ikastetxeak euskara ardatz duen hizkuntza proiektu eleaniztun eraginkorrak idatzi eta garatuko ditu. IHIPak bizia eta dinamikoa behar du izan, bertan jasotzen diren

² <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-hizkuntzak-dokumentuak/web01-a2hberri/eu/>



irizpide eta erabakiak gauzatzeko neurri pedagogikoak, estrategia metodologikoak eta berrikuntza proiektuak inplementatu beharko direlako, eta gainera aldian-aldian proiektuaren garapen eta helburuen lorpen maila ebaluatu eta horren arabera proiektua berritu, eguneratu behar delako.

Zentzu horretan, 2024-2025 ikasturtean Hizkuntza Proiektua eguneratu nahi duen ikastetxeak ezinbestean [Hezkuntza Lege](#) berria eta indarrean dugun [curriculum](#) hartu beharko ditu erreferentzia nagusi, haien printzipio pedagogiko eta metodologikoak aintzat hartuz, eguneratze horretan behar besteko egokitzapenak egiteko. Horretarako, laguntza zerbitzuetako aholkularien laguntza jasoko du.

2024-2025 ikasturtean, gainera, ikastetxeek hasi behar dute irakurketa kompetentziari buruzko erabaki eta jarduerak [Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia](#) berriaren arabera eguneratzen, eta eguneratze horrek isla izan beharko du Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan.

Hezkuntza Legeak eta curriculumak hizkuntzen ikaste- eta irakaste-prozesuez aipatzen dituen printzipioez gain, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak honako alderdi hauek ere jaso beharko ditu:

- Hizkuntzen trataera integratua eta integrala.
- Elkarrekintza sustatzen duten metodologiak, eta ahozko hizkuntza lantzeko estrategiak.
- Ikasleen irakurketarako kompetentzia hobetzeko neurriak, Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia berriaren arabera.
- Arreta eta erantzuna hizkuntza-premiak dituzten ikasleei, bereziki, hezkuntza sistemara berandu sartzen diren ikasleei.
- Euskararen erabilera eta normalizazioa ikastetxean.
- Erabileran eragiteko alderdi motibazionalak.
- Euskal kulturaren transmisioa.
- Atzerriko hizkuntza arlo eta jakintzagaien bidez lantzeko-
- Irakasleen formazioa, hizkuntzen kompetentzia hobetzeko eta sistema eleanitzetan hizkuntzak irakasten trebatzeko.
- Elkarlana familiarekin eta komunitatearekin, euskararen aldeko ekosistema lagungarriak sustatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

2.4. IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA (IPD)

IPDa hezkuntza-baliabide digitalen erabilera bultzatu eta sustatzen duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastetxeko gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleen garapen integralean laguntzeko helburuarekin. Horregatik, IHPn, zuzendaritza-proiektuan eta urteko planean integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilerari buruzko ikastetxe-ikuspegia ematea IPDari, bere aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologien erabilera gidatu dezan.



Zentzu honetan, 2022-2023 ikasturtez geroztik, ikastetxeak, bere autodiagnostikotik abiatuta, IPDa diseinatuta eta onartuta du. Dokumentu honek jasotzen ditu ikastetxeak, bere egoera eta autonomiaren barruan, alor honekin lotutako helburuak eta azken hauek lortzeko aurreikusitako ekintzak.

IPDa ikastetxearen webgunean argitaratuta egon behar du, eta kokapenen publikora lotura Berrizegune Nagusiaren eskutan egon behar da.

IPDa tresna bizia da, urterik urtera, egokitu eta berrikusi egin beharrekoa, ikastetxearen eta ikasleen beharrei erantzuteko. Horretarako Digitalizazio Batzordeak egingo du urteko ebaluazioa eta hurrengo ikasturterako IUPean txertatzeko aurreikusitako neurriak.

2024-2025 ikasturtean, eranskin bat sartuko da IPDn, ikastetxeak erabilitako aplikazio guztiekin (hainbat mailatakoak, hala nola CANVA, Pinterest eta INIKA, besteak beste). Eranskin honetan ikastetxean erabiltzen diren aplikazio guztiak zerrendatu beharko dira. 2023-2024 ikasturtean, mentore digitalek galdetegi bat egin zuten aplikazio horiek identifikatzeko. Lortutako informazioarekin, IPDrako eranskina sortu eta Heziguneren bidez bidali behar da, Urteko Planarekin batera.

Hezkuntza Sailburuordetzak, Berrizegune Nagusiaren bitartez (BeA figurak), aplikazioak zerrendatzeko plantilla emango du. Bildutako datuekin, Hezkuntza Sailak, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin lankidetzan, datuak babesteko araudiaren betetze-maila ebaluatuko du eta gida bat egingo du. Gida hau ikastetxeentzat eskuragarri egongo da, eta edozein aplikazio erabili aurretik kontsultatu beharko dute.

Datuak babesteko neurriak direla eta, aplikazio batzuk ezin izango dira Sailak emandako gailuetan deskargatu. Datuak Babesteko ordezkariaren baimenik gabe, aplikazioen inpaktuari eta arriskuari buruzko azterketa bat egin behar baita.

[↑Aurkibidea](#)

2.5. IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP) eta MEMORIA

2.5.1. Ikastetxearen urteko plana (IUP)

Zuzendaritza-taldea arduratzen da ikastetxearen urteko planaren prestaketa koordinatzeaz. Plan hori onartzea eskola kontseiluari dagokio, bazter utzi gabe klaustroak irakaskuntza-jardueren programarekiko dituen eskumenak.

Ikastetxeak 2024-2025 ikasturterako IUPa egingo du ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute **2024ko urriaren 27a** baino lehen, [Hezigunearen](#) bidez. IUPa egiteko [gida eguneratua](#) ikastetxeen esku jarri da.

IUPa laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat erabilgarria eta praktikoa izan dadin. Hezkuntza Sailak IUPa prestatzeko txantilo gaurkotua jarriko du ikastetxearen eskura, araudi berrira egokitutakoa.

Hezkuntza-jarduera osoa esparru inklusiboan garatzen dela kontuan hartuta, beharrezkoa da kolektibo zaugarrien egoera aintzat hartzea (ikasle etorri berriak, ikasle ijitoak, familia- egoera larriak dituztenak...). Horretarako, beharrezkoa da ikastetxeak eskola-emaitzak hobetzeko helburuak esplizituki sartzea proiektu eta urteko planetan, beharrezko laguntzak emateko.

Era berean, ikasleak ebaluatzeko askotariko estrategiak aurreikusiko dira, ikasleen etengabeko ebaluazioan eta formazioan sakondu ahal izateko. Irailean zehar, hasierako ebaluazioa egin beharko da.



Horretarako, oinarri hartuko da ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera ikasturte berrirako eskatutako funtsezko alderdiekiko. Testuinguru horretan aparteko garrantzia du segidako mailetako irakasle-taldeen arteko koordinazioa sustatzeak.

Lortutako informaziotik abiatuta, laguntza- eta errefortzu-jarduerak antolatu beharko dira, ikasturte berrirako aurreikusitako programazioari dagokionez, mailaz igo arren ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleentzat. Hori guztia **Jarduera Plan Pertsonalizatuan (JPP)** jasoko da.

Irakaskuntza jarduerak izan behar duten marko metodologikoei dagokienez, kontuan hartu behar dira, besteak beste: ikasleak ikaste prozesuan eragile aktiboa izatea; ikasleen arteko interakzioa eta haien autonomia sustatuko duten proposamenak bultzatzea; erlazio-testuinguru malguak ezartzea; eta sormenezko proposamenak egitea. Hau guztia bizikidetzat positiboa sustatzen duen testuinguru seguru batean

Urteko planak ondoren adierazten diren atalak jaso behar ditu, gutxienez:

- [Irakaskuntza-jardueren programa](#)
- [Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programa](#)
- [Urteko kudeaketa-programa](#)
- [IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena](#)

[↑Aurkibidea](#)

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroari edo, hala badagokio, batzorde bati dagokio programa hau prestatzea.

Honako azpiatalak jasoko ditu:

1. Helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak

Helburu kopuru mugatua adieraziko da (datuen analitika eta ezarritako lehentasunetik ateratzen direnak). Horrek ez du esan nahi lortu behar diren bakarrak direnik, baizik eta ikastetxeko eremu guztietatik arreta berezia jasoko dutenak direla, eta hezkuntza-komunitate osoa inplikatu dutela hori lortzeko, horiek lortzea ahalbidetuko duten jarduerak planifikatuz eta beharrezkoak diren berrikuspen- eta ebaluazio-prozesuak abian jarritz.

Oso garrantzitsua da formulatutako helburuen eta ikastetxearen ildo estrategikoen arteko erlazioak zehaztea (ikastetxeak formulatuta baditu, edo ikastetxearen bitzita planifikatzeko eta antolatzeke beste dokumentuetatik eratorriak). Erlazio horrek ikastetxeari lagunduko dio helburuen formulazioaren eta ekintza zehatzen diseinuaren arteko koherentzia bistaratzen.

Helburuak hurrengo **iturrietatik** erator daitezke, besteak beste:

- Zuzendaritza-proiektua
- Curriculum: metodologia (proiektu globalizatuak, eremuak ...)
- Curriculum: programazio didaktikoak eta ikas-egoerak, erronken bidezko lanak, proiektu globalizatuen... gaurkotzea/egokitzea
- Curriculum: STEAM, pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika



- Curriculum: ebaluazioa
- Kanpo-ebaluazioen eta barne-ebaluazioaren emaitzak aztertu ondoren identifikatutako hobekuntza-helburuak
- Digitalizazioa: ikastetxeko digitalizazio proiektua
- Hizkuntza-proiektua: euskararen normalkuntza, euskal kultura eta hezkuntza soziolinguistikoa
- Hizkuntza-proiektua: ikasle etorri berriei erantzuna (Eusle eta HIPI)
- Bizikidetzaren plana: bizikidetzaren eta ongizate emozionala
- Hezkidetzaren plana
- Aniztasunari erantzuteko plana

Helburu bakoitza garbi definitu ostean, honako hauek zehaztuko dira:

- Garatu beharreko **jarduerak**, bai eta haiek egiteko ze **baliabide** behar diren, aurreikusitako emaitzak lortzeko
- Antolatutako jardueraren bakoitza garatzeko **denboralizazioa**
- Jardueraren bakoitzean zer **pertsonen** hartuko duten parte, eta azken emaitza lortu izana noren ardura izango den
- **Jarraipen** eta **lorpen adierazle** neurgarriak

[↑Aurkibidea](#)

2. Hezkuntza konplexutasunaren indizea (aurrerantzean HKI)

HKIari lotutako helburuak, ekintzak eta lorpen adierazleak zehaztuko dira (soilik HKI aplikatzearen ondorioz baliabide gehigarria lortu dituzten ikastetxeentzat).

HKIa aplikatzearen ondorioz baliabide gehigarria lortu dituen ikastetxeko zuzendaritzak atal bat sartu beharko du ikastetxearen urteko planean, baliabide horien helburua eta eginkizunak azaltzeko, kontuan hartuta proposatutako helburua dela eskola-emaitzak hobetzea. Ondorioz, baliabide gehigarri hori, lehenetsunez, zuzeneko irakaskuntzako jardueretara bideratu beharko da: hezkuntza-banaketak; errefortzuak; koirakaskuntza; behar duten ikasleekin berriazko esku hartzea. Eraldatzen programan parte hartzen duen ikastetxeak bermatuko du baliabide horren 1/3a Eraldatzen arduradunaren zereginetarako izango dela.

3. Ohiko irakaskuntza-jardueren programa (OIJP)

Honen barruan zehaztuko dira:

- a) [Ikastetxearen funtzionamendu eta antolamendu atala](#)
- b) [Berrikuntza eta eraldaketa](#)



c) [Formazioa eta garapen profesionala](#)

a) **Ikastetxearen funtzionamendu eta antolamendu atala**

Atal honetan, ikasturtean zehar ikastetxearen eta eskola-jardueraren antolaketa eta funtzionamendurako hartzen diren **erabakiak** eta **irizpideak** jasoko dira, ikasleen beharrak eta dauden baliabideak kontuan hartuta, **betiere lehen aldiz formulatzen badira edo oso erabaki koiunturalak badira**. Hala ez bada, ikastetxearen jarduera planifikatzeko eta antolatzeko beste dokumentu batzuetan jasoko dira, normalean AJAn.

Erabaki eta irizpide horien honako adibide hauek aipa ditzakegu:

- **Egutegia eta ebaluazio-datak.** (derrigor adierazi beharrekoa)
- **Familiekin edo legezko tutoreekin komunikazioa** (derrigor zehaztu behar dira taldeko batzarren datak)
- Irakasleriaren eginbeharren esleipenerako irizpideak
- Tutoretzen banaketarako irizpideak
- Jarduera eskusibo saioen antolaketa [haur eta lehen hezkuntzan] eta ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa [beste mailatan]
- Ikasleak taldekatzeko irizpideak
- Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak
- Gune komunak antolaketa eta banaketarako irizpideak
- Ikastetxeko zerbitzuak (jantokia, garraioa, liburutegia...)

[↑ OIJP](#)

b) **Berrikuntza eta eraldaketa**

Egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, ikastetxeak trebetasunak eta kompetentziak garatzeko gunea izan behar du. Ezinbestekoa da berrikuntzaren abangoardian kokatzea, ikasleek kalitatezko hezkuntza jasoko dutela ziurtatzeko. Alde horretatik, bere errealitatetik abiatuta, ikastetxeak ikaskuntzaren berrikuntza sustatuko du, betiere bere Hezkuntza Proiektuarekin bat etorri, eta bere hezkuntza-komunitatearen errealitatetik eta ezaugarrietatik abiatuta. Beraz, asmoa ez da berritzeagatik berritzea, baizik eta ikastetxean ezarritako berrikuntzak ikuspuntu holistiko eta kontestualizatu batetik garatzea eta ikasleen errendimendu akademikoan eta hezkuntza-kalitatean eragin esanguratsu eta positiboa izatea.

Testuinguru horretan, 2022-2023 ikasturtean ikastetxeak lehen aldiz jaso zuen berrikuntzako ordu-kreditu baten esleipena, eta horren isla izan da Berrikuntza arduraduna (aurrerantzean, BeA figura edo figurak).

Ikuspegi berri horretatik, proiektu edo deialdien arabera ordu-esleipen zatikatua gainditu da, ikastetxearen ikuspegi orokorra lehenesten duen eszenatoki batera igarotzeko, bertan garatzen diren proiektu guztiak norabide koherente bakar batean kokatu daitezzen, Hezkuntza Proiektuarekin bat.



Hori horrela, BeA figuraren eginkizun nagusia da ikastetxean ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin eta zuzendaritza-taldearekin lankidetzan estuan.

IUParen atal honetan hurrengo bi aspektu garatuko dira:

- Ikastetxearen estrategiarekin bat datozen eta helburu argiak, ekintzak, kronogramak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak barne hartzen dituzten berrikuntza-proiektuak.
- Ikastetxeari berrikuntzako esleitutako ordu-kredituaren plangintza: BeA figuraren zein berrikuntzarako orduak dituzten irakasleen zereginen eta antolaketaren zehaztapena eta ikastetxean egingo diren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak.

[↑OJUP](#)

c) Formazioa eta garapen profesionala

Ikastetxeko Formazioa Plana diseinatzea, koordinatzea eta bere jarraipena egitea BeAri dagokio, zuzendaritza-taldearekin adostuta. Plan horretan, aurreko atalean zehaztutako berrikuntza-proiektuekin lotutako gaikuntza-programak jasoko dira, elkarren arteko erlazioak ezar daitezkeen eta izaera integrala izan dezaten.

Hori guztia bideratzeko, Berritzegune Nagusiak 24-24 ikasturterako aurreikusten duen formazio-eskaintza prestatu du. Formazio-eskaintza honek ikastetxea du helburu, ez irakasle soila, zuzendaritza taldeari lagundu nahi diolako ikastetxearen ikasturteko formazio plana diseinatzen, betiere ikastetxearen lehentasunezko lerro estrategikoak eta berrikuntza proiektuak modu integralean eta kolektiboan garatzeko.

Formazio eskaintza horrek izaera bizia du eta ikasturtea aurrera doan heinean elikatu eta aberastuko da.

Ikasturtearen hasieran jakinaraziko da formazio desberdinetan izena emateko bideak zeintzuk izango diren; horretarako prozedura telematiko zehatz bat gaituko da, eta horrekin batera komunikazio kanal zuzenak ezarriko dira. Modu horretan, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du bere aurreikuspenak egiteko formazio plana zehazte aldera (ordutegiak, parte hartzaileak,...)

[↑OJUP](#)

[↑Aurkibidea](#)

b) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programa

Jarduera osagarriak

Ikastetxeak eskola-egutegiaren barruan antolaturiko hezkuntza-jarduerak dira, IHParekin eta ondorioz, Urteko Planarekin lotura zuzena dutenak. Orobat, egiten diren une, gunee edota erabiltzen diren baliabideengatik, ohiko eskola-orduetatik desberdintzen diren jarduerak dira. Ikasleek eta irakasleek derrigorrean hartu behar dute parte jarduera hauetan, gainerako ikast-orduetan bezala. Jarduera hauetan eman daitezkeen ikasleen hutsegiteak gurasoek justifikatu beharko dituzte.



Jarduera osagarriak antolatzeke garaian, helburuak, inplikaturako ikasle eta irakasleak, eta egiteko eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira. Erregistro horrek Eskola Kontseiluaren eta ikuskaritzaren eskura egon beharko du ikastetxean. Era berean, zuzendaritza taldea arduratuko da irteeren erregistro hau eguneratua izateaz.

Ikastetxeak jarduera osagarriak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan. Guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, aldeztatik aurrekusi beharko da hori eta, ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakaskuntzako eta hezkuntzako bertako profesional guztiak), egokienak aukeratu beharko dira, inor ez dadin jarduera horietatik kanpo utzi. Hori horrela, jardueretan irisgarritasun unibertsalerako beharrezko baldintzak aurrekusi behar dira, ikasle guztiek baldintza beretsuetan parte har dezaten.

Jarduera osagarriak Urteko Planean sartu beharko dira, eta, ez badaude, Eskola Kontseiluak aldeztatik onartu beharko ditu eta IUPean sartu beharko dira.

Kontuan hartu beharko da ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan gurasoen edo tutoreen baimena beharko dela. Gainera, joan-etorriak jasagarritasun-irizpideen arabera programatu behar dira.

Ikasle batek, justifikaturiko arrazoiengatik, irteeran ezin badu parte hartu, ikastetxean behar bezala artatu beharko da eskola-egun osoan.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleek, gutxienez, bi irakasle izan beharko dituzte alboan, betiere, eta horietako bat, behinik behin, ikasleen taldeko irakasle bat izango da. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialistak ere egongo dira. Bestalde, gutxienez, irakasle laguntzaile bat izango da 20 ikasleko edo 10etik gorako frakzioko, eta lehen adierazitako gutxieneko kopurua errespetatuko da, betiere. Hots:

Ikasle kopurua	irakasleak
1-30	2
31-50	3
51-70	4
71-90	5
91-110	6

Jarduera osagarriak dira:

- **Barnetegi-egonaldiak:**

Hezkuntza Saitetik, besteak beste, hurrengo eskaintza dago:

- [Ingelesean murgiltze-egonaldiak](#), DBHko 2. mailako ikasleentzat ere bai: 23-24 ikasturtetik, nabarmendu behar da Lehen Hezkuntzako etapaz gain, Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleentzako plazak deitu direla, hizkuntza-murgiltze-egonaldi horietan parte hartzeko. Egonaldi horien helburua ingelesa ikastea eta erabiltzea izango da, eta, beraz, ingelesa soilik erabiliko da. Jarduerak akademikoak, ludikoak, kirolakoak eta aisialdikoak izango dira.
- [Euskal Girotze Barnetegiak](#)



- Ikastetxeko festa-jarduerak
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Ikasgelatik kanpoko jarduerak: bisitak, irteerak, txangoak, topaketak, jardunaldiak...
- Europar programetatik eratorritako trukeak
- ...

Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jardueratzat hartzen dira ikastetxea bere eskaintza zabaltzera lerrokatuta daudenak, ikasleen prestakuntza integrala lortzen ahalegintzera bideratuak daudenak, bizikidetzeta positiboa, ikuspegi inklusibotik eta generoaren alderdia ardatz hartuta antolatutakoak eta, batez ere, honako eremu hauekin loturikoak:

- Euskarara eta euskal kultura
- Arteak
- Musika
- Zientzia
- Atzerriko hizkuntzak
- Jasangarritasunerako ingurumen hezkuntza
- Ariketa fisikoa edo kirola
-

Orobat, eskolaz kanpoko jarduerak horiek eragin handia dute euskarazko hizkuntza-komunikazioaren hobekuntzan, eta, halaber, ikasleek euskararekiko duten atxikimenduan eta motibazioan. Horregatik, lehentasunezkoa da jarduerak horietan euskara erabil dadin sustatzea.

Irakaskuntza-dedikaziotik kanpo egiten dira, eta borondatezkoak dira. Jarduerak horien plangintzan helburuak, taldeak, arduradunak, eta egiteko unea eta lekua zehaztuko dira.

Ikastetxeak eskolaz kanpokoak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan. Guztiak dute jarduerak horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, alde aurretik aurreikusi beharko da hori eta, ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakaskuntzako eta hezkuntzako bertako profesional guztiak), egokienak aukeratu beharko dira, inor ez dadin jarduerak horietatik kanpo geratu. Hori horrela, eskolaz kanpoko jardueretan irisgarritasun unibertsalerako beharrezko baldintzak aurreikusi behar dira, ikasle guztiak baldintza beretsuetan parte har dezaten.

Kontuan hartu beharko da ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan gurasoen edo tutoreen baimena beharko dela. Gainera, joan-etorriak jasangarritasun-irizpideen arabera programatu behar dira,

Eskolaz kanpoko jarduerak IUPan sartu beharko dira, eta, ez badaude, Eskola Kontseiluak alde aurretik onartu eta IUPan sartu beharko dira.

[↑Aurkibidea](#)

c) Urteko kudeaketa-programa

Zuzendaritza-taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio urteko planaren zati hori prestatzea, eskola kontseiluak onar dezan.



Finantza-baliabideen banaketa ikastetxean helburuak eta lehentasunak ezartzeko modu garrantzitsua da. Atal honetan kontuan hartu behar da kudeaketa ekonomikoaren (urte naturala) eta ikastetxearen urteko planaren (ikasturtea) denbora-esparruak desberdinak direla.

Horregatik, atal horretan honako alderdi hauek hartuko ditugu aintzat:

- Onartutako aurrekontua zenbateraino bete den: horretarako, nahikoa da orri batean aurrekontuko zenbait diru-partida jasotzea, eta une horretara arte zenbat diru erabili den (gastuak). Dokumentu honek ekonomia-kudeaketarako aplikazio informatikoa berak ematen du.
- Hurrengo aurrekontuetarako gastu-irizpide eta -aurreikuspenak; batez ere, funtzionamenduarekin lotuta ez dauden gastuei dagokienez: hornikuntzekin, formazioarekin, obra txikiekin eta abarrekin zerikusia dutena.

[↑Aurkibidea](#)

d) IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena

IUPen garapenari buruzko jarraipena ahalik eta modurik parte-hartzaileenean egin beharra dago, eta horretarako, ikasturte hasieran erabakiko da zer prozesuri jarraituko zaion. Zuzendaritza taldeak egin dezake, edo horretarako propio sortutako batzorde batek; batzorde horretan, eskola-elkarteko hainbat estamentutako pertsonak hartuko dute parte. Era berean, eskola kontseiluari horren guztiaren berri eman beharko zaio behin gutxienez, ikasturtearen erdi aldera.

Planaren jarraipena eta ebaluazioa oinarri dituen informazioa funtsezkoa da Ikastetxearen Urteko Memoria egiteko.

[↑Aurkibidea](#)

2.5.2. Ikastetxearen urteko memoria (IUM)

Zuzendaritza-taldea memoriaren prestaketa koordinatzeaz arduratzen da. IUParen betetze-mailari eta lortutako eskola-emitzei buruzko analisia oinarri hartuta, baita diagnostiko-ebaluazioaren edo kanpoko beste ebaluazio batzuen emitzei buruzko analisia ere, ikastetxeak bere autoebaluazioa egingo du, ondorioak aterako ditu eta hurrengo ikasturterako jarduera hobetzeko proposamenak egingo ditu. Lehentasunak ezarriko ditu, eta horiek, era berean, hurrengo IUPean lortu beharreko helburutzat hartuko dira. Memoriak ikastetxearen ikuspegi orokorra eta bateratua jaso beharko du.

Eskola Kontseiluak onartuko du memoria. Ikastetxeek **2025ko irailaren 16a** baino lehen jarriko dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku, [Hezigunearen](#) bidez.

Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidaren gomendioei jarraituz.

[↑Aurkibidea](#)



3. IKASLEAK

3.1. IKASLEEN ANTOLAKETA

Ikasleen antolaketak eskola inklusiboaren printzipio eta helburuei erantzun behar die. Horrek eskatzen du ikasle bakoitzaren konpetentziak eta ahalmenak ahalik eta gehien garatzea, beren proiektu pertsonala, soziala eta profesionala eraikitzeko gai izan daitezen. Horretarako, zuzendaritza-taldeak ikasle guztien sarbidea, iraunkortasuna eta parte hartzea bermatu behar ditu, batez ere, hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren aurrean kalteberenak direnenak, eta aukera-berdintasunean oinarritutako kalitatezko hezkuntza-sistema eskaini behar du, bizikidetzaren positiboa bultzatu.

Ikasleek ikastetxeko kide izatearen sentimendua sendotzea da helburua. Horretarako, parte-hartzea, talde-lana eta proiektuetan lan egitea sustatuko da, ikasgelan zein ikastetxeko gainerako eremuetan ikasleak euren ikaste-prozesuaren protagonistak izan daitezen.

Arestian aipatutakoa lortze aldera, zuzendaritza-taldeak, irakasle-orientatzailearekin batera, antolamendu-alderdi hauek aurreikusi beharko ditu:

- Irakasle guztien ardura da ikasle guztiei egokia den hezkuntza-erantzuna ematea. Hori ahalbidetzeko, programazioetan hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei zuzendutako berariazko esku-hartzeak jasoko dituzte.
- Neurriak eta laguntza osagarriak modu koordinatuan eta lankidetzaren bidez antolatuko dira, ohiko testuinguruaren barruan, ikasle guztien onura bilatuz. Horrenbestez, ikastetxeko zuzendaritzak inplikaturako profesional guztiek modu koordinatuan parte hartzen dutela bermatuko du.
- Irakasle guztiek eta hezkuntza-langileek aktiboki hartuko dute parte ikasleek dituzten beharrezkoak goiz hautematen eta horiei erantzuna ematen. Horretarako Hezkuntza Sailak ezarritako prozedurak aplikatzea derrigorrezkoa da, alegia, Adimen-gaitasun handiei dagokien protokoloa (detekzio espezifikoa eta JPP-aren bitartez esku-hartzea).
- Ikaskuntzaren irisgarritasun unibertsaleko printzipioetan oinarrituta, ikasleen aniztasunari erantzuten dioten ikaskuntza -metodologia eta estrategia- inklusiboak erabiliko dira.

Alderdi horiek guztiek eragina izango dute, hezkuntza-plangintzan ez ezik, ikasleen antolaketan, komunitateko kideen arteko hezkuntza-erantzukizunen banaketan eta baita planifikaturako ekintzen garapenean ere.

[↑Aurkibidea](#)

3.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEAK

Hezkuntza-erantzun espezifikoa jaso behar duten ikasleak ezaugarri hauek dituztenak dira:

- Hezkuntza-premia bereziak: desgaitasun fisikoa, psikikoa, sentsoriala; jokabidearen-nahasmendu larriak, eta, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larriak
- Heldutasun- atzerapena
- Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahasmendua
- Arreta edo ikaskuntza nahasmendua
- Ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun larria



- Gizarte eta hezkuntza egoera ahulean egotea
- Adimen-gaitasun handiak
- Hezkuntza-sisteman berandu sartu izana
- Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak

Ikastetxeek **Aniztasunari Erantzuteko Planean** eta Urteko Planean jasoko dituzte ikasle horiei zuzendutako antolaketa eta plangintza. Horretarako, besteak beste, kontuan izango dira Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariak emandako [jarraibideak](#).

[↑Aurkibidea](#)

3.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak

Hezkuntza-premia bereziak honako hauekin lotuta daude: desgaitasun fisikoa, psikikoa, sentsoriala; jokabidearen-nahaste larriak; eta, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahaste larriak.

Irakasle taldeak kontuan hartu beharko ditu ikasle horiek behar duten laguntza mota eta intentsitatea (indartze-neurriak, sarbide-neurriak, esleitutako giza baliabideak, egokitzapenak...) betiere, inklusioaren ikuspegitik antolatuz eta ikasleen autonomia bultzatuz.

Ikastetxeko zuzendaritzak bermatuko du ikasleekin esku hartzen duten profesionalen partaidetza eta inplikazio integratua, bai plangintzan (plana, ordutegia...), bai koordinazioan (bilerak), bai eta plangintzaren jarraipenean eta ebaluazioan ere, oinarritzat hartuta, betiere, HLBPko aholkulariekin batera egindako ebaluazio psikopedagogikoa.

Aipatutako profesional horien artean, honako hauek daude: irakasle-tutoreak, gainerako irakasleak, irakasle orientatzaileak, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, terapeuta okupazionala, fisioterapeutak eta IBTko profesionalak, besteak beste.

[2023ko maiatzaren 17ko Hezkuntza Sailburuordearen ebazpena](#) kontuan hartuta, ikasturtean zehar laguntzetan izandako intentsitate-aldaketek, egindako ebaluazio psikopedagogiko berriek, edo ikasle berriak sartzek ez dute ekarriko alde zuzenetik planifikatutako eta ikasturte hasieran esleitutako baliabideak berrikustea, ezarritako prozeduraren arabera justifikatutako salbuespenak salbuespen.

Ikastetxeak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle guztien eta ikasle berriak artatzeko beharrezkoak diren doikuntzak eta ordutegi-aldaketak egin beharko ditu. Era berean, irakasleek beren ikasgelaren programazioa egokituko dute hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle guztiek eta ikasle berriek dituzten laguntza-premietara. Balorazio berriak eta dagoeneko egindakoen gainean gauzaturako aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturtean dagokion esleipena zehazteko.

Salbuespen gisa, ikastetxeak HPBei dagozkien giza-baliabideen esleipena berrikusteko eskatu ahal izango du, ikasturtean zehar intentsitate handiko laguntza behar duten ikasleak sartzeko direnean. Ikasle berriak sartzeko arrazoi justifikatua egon beharko da: bizilekuko udalerriz aldatzea edo euskal hezkuntza-sisteman sartzea. Ikastetxeak eskabidean justifikatu beharko du esleitutako baliabideak berrantolatu dituela eta, hala ere, ezinezkoa duela ikasleari ordutegiren batean arreta ematea.

Era berean, baliabide publikoak efizientziaz erabiltzeko eta eraginkortasunez kudeatzeko, ikastetxearen betebeharra da dagokion lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatze Zerbitzuari HPBak dituen edozein ikasleren baja edo lekualdaketa jakinaraztea.



Kontuan hartzeko:

- a) **Ikasleak ahozko hizkuntzarik gabe** edo ahozko hizkuntza oso pobrea edo ez oso funtzionala erabiliz curriculumean sartu ahal izateko, "Hezkuntza-sisteman komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak (HAZ) ezartzeko [Protocolo SAAC-KSHO](#)" argitaratu da. Esku hartzeko irizpideak bateratzeko prozesuak hasi nahi ditu, inplikaturako profesionalen eta familiaren koordinazioa bermatu, erantzukizunak lanbide gaitasunen arabera zehaztu eta ebaluaziorako eta esku-hartzerako oinarritzko baliabideak eskaini

Laguntza-material gisa, besteak beste, honako [orientabide](#) hauek argitaratu dira: EAE-n entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna

- b) Ikastetxeak krisi-egoerei modu eraginkorrean erantzuteko Eskola kontseiluak ontzat emandako jardun-protokolo bat izan behar du. Horrez gain, **ikastetxeak jokabide-nahasmendu larriak** dituzten ikasleak baditu jardun-protokolo personalizatua ezarriko du egoera horiek geldiaraztea beharrezkotzat jotzen denean eta, larritasunagatik, behin-behinean beste espazio edo programa batzuk erabiltzea eskatzen duten portaeren aurrean. Horretarako, HLBPKo aholkularien aldetik behar duten aholkularitza izango du. Jokabide- nahasmenduek eragindako krisiei, lehenik eta behin eta berehala, krisiaren unean ikaslearengandik hurbilen dauden irakasle edo irakasle ez diren langileek erantzun behar diete, presagatik. Horregatik, zentroko profesional guztiek protokolo horren berri izan beharko dute.

Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE), ikastetxeko beste edozein profesionalak bezala, autorregulazioa sustatzeko zereginetan lagundu ahal izango du, betiere dagokion ikaslearentzako planak hala aurreikusten badu.

Egoera horren konplexutasunak hezkuntza-erantzuna gaintitzen duenez, beharrezkoa izango da familia-, osasun- eta gizarte-esparruetan esku hartzea, HLBPKo aholkulariek koordinatuta.

Esparru honetan aintzat hartu behar da: Hezkuntzaren eta osasun mentalaren arteko lankidetzaren 2018ko maiatzean jarri zen abian *Hezkuntzaren eta Osasun Mentalaren arteko lankidetzaren* [esparru orokorra](#).

Esparru horretan, zerbitzu horiekin koordinatzeari dagokionez lortutako adostasunak adierazten dira. Halaber, jaso egiten dira deribazio-ibilbideak, informazioa trukatzeko prozedurak, txosten-ereduak eta bi sistemetako profesionalen arteko harremanen inguruko zenbait gomendio, jardunbide profesional egokia erraztu dezaketenak.

Bai ikastetxeek bai laguntza-zerbitzuek erraztu egin behar dute lankidetzaren esparru hori garatzeak berekin ekar dezan esparru horretan arreta hobea ematea ikasleei eta haien familiei.

- c) Kontuan hartu behar da **ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan**, materialak (braillea, audioa, etab.) egokitzea beharrezkoa badute, ikastetxeak egokitu behar diren materialak garaiz eman beharko dizkiola ikusmen-urritasuna duten ikasleei zuzendutako profesionali. Testuen kasuan, horien zerrenda maiatzean eman behar da. Laguntza-material gisa, besteak beste, honako **orientabide** hauek argitaratu dira: [ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa](#).



- d) Entzumen desgaitasuna duten ikasleei zuzendutako neurriak eta laguntzak deskribatzeko dokumentu hau argitaratu da: [EAEn entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna](#)

[↑Aurkibidea](#)

3.2.2. Arreta nahasmendua edo ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak.

Beren gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izateko ohiko hezkuntza-arretaz gain beste bat behar duten ikasleen artean, ikasteko zailtasun espezifikoak (IZE) (ikaskuntza nahasmendua ere deitzen dena) edo/eta arreta-gabeziagatik eta hiperaktibitateagatik nahasmendua (AGHN) dituztenak daude.

IZE duten ikasleek beren ikaskuntza mugatzen duten oztopoei aurre egin behar diete, irakurketan, idazketan, zenbakizko zentzuan, kalkulan edo arrazoibide matematikoan eragina duten trebetasun akademikoak ikasteko zailtasun esanguratsu eta iraunkorren ondorioz.

AGHN duten pertsonak arreta faltaren edo hiperaktibitate/inpultsibotasunaren eredu iraunkorra erakusten dute, eta horrek funtzionamenduan edo garapenean eragiten du.

Hori dela-eta, ikasleren batek aurretik hauteman gabeko ikasteko zailtasun espezifikoak eta arreta nahasmendua izan ditzakeela adierazten duten zantzuak edo ebidentziak agertuz gero, irakasleek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote ikastetxeko irakasle orientatzaileari bere beharretara egokitutako Jarduera Plan Pertsonalizatua (JPP) abian jartzeko. Horretarako, dagokion HLBP aholkularitzaren laguntza izango du.

Ikasgelan hartzen diren hezkuntza-erantzunek eta neurri espezifikoek beharizan horietara egokitu behar dute, eta ikasle horiekin lan egiten duten irakasle guztiek aplikatu behar dituzte. Gainera, inklusioari laguntzeko profesionalen arreta edo laguntza jaso ahal izango dute, HLBPko aholkulariekin lankidetzan egindako ebaluazio psikopedagogikoa oinarri hartuta. Laguntza-material gisa, besteak beste, honako [dokumentu hauek](#) daude:

- Irakurketa irakasteari buruzko orientabideak
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duten ikasleei arreta emateko gida eta ohiko tresnak
- Inklusibitateari eta ikasteko zailtasunei buruzko orientabideak eta materialak
- [Irakurketa-plana](#)
- Berriazko hezkuntza-laguntza premia (HLPB) duten ikasleekin esku hartzeko proposamen inklusiboak

[↑Aurkibidea](#)

3.2.3 Adimen-gaitasun handiko ikasleak

Ikasle horiek erantzun egokia jaso behar dute, beren gaitasuna ahalik eta gehien garatzeko. Horretarako, bere ezaugarriak, beharrak eta interesak sakon ezagutu behar dira, eta testuinguruarekin elkarrekintzan aritzean dituen oztopoak atzeman, eta hezkuntza-erantzuna doitu.



Ikastetxeak 2023-24 ikasturtean adimen gaitasun handiko ikasleak identifikatu eta haiei hezkuntza-erantzuna emateko protokoloa ezartzen jarraituko du. [Protokolo hau](#) Lehen Hezkuntzako (1. eta 2., 6. mailetan) eta Bigarren Hezkuntzako (DBHko 1. eta 2. mailetan) ikasleei zuzenduta dago, eta derrigorrezkoa da ezartzea.

Protokoloak hiru fase ditu, eta horietan zuzenean inplikaturik daude aipaturiko mailetakako irakasle tutoreak (baheketa-fasea, kasu honetan, LHko 6. mailako irakasle tutoreak), irakasle orientatzaileak (DBHko 1. mailako ikasleekin berariazko detekzio-fasea) eta HLBPko aholkulariak eta irakasle tutoreak eta irakasle-taldea (ebaluazio psikopedagogikoko fasea eta hezkuntza-erantzuna).

Lehen Hezkuntzako irakasle aholkulariek berariazko detekzio-fasera igaro behar duten ikasleei buruzko informazioa emango diete irakasle orientatzaileei. Fase horretan, irakasle orientatzaileek behaketa zuzenak, berariazko galdera-sortak, detekzio-proba osagarriak eta familiekin elkarrizketak egingo dituzte.

Horietatik guztietatik lortutako informazioak banakako profila zehaztuko du, eta, gaitasun intelektual handiekin bateragarria bada, hurrengo eta azken fasera igaro beharko du (ebaluazio psikopedagogikoa).

Berariazko detekzio-fasea hasi aurretik, beharrezkoa da identifikatutako ikasleen familiekin komunikatzea eta bigarren eta hirugarren fasean esku hartzen jarraitzeko baimena eskatzea.

Ikastetxeak berariazko formazioa eta aholkularitza izango du prozesu osoan.

Edozelan ere, zantzuak antzematen diren edozein mailatan, balorazio-prozesu bati ekin behar zaio, eta, horretarako, irakasleentzako eta familiarentzako tresnak daude.

[Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-orientabideak](#) dokumentuan, irakasleentzat oso baliagarria den informazioa aurki daiteke. Halaber, interesgarriak eta erabilgarriak izan daitezke curriculumak aberasteko orientabide eta material jakin batzuk.

[↑Aurkibidea](#)

3.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea

Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzeko [araudia](#) honako hau da: [AGINDUA, 2022ko abenduaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak eskolatzeko-prozesu arruntetik kanpo eskolatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dituena, Hezkuntza Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, eta zehazten baitira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskolatzeko Batzordeen osaera, eginkizunak eta antolamendu- eta funtzionamendu-arauak.](#)

Onarpen-prozesu arruntetik kanpoko salbuespenezko eskolatzeko-kasutzat hartuko dira, eta, beraz, agindu honetan araututako prozedurak izapidetzeko aukera eman ahal izango dute, egoera hauetakoren batean dauden ikasleei eragiten dieten kasuak:

- 1) Haur Hezkuntzako (lehenengo zikloko hirugarren mailatik aurrera) eta derrigorrezko hezkuntzako ikasleak eskola-plazarik gabe egotea onarpen-prozesu arrunta bukatu ondoren, prozesu horretan parte ez hartzeagatik.
- 2) Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko hezkuntzako ikasleak hezkuntza-sisteman berandu sartu izana.



- 3) Dagoeneko eskolatuta dauden ikasleak ikastetxez aldatzea, honako arrazoi hauetakoren batengatik:
- a) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritako neurriak aplikatzea.
 - b) Familian genero-indarkeriako egoeraren bat izatea.
 - c) Eskola-bizikidetzak kaltegarria.
 - d) Bizitokia beste herri batera aldatu izana.
 - e) Adopzioa edo familia-harrera, onarpen-prozesu arrunta bukatu ondoren formalizatu direnak.
 - f) Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak ikasleen alde egin ditzakeen ezohiko lekualdaketak, betiere, aipatutakoak ez diren baina antzekoak diren egoerak gertatzen badira. Kasu hori modu murriztaile eta ezohikoan aplikatu beharko da, eta berau aplikatzeko aukera ematen duten kasuak betetzen direla egiaztatu beharko da Hezkuntzako Ikuskaritzaren txosten baten bidez.

DBHn ikaspostu bat behar duten EAera iritsi berrien kasuan, ikastetxeak aplikazio informatikoaren bidez kudeatuko du Eskolatze Batzordeari zuzendutako eskaera, ohiko menuaren bidez: *Matrikula/Eskolatze Batzordea*. Ikastetxeak edozein familiaren eskabidea tramitatu beharko du, familiak eskatutako ikastetxea edozein dela ere.

Berandu hasten diren ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak badituzte, ebazpen honetan xedatutakoaren arabera jardungo da. Hezkuntza indartzeko programa amaitu duten ikasle guztiek jarraipen-programa indibidualizatua izan beharko dute ondorengo hiru ikasturteetan.

[↑Aurkibidea](#)

3.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historia bereziak dituzten ikasleak

a) Ospitale- edo etxe-arretako edo arreta terapeutiko-hezigarriko premiak dituzten ikasleak

[Abenduaren 20ko 266/2006 Dekretuaren](#) bidez, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu ziren. Zentro horien helburua da osasun-erakunde batean ospitaleratuta egoteagatik, etxeko ospitalizazioagatik edo hezkuntza-programa terapeutiko baten barruan egoteagatik medikuaren aginduz ikastetxera joan ezin diren ikasleei hezkuntza-laguntza ematea.

- **Ospitale-esparruko laguntza** EAeko ospitale jakin batzuetan dauden hezkuntza-laguntzako ikasgeletan eskainiko da. Ikasle batek ospitaleko tratamendua behar badu, arreta pedagogikoa ospitaleko ikasgelako irakasleak emango du. Irakasle hori ikastetxeko tutorearekin koordinatuko da.
- **Etxez etxeko laguntza irakasleek** emango dute, medikuaren aginduz ikastetxera joan ezin diren ikasleen etxeetan. Etxean arreta pedagogikoa jasotzen duen ikasle bat ospitalizatu beharko balitz, etxeko arreta pedagogikoko irakasleek jarraituko dute hari ospitalean arreta ematen.



Ikastetxeko zuzendariek, egoera horretan dagoen ikaslearen eskola-ikaskuntza eta sozializazioa ahalbidetzeko, [1998ko uztailaren 30eko Aginduaren](#) 35. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko dio. Agindu horren bidez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak eta ikasle horiek behar bezala eskolatzeko baliabide-hornidura ezartzen dira (1998-08-31ko EHAA).

- **Esparru terapeutiko- eta hezkuntza-esparruan**, hezkuntza-laguntza Osakidetzako Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zerbitzuarekin lankidetzan emango da, ezarritako lankidetzahitzarmenaren arabera. Arazo psikopatologiko larriak dituen ikasle batek tratamendu intentsiboa behar badu, OETHaren programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko proposatu ahal izango dute, HLBPko aholkularien eta Osakidetzako Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitateko aholkularien oniritziarekin.

Gainera, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, horretarako W67 aplikatiboan eskegita dauden dokumentuak kontutan hartu eta bete beharko dira:

- UTH-n sartzeko inklusio-baztertze irizpideak kontutan hartu.
- Gurasoaren edo legezko ordezkariaren berariazko baimena.
- Ikastetxetik UTHra bideratu beharreko txostena.
- Berritzegunetik UTHra bideratu beharreko txostena

Prozesua amaitzeko Balorazio Batzordeak erabakiko du ikaslea onartuta izango den ala ez. Zentro terapeutikoan aldi jakin baterako onartuko da, gehienez ikasturte oso baterako. Edonola ere, helburua da haurra edo nerabea bere eskola-ingurunera itzultzea.

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeak eta OETHko ikastetxeak koordinaziorako eta jarraipenerako bideak ezarri beharko dituzte. Halaber, ikaslea erreferentziako ikastetxera itzultzeko jarraitu beharreko estrategia adostu eta planifikatu beharko dute.

Ildo honetan ere, aintzat hartu behar da lehenago (jokabide nahasmendu larriak) adierazitako 2018ko maiatzean jarri zen abian [Hezkuntzaren eta Osasun Mentalaren arteko lankidetzaren esparru orokorra](#).

[↑Aurkibidea](#)

b) Gaixotasun minoritarioak, elikadura-alergia anizkoitzak eta beste gaixotasun batzuk dituzten ikasleak

Ikasle horientzat jaraitu beharreko protokoloa "[Osasun-arreta berezia eskola-orduetan](#)" zirkularrean jasota dago.

[↑Aurkibidea](#)

3.3. IKASTETXEEK HLBP-AK (ARRETAREN- EDO IKASKUNTZAREN NAHASMENDUA, HIZKUNTZAREN GARAPENAREN NAHASMENDUA, ADIMEN-GAITASUN HANDIAK) DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA

[Hezkuntza sailburuordearen 2020ko uztailaren 10eko Ebazpenaren](#) arabera ikastetxeak HLBP-ak dituzten ikasleei buruzko informazioa eguneratuta izan behar dute *W67 aplikazioan* biltzeko eta antolatzeko eta dagokien esku hartzea **Jarduera Plan Pertsonalizatuaren (JPP)** bitartez bideratzeko.



Plan hori irakasle tutoreek eta gainerako irakasle taldeek egingo dute, irakasle orientatzailearekin lankidetzan eta HLBPko aholkulariaren laguntzarekin.

Behin **Jarduera Plan Pertsonalizatua** garatua, bertan jaso diren neurriek ez balituzte beteko ezarritako helburuak, ikastetxeak ebaluazio psikopedagogikoaren eskaera egin beharko luke ikasleak behar duen berariazko hezkuntza-erantzuna jasotzeko.

[↑Aurkibidea](#)

3.4. EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA BERRITZEGUNEKO HLBPetako AHOLKULARITZARI

Ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoa egingo da, testuinguruaren eta baldintza pertsonal jakin batzuen arteko elkarreraginetik ikaslearen ikaskuntza-prozesurako sarbidea, iraupena eta parte-hartzea arriskuan jartzen duten oztupoak sortzen direnean.

Gogorarazi behar da, hala ere, ebaluazio psikopedagogikoa hezkuntzan esku hartzeko ezohiko prozesua dela. Soilik egin behar da irakasle tutoreek eta irakasle orientatzaileek egokitzen dituzten indartze-neurriak nahikoak izan ez direnean.

Ebaluazio horreek honako ezaugarriak izango ditu: diziplinarterkoa izango da, testuinguruan oinarrituta eta inplikaturiko profesional guztien lankidetzan ardatz.

Ikastetxeak eskaera hori zehaztuko du “**Ebaluazio psikopedagogikorako eskaera**” delako protokoloaren arabera. Protokolo hori aplikazio informatikoaren bidez (W67) egingo da. Eskaera-eredu eguneratua W67 direktorioan eskuragarri dago.

Nolanahi ere, ikasle bakoitzaren erreferente nagusia bere tutorea da. Horrek irakasle taldeko gainerako kideekin koordinatuta beteko ditu bere eginkizunak, baita, hala badagokio, bere ikasle-taldearekin esku har dezaketen gainerako profesionalekin koordinatuta eta, bereziki, irakasle orientatzailearekin lankidetzan ere.

[↑Aurkibidea](#)

3.5. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA

Curriculumaren egokitzapenak eta aparteko neurri guztiak HPBetako aplikazioaren bidez (W67) tramitatuko dira.

Ikasgela egonkorreko Curriculum Proiektua aurreko ikasturteetako prozedurari jarraituz tramitatuko da.

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren bidez (1998-07-13ko EHAA) eta dekretu hori garatzen duten aginduen bidez (1998-08-31ko EHAA) erregulatzen dira. Era berean, kontuan hartu behar dira [Norbanako Curriculum Egokitzapenei buruzko Hezkuntza sailburuordearen argibideak](#).

Batxilergoko ikasketen antolaketan arreta berezia eskainiko zaie hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei. Horretarako, ikasle horiek curriculumean sartzeari errazteko beharrezkoak diren antolaketa- eta metodologia-alternatibak eta aniztasunari arreta emateko neurriak ezarriko dira. Ebaluazioak egiteko garaian hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleek beharretara egokitzeko neurri egokienak ezarriko dira.



Lanbide Heziketan, ikasleak heziketa-ziklo bat egiten egon ahal izango dira, oro har, zikloari esleitutako kurtsoen bikoitza gainditzen ez duen gehieneko denboran. Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duen ikaslearen inguruabar pertsonalek hala gomendatzen dutenean irakaskuntza horien helburuak lortzeko, ikasle horiek ikasturte gehigarri bat eduki ahal izango dute, bai eta ikasturte bakoitzeko matrikula partziala ere. Inguruabar horiek iraunkorrak edo iragankorrak izan daitezke, eta behar bezala egiaztatu beharko dira. Era berean, curriculumaren egokitzapenak ezarriko dira, malgutze-neurrietan eta alternatiba metodologikoetan oinarrituta, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan eta ebaluazioan, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzat, bereziki adierazteko eta ulertzeko zailtasunak dituztenentzat; kasu horretan, ebaluazioak egindako egokitzapena izango du erreferentzia.

[↑Aurkibidea](#)

3.5.1. Curriculumera sartzeko egokitzapenak

Curriculumera sartzeko egokitzapenak erregistratuta geratu beharko dute ikasleen espedientean, eta hartutako neurriak bete beharrekoak izango dira.

Curriculumerako irisgarritasuna bermatuko duten ikasleen plangintzan, koordinazioan eta jarraipenean, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen eta irakasle ez diren langileen arteko lan koordinatua bermatu behar du.

Materialen irisgarritasunerako eta/edo egokitzapenerako baliabideen eskuragarritasuna kanpoko zerbitzuen mende dagoenean (Berritzegunea, Ikusteko urritasuna dutenentzako baliabidetegia), ikastetxeak behar besteko aurrerapenaz egingo du eskaera.

a) Curriculum-egokitzapen individual garrantzitsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GECp) aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak urriaren 21a baino lehen bidaliko ditu dagozkion proposamenak.
- HLBP aholkulariak azaroaren 11 baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 29a baino lehen bidaliko du oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak abenduaren 9a baino lehen jakinaraziko dio ikastetxeari curriculum-egokitzapena edo GECp onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, abenduaren 16a baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

b) Bigarren Hezkuntzan adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak urriaren 23a baino lehen tramitatuko du proposamena.
- HLBP aholkulariak azaroaren 13a baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 29a baino lehen bidaliko du oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak abenduaren 11 baino lehen jakinaraziko dio ikastetxeari neurria onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, abenduaren 18a baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.



c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak, etapa hasi aurretik, eskolatze-aldia aurreratzeko edo malgutzeko proposamena izapidetuko du 2024ko maiatzaren 27a baino lehen.
- HLBP aholkulariak 2024ko ekainaren 3a baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak 2024ko ekainaren 10a baino lehen bidaliko du bere oniritzia
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak 2024ko ekainaren 17a baino lehen tramitatuko du dokumentazioa
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak 2024ko ekainaren 24a baino lehen jakinaraziko dio ikastetxeari proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei horren berri eman diezaien, ebazpenaren kopia erantsita, 2023ko ekainaren 28a baino lehen.
- Malgutzeari dagokionez, Batxilergoa osatzen duten bi ikasturteak eskolatze-erregimenean egiteko, ikasturte horietako curriculuma osatzen duten jakintzagaiak multzotan zatitu ahal izango dira. Halakoetan, etapan egoteko urte kopurua bi urte luzatu ahal izango da. Malgutze hori derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapan edo hura osatzen duten bi ikasturteetako edozeinen hasieran eskatu ahal izango da.

d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek curriculumera sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak

- Baliabide materialak Berritzegunearen bidez eskatuko ditu ikastetxeak. Horretarako, HLBP aholkularitza-zerbitzuak dagokion ebaluazio psikopedagogikoa egingo du. Berritzeguneak premiak baloratuko ditu eta baliabideen proposamena Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari tramitatuko dio 2023ko **apirilaren 10a** baino lehen.
- Maileguan hartutako materiala mantentzea ikastetxearen ardura izango da, eta hura baldintza egokietan itzuli beharko da (horretarako, konpromiso hori zehaztuko duen dokumentua beteko da). Ikastetxeak ordaindu beharko ditu 150 eurotik beherako kostua duten curriculumera sartzeko beharrezko materialak.

e) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak

Desgaitasunarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek prestakuntza-ziklo bateko moduluak banatu ahal izango dituzte, horiek egiteko eta horien ebaluaziora eta kalifikaziora aurkezteko, eta ziklo horretako eskolatze arruntean aurreikusitakoaren denbora bikoitza izango dute.

- Ikastetxeko zuzendaritzak, ikasturtea hasi aurretik, eskolatzea malgutzeko proposamena tramitatuko dio Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari, maiatzaren 30a baino lehen.
- HLBPko aholkulariak txostena emango du ekainaren 5a baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak ekainaren 13a baino lehen bidaliko du oniritzia.



- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak ekainaren 20a baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.
- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ikastetxeari jakinaraziko dio proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei horren berri eman diezaien, ebazpenaren kopia erantsita, ekainaren 28a baino lehen.

[↑Aurkibidea](#)

3.6. CURRICULUM-ANIZTASUNAREN PROGRAMA

Curriculum anitzeko programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailan eskolatuta egonda ikasteko edo eskolara egokitze zailtasun nabarmenak nahiz ikaskuntza-erritmo desberdinak dituzten ikasleei zuzenduta daude (ez dira hor sartzen ikasteko ahalegin-faltaren ondoriozko arazoak). Ikasle horiei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntzea dute xede.

Ikastetxeak Curriculum anitzeko proiektuak garatzen baditu honako baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Jarraian zehazten den profila duten 8 ikasle izatea gutxienez, eta 15 gehienez: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila amaituta hirugarren mailara igartzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ikasturte berean beste urte batez egoteak ez diola mesederik egingo ikaslearen bilakaera akademikoari.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila amaitu duten eta aurreko paragrafoan aipatutako egoeran dauden ikasleak programaren lehen urterako proposatu ahal izango dira.
- c) Salbuespen gisa, programarako proposatu ahal izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horri esker titulua lortu ahal izango duela aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe (salbuespenez, 19 urte bete arte).
- d) Ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatuko du programan sartzeko proposatutako ikasle guztiek badutela Orientazio Departamentuaren ebaluazio akademikoa, ebaluazio psikopedagogikoa eta dagokion txostena.
- e) Programan sartu diren ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei informazioa emateko eta entzuteko konpromisoa hartzen du ikastetxeko zuzendaritzak.

Programa horietarako proposatzen diren ikasleen kopurua ezingo da inola ere izan DBHko 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasle guztien % 15 baino handiagoa, eta baimendutako taldeak bi izango dira gehienez, DBHko 3. eta 4. mailetan 300 ikasle baino gehiago matrikulatuta dituzten ikastetxeetan izan ezik.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak urtero proposatuko ditu CAko programetan sartzeko ikastetxeetako taldeak. Baliabide hori zehazteko, kontuan hartuko da eskualdean zer eskaintza dagoen CDko programetan eta gaur egun zein ikasle ari diren programan; halaber, aintzat hartuko dira gehieneko ikasle-kopuruari buruzko irizpideak.

[↑Aurkibidea](#)



3.7. ESKOLA-EGUTEGIA ETA –ORDUTEGIA

Ikastetxeko eskola kontseiluari dagokio ikasleen ohiko eskola-egutegia eta -ordutegia finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzeko arauak, ikastetxea zabalik egongo den denbora eta ikasleen ohiko eskola-ordutegitik kanpo egingo diren jarduerak errespetatuz.

Nolanahi ere, egutegi eta ordutegi arruntak [Hezkuntza sailburuordearen ebazpenaren](#) arabera ezarri beharko dira. Ebazpen horren bidez, arau osagarriak ematen dira 2024-2025 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoaren ikastetxe publikoetako eskola-egutegia egiteko.

Onartutako egutegia eta ordutegia ezingo dira aldatu ikasturtean zehar, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendutako salbuespenezko arrazoiengatik izan ezik.

Hurrengo ikasturteetarako ikastetxeko ordutegia aldatzeko, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen berariazko baimena beharko da, prozedura honen arabera:

- Ikastetxeko zuzendaritzak egingo du proposamena, eta eskola-egutegiari buruzko araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.
- Proposamena irakasleekin kontsultatu beharko da, baita ikastetxeko gurasoekin ere, eta sektore horietako bakoitzean onartu beharko da, emandako botoen 2/3eko gehiengo kualifikatuaz eta sektore bakoitzeko eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzaz.
- Proposamena ikastetxeko eskola kontseiluaren gehiengo osoz onartu beharko da.

Aurreko baldintzak bete ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan tramitatuko du 2025-2026 ikasturterako aldaketa-eskaera, 2025ko urtarrilaren 15a baino lehen. Lurralde Ordezkaritzak, egokituz jotzen dituen txostenak bildu ondoren, aldaketa hori baimendu edo ukatuko du ikastetxeak matrikulen aurre inskripzioak egin aurretik, ikastetxeak hurrengo ikasturterako ordutegi-aldaketaren berri eman diezaien eskola-komunitateko kide guztiei (gurasoak, ikasleak eta irakasleak).

[↑Aurkibidea](#)

3.7.1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskola-ordutegiak

2024-2025 ikasturteari begira ordutegiak egiteko garaian, kontuan hartu behar da DBH-rako [77/2023 Dekretuak](#) adierazten duena.

Maila bakoitzeko ikasgaien tipologia eta antolaketa honako taula honetan ageri da:

IKASGAIEN TIPOLOGIA	MAILAK		
	1.a	2.a	3.a
Ikasle guztiek nahitaez ikasi beharreko ikasgaiak	a) Euskara eta Literatura b) Gaztelania eta Literatura	a) Euskara eta Literatura b) Gaztelania eta Literatura c) Atzerriko Lehen Hizkuntza d) Matematika	a) Euskara eta Literatura b) Gaztelania eta Literatura c) Atzerriko Lehen Hizkuntza



	c) Atzerriko Lehen Hizkuntza d) Matematika e) Natura Zientziak f) Geografia eta Historia g) Gorputz Hezkuntza. h) Balio Zibiko eta Etikoa	e) Natura Zientziak f) Teknologia eta Digitalizazioa g) Geografia eta Historia h) Gorputz Hezkuntza	d) Matematika e) Biologia, Geologia f) Fisika eta Kimika g) Teknologia eta Digitalizazioa h) Geografia eta Historia i) Gorputz Hezkuntza
--	--	--	---

IKASGAIEN TIPOLOGIA	MAILAK		
	1.a	2.a	3.a
Ikasleek hautatzeko ikasgai bat gutxienez.	a) Ongizate Fisikoa eta b) Emozionala.* c) Teknologiaren eta Digitalizazioaren Hastapenak.* d) Atzerriko Bigarren Hizkuntza.* e) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak. * Ikastetxeak nahitaez eskaini beharreko ikasgaiak.	a) Ongizate fisikoa eta emozionala.* b) Pentsamendu kritiko eta autonomoaren hastapenak.* c) Atzerriko bigarren hizkuntza.* d) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak. * Ikastetxeak nahitaez eskaini beharreko ikasgaiak.	a) Ongizate fisikoa eta emozionala.* b) Pentsamendu kritiko eta autonomoaren hastapenak. c) Kultura klasikoa.* d) Kultura zientifikoa. e) Adierazpide artistikoa. f) Atzerriko bigarren hizkuntza.* g) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak. * Ikastetxeak nahitaez eskaini beharreko ikasgaiak.
1. mailatik 3. mailara ikasturte guztietan nahitaez eman beharrekoa ikasgaia	Musika eta/edo Hezkuntza Plastikoa eta Ikus-entzunezkoa. (horietako bakoitzerako ezarritako gutxieneko ordutegia errespetatuta)		

Biologia eta Geologia eta Fisika eta Kimikako ikasgaiak batera jorratuko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetan, Natur Zientzien ikasgaiaren barruan.

Laugarren mailan, ikasleek honako ikasgai hauen curriculum-edukia ikasiko dute:

IKASGAIK	4.a
Ikasle guztiek nahitaez ikasi beharreko ikasgaiak.	a) Euskara eta Literatura. b) Gaztelania eta Literatura. c) Atzerriko Lehen Hizkuntza. d) Geografia eta Historia. e) Matematika. f) Gorputz Hezkuntza.



<p>Ikasleek hautatzeko hiru ikasgai.</p>	<p>a) Biologia eta Geologia. b) Fisika eta Kimika. c) Latina. d) Digitalizazioa. e) Adierazpide Artistikoa. f) Teknologia. g) Prestakuntza eta Orientazio Pertsonala eta Profesionala. h) Musika. h) Atzerriko Bigarren Hizkuntza. i) Ekonomia eta Ekintzailtza.</p>
<p>Ikasleek hautatzeko ikasgai bat gutxienez. Gutxienez hiru eskaini beharko ditu ikastetxeak.</p>	<p>a) Arte Eszenikoak. b) Kultura Zientifikoa. c) Lanbide Jarduerari Aplikatutako Zientziak. d) Matematika Lantegia. e) Garapen Pertsonalari eta Sozialari Aplikatutako Filosofia. f) Ikastetxeari baimendu zaizkion hautazko ikasgaiak.</p>

Komunitateari zuzendutako proiektuak egingo direla ziurtatuko da (erlijioa jakintzagaietan matrikulatutako ikaslerik ez badago ere).

Ikastetxeak, bere autonomia erabiliz, etapako gutxieneko ordutegia oinarri hartuta ikastetxeko ordutegia osatuko du, beheagoko taulan adierazten den moduan:

- A zutabean jakintzagaien gutxieneko ordutegia
- B zutabean jakintzagaikako proposamena
- C zutabean eremukako proposamena: *eremu sozio-linguistikorako eta eremu zientifiko-teknologikorako*. Ikastetxeak, dena den, nahi dituen eremuak antola ditzake, betiere gutxieneko ordutegia errespetatuz

[↑Aurkibidea](#)



ASTEKO ORDUTEGIA	A				B				C			
	Gutxienekoa				Erreferentzia-JAKINTZAGAIIKA				Erreferentziakoa EREMUKA			
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
Bio- geo (natura zientziak 1. eta 2.)	3			**	3	3	2	**	8	9	2	**
Fis- Kim (natura zientziak 1. eta 2.)	3			**		3	**	2			**	
Matematika	8			2	4	4	3	3			4	3
Gorputz Hezkuntza	6			2	2	2	2	2	2	2	2	2
Geografia eta historia	6			2	3	3	3	3	9	9	3	3
Gaztelania eta Literatura	9			3	3	3	3	3			3	3
Euskara eta Literatura	9			3	3	3	3	3			3	3
Atzerriko lehen hizkuntza	6			3	3	3	3	3	3	3	3	3
Plastika, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza	3				1	2	0		0	2	1	0
Musika	3			**	2	1	1	**	2	1	0	**
Tutoretza	3			1	1	1	1	1	1	1	1	1
Erlijioa/ Proiektu komunitarioa	3			1	1	1	1	1	1	1	1	1
Teknologia				**				**			0	**
Teknologia eta digitalizazioa		5				2	3		0		3	0
Balio etikoak eta zibikoak	2				2				2	0	0	0
Hautazkoa	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Atzerriko 2. Hizkuntza				**				**				**
Ekonomia eta ekintzaitza				**				**				**
Adierazpin artistikoa				**				**				**
Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala				**				**				**
Latina				**				**				**
Digitalizazioa				**				**				**
Ikastetxearen eskaintza propioa	15			2								
GUZTIRA	90			21	30	30	30	21	30	30	30	21



3.7.2. Batxilergoko ikasleen ordutegia.

2023-2024 ikasturteari begira, ordutegiak egiteko garaian, kontuan hartu behar da Batxilergorako [76/2023 DEKRETUA](#) adierazten duena.

Eguneko erregimeneko Batxilergoko ikasleen asteko ordutegia ikastetxeak berak ezarriko du, indarrean dagoen araudian ezarritako gutxieneoak errespetatuz.

	ASTEKO ORDUTEGIA	Gutxieneko ordutegia		Erreferentziazko ordutegia	
		1º	2º	1º	2º
KOMUNAK	Heziketa Fisikoa	2	0	2	0
	Filosofía	3	0	3	0
	Gaztelera eta literatura	3	3	3	3
	Euskara eta literatura	3	3	3	3
	Atzerriko hizkuntza	3	3	3	3
	Filosofiaren historia		3		3
	Espainiako historia		3		3
MODALITATEKOAK 1. MAILA	Matematika orokorra				
	Matematika I				
	GZ Matematika I				
	Latina I	3	0	4	0
	Marrazketa Artistikoa I				
	Analisi musikala I				
	Arte Eszenikoak I				
MODALITATEKOAK 2. MAILA	Zientzia orokorrak				
	Matematika II				
	GZ Matematika II				
	Latina II	0	3	0	4
	Marrazketa Artistikoa II				
	Analisi musikala II				
	Arte Eszenikoak II				
Modalitatekoak	Gutxienez hiru orduko bi jakintzagai	6	6	8	8
Hautazkoak (horietako batek ikastetxeak ematen dituen modalitateko ikasgaien ordutegia bera izan behar du)	Gutxienez bi orduko jakintzagai bat	2		2	
	Gutxienez hiru orduko jakintzagai	3	3	4	4
	Tutoretza	1	1	1	1
	Zentroaren eskaintza propioa	4	4	0	0



Erljioa/Komunitaterako proiektua tutoreak eman beharko du/Eskaintza propioa	1	1	1	1
Guztira	34	33	34	33

Tutoretza 2024-2025 ikasturtean derrigorrez eskainiko da.

Erljioko ikaslerik ez badago, ez da beharrezkoa izango **Komunitateari Zuzendutako Proiektuak** egitea (hala ere, ikastetxeak nahi izanez gero, eskaini ahal izango du).

Batxilergoko hautazko jakintzagaien eskaintza Saitetik egindako proposamena eta ikastetxeak berak egiten duen proposamenarekin eratuko da.

Hautazko jakintzagaien eskaintzari dagokionez, modalitateko jakintzagairen bat hautazko jakintzagai gisa eskainiz gero, ikastetxean modalitateko jakintzagaiak duen ordu-karga bera izango du. Modalitateko jakintzagai gisa duen talderik ez balego, modalitateko jakintzagaiez bestelako ordu-karga batekin eman ahal izango da (betiere ordutegi minimoak betetzen badira).

[↑Aurkibidea](#)

3.7.3. Lanbide Heziketako ikasleen ordutegia

Erronketan oinarritutako ikasteko metodologia berriak ezarri ez diren zikloetan, 60 minutukoa izango da eskola-saio bakoitza; hala ere, zeharkako kompetentzien garapenarekin lotutako beste proiektu batzuk egiten direnean ikasleekin, astean egun bat hartu ahal izango da horretarako, gutxienez 55 minutuko 7 eskola-saio egiteko.

Erronketan oinarritutako ikasteko metodologia berriak ezarri diren zikloetan, egunean gutxienez 6 ordu eman beharko dira curriculumeko kompetentziak garatzen, atsedenaldirako ezarri den gutxienerako denbora errespetatuz (30 minutu).

Araudi horrekiko salbuespenak

Salbuespen gisa, Hezkuntzako dagokion lurralde-ordezkarriak baimena eman ahal izango du araudi horretan aldaketak egiteko, baldin eta aldaketa horiek behar-beharrezkoak badira ikastetxean ematen diren maila guztietako ikasleen eskola-garraioko zerbitzuak koordinatzeko edo garraio-eta/edo jantoki-zerbitzu berberak partekatzen dituzten ikastetxeetakoak koordinatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

3.8. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA

Ikasle guztien eskubidea eta betebeharra da eskolara bertaratzea, bai eguneko ikasketetan, bai gauekoetan. Inola ere ezin da borondatezko bertaratzea ezarri ikaslea matrikulatuta dagoen jakintzagaietan.

- Edozein arrazoi dela eta, egun jakin batzuetan ikasle gutxi joateak ez du ditu ikastetxea eta irakasleak salbuesten eskolak normaltasunez ematetik.
- Hutsegiteak gurasoek edo legezko tutoreek justifikatu beharko dituzte dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketaburutzak onartuko ditu. 18 urtetik gorako ikasleek



hutsegiteen beren egiaztagiriak aurkeztea erabakitzen badute, edozein lan-harremanetan eska daitezkeen egiaztagirien antzekoak aurkeztu beharko dituzte.

- DBHko ikasleei dagokienez, justifikatu gabeko hutsegiteak absentismo-jokabidetzat hartuko dira. Halakoetan, Hezkuntza Ikuskaritzak ikasturtearen hasieran horretarako jakinaraziko duen prozedurari jarraituko dio ikastetxeak. Nolanahi ere, ikastetxeak hutsegiteen berri emango dio zonako Ikuskaritzari, hilabete bakoitzaren 5a baino lehen, “Oharrak eta hutsegiteak” aplikazioan sortutako txostenaren bidez.
- Lehen adierazitako puntuak kontuan hartuta, eskola kontseiluak ikastetxeko AJAn finkatu beharko du ikasleen hutsegiteen erregulazioa eta horiek sorraraz ditzaketen neurri zuzentzaileak, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko [201/2008 Dekretuan](#) ezarritakoarekin bat etorriz.

Aipatutako 201/2008 Dekretuan ezarritako artikuluen arabera bidezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatzea bazter utzi gabe, Batxilergoan ohiko eta, ezohiko deialdietako azken proben bidez ebaluatu beharko dira ikasleak, baldin eta, hutsegite kopuru handia izateagatik, ezinezkoa bada ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodoak eta irizpideak aplikatzea.

Ikastetxeak ezarriko ditu proba horien ezaugarriak, eragiten dien jakintzagaiaren edo moduluaren izaeraren arabera, indarrean dagoen araudian xedatutakoa beteta betiere.

[↑Aurkibidea](#)

3.9. ERLIJIOA

Erlijioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Erlijio ofizialen eskaintza derrigorrezkoa da ikastetxearentzat, eta borondatezkoa, ikasleentzat. Ondorioz, gurasoek edo legezko tutoreek adieraziko dute onarpen eskaeretan irakaskuntza hori jasotzeko edo ez jasotzeko borondatea. Erabaki hori, kontrakoa berariaz adierazi ezean, hurrengo ikasturterako mantenduko da.

Ikastetxeak hurrengo ikasturteko plangintza egin baino lehen, apirilean, erlijio irakaskuntzen eskaerari buruzko informazio eguneratua jakinarazi beharko du onarpen eta matrikula aplikazioaren bidez.

Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko [Akordioan](#) ezarritakoari lotuko zaio erlijio katolikoaren irakaskuntza.

Beste erlijio batzuen irakaskuntza egokitu egingo da Espainiako Estatuak Espainiako Erljio [Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin](#), [Espainiako Komunitate Juduen Federazioarekin](#) eta [Espainiako Batzorde Islamikoarekin](#) egindako lankidetzak-akordioetan eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakora.

[↑Aurkibidea](#)



3.10. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Ebaluazioa kudeatzeko garaian erreferente izango dira:

- [AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxillergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.](#)
- Ikasturte Amaierako dokumentazio akademikoa.

[↑Aurkibidea](#)

3.11. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Ebaluazio diagnostikoak Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe guztien artean partekatutako erantzukizuna dira, [oinarrizko irakaskuntzen curriculumari buruzko Dekretuaren](#) 41. artikulua arabera, eta hobetzeko aukera eta erronka gisa ulertu behar dira ikastetxeen eta euskal hezkuntza-sistema osoaren aldetik.

Testuinguru horretan, zuzendaritza-taldearen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen erantzukizuna da ebaluazio horiek egin daitezkeen bermatzea eta emandako informazioa behar bezala tratatzea. Informazio hori diskrezio handienarekin tratatuko da, eta ikastetxeko hezkuntza-komunitateko edozein kidek ezin izango du argitaratu, ez banaka, ez modu kolektiboan.

[↑Aurkibidea](#)

3.11.1. ETAPA ERDIKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2024-2025 ikasturtean izaera zentzuala duen etapa erdiko ebaluazio diagnostikoa egingo da.

Ebaluazio diagnostiko hori nahitaez bete beharrekoa da, baina ez du ondorio akademikorik ikasleentzat. Funtz publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan egingo da, eta helburu du kompetentzia-maila egiaztatzea eta maila hori hobetzeko neurri egokiak ezartzea. Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio ikasleen eta irakaskuntzaren ebaluazio-prozesua nola garatzen den gainbegiratzea.

[↑Aurkibidea](#)

3.11.2. PISA

ELGaren PISA proiektua nazioarteko ebaluazio estandarizatua da, 15 urteko ikasleei egiten zaiena. 2000. urtean, 32 estatuk hartu zuten parte; 41ek, 2003an; 57k, 2006an; eta 2009an, 63 estatuk. Eta kopurua goraka doa azken urte hauetan. Hiru arlotan ebaluatzen da errendimendua: Irakurketa, Matematika, eta Zientziak.

PISA 2025ek **zientzia** izango du domeinu nagusi, baita matematikaren eta irakurketaren arloko kompetentziak ere, eta **atzerriko hizkuntzaren nazioarteko ebaluazioa** barne hartuko du (lehen ziklo honetan ingelesa izango da). Halaber, **mundu digitaleko ikaskuntza** ere ebaluatuko da jakintza berrizaitzat. Horren helburua da ikasleek baliabide digitalen bidez arazoak konpontzeko duten gaitasuna neurtzea eta ikaskuntzaren autoerregulazio-maila ezagutzea.





4. IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZAKO PERTSONALA

Irakasleen kompetentzia-profila [77/2023 Dekretuaren](#) 20. artikuluan eta [76/2023 Dekretua](#), 24. artikuluan dago jasota. Gainera, atal honetarako, kontuan hartuko da honako hauetan jasotakoa: [Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legean](#), abenduaren 1ekoa; [LOEren](#) 91. artikuluan; eta, [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan](#) (batez ere, funtzionarioen eskubide eta betebeharre, falta eta zehapenei, kode deontologikoari eta abarri dagokienez) eta indarrean dauden lan-akordio eta -hitzarmenetan.

[↑Aurkibidea](#)

4.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA

Zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran, gai hori erregulatzen duten arauen arabera.

Ikastetxeko zuzendaritzak moldakortasun- eta egokitasun-printzipioen arabera egin beharko ditu esleipen guztiak, kontuan hartuta ikastetxearen antolaketa onena eta ikasleen beharrak, sailen eta irakasleen proposamenak entzun ondoren.

Ikasketaburutzak irakasle bakoitzari esleituko dizkio eman beharreko ikastaroak eta taldeak, zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideak kontuan hartuta eta irakasleei jakintzagaiak esleitzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa errespetatuz.

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza-kudeaketarako esleitutako zereginak eta ordu-kreditua banatzea IUPean jasotako proiektuen ardura duten pertsonen artean.

Zuzendaritza-taldeak egin beharreko zereginak esleitu ondoren, nahitaez bete beharko dira. Dena den, zuzendaritza-taldeak behar diren aldaketak egin ahal izango ditu ikasturte hasieran aurreikusi gabeko beharrei erantzuteko, behar bezala justifikatuta eta zentroko langileen lan-eskubideak errespetatuta.

[↑Aurkibidea](#)

4.1.1.- Jakintzagaiak eta taldeak banatzea

Jakintzagaiak eta taldeak esleitzeko, kontuan hartuko dira irakaskuntza-eginkizuna eta -esleipena erregulatzen duten arauak, langileak atxikita dauden lanpostua, ekitate-irizpideak eta irakaskuntzaren kalitatea bilatzeko irizpideak, baita honako irizpide hauek ere:

- DBHko hezkuntza-ekintzak ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak ikuspegi globaletik integratuko ditu. Horretarako, ahal den heinean, jakintzagaiak irakaskuntza-eremuka antolatuko dira. Sor litezkeen berariazko irakaskuntza-eremuak, eremu horietan txertatzen den edozein jakintzagai emateko baldintzak betetzen dituzten irakasleek emango dituzte.
- Ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleei zailtasun handiena dakarten edo jarraipen espezifiko behar duten taldeak esleitzea bultzatuko da.



- DBHn, halaber, taldean esku hartzen duten irakasleen kopurua antolaketa-neurrien bidez murrizten saiatuko da.
- Eguneko eta gaueko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan, bi txandak irakasle bakar bati esleitu ahal izango zaizkio, baldin eta bestelako antolaketa-aukerarik ez badago. Ikasketaburutzak bere eginkizunak betetzen dituen txandan eman beharko ditu eskolak.
- DBHko lehen eta bigarren mailetako maisu-maistrek maila horietan bakarrik eman ditzakete eskolak, eta lehentasuna dute horietan irakasteko.

[↑Aurkibidea](#)

4.1.2. Irakasleen ordutegiak prestatzea

Irakasle bakoitzari dagozkion taldeak esleitu ondoren, ikasketaburutzak klaustroak ezarritako irizpide pedagogikoen arabera prestatuko ditu ordutegiak, eta irizpide horiek AJAn jaso beharko dira.

Ordutegiak prestatzeko garaian, ahal den neurrian, eta lehen aipatutako irizpideei jarraituz betiere, bereziki kontuan hartuko da eskolak txanda desberdinetan (goizez, arratsaldez, gauez) eta ikastetxe eta/edo eraikin desberdinetan eman behar dituzten irakasleen egoera; tokiko batzordeetan nahiz Berritzegune Nagusitik eskaintzen diren formazio-jardueretan (mintegiak, ...) parte hartu behar dutenena; gaixotasun kronikoa edo mugikortasun-arazoak dituzten senideei arreta emateko baimena duten irakasleena; etab. Hala, saiatu behar da ordutegiak prestatzen inguruabar horiek irakasle horiei ahalik eta eragozpen txikienak sortzeko moduan

Ordutegia osatu ondoren, hori ezin izango da aldatu irakasleek izan ditzaketen lehentasunengatik, salbuespenak salbuespen.

[↑Aurkibidea](#)

4.1.3. Jakintzagaien eta taldeen banaketa eta ikastetxearen ordutegia onartzea eta jendaurrean jartzea

Irakasleek nahitaez bete behar dute ikasketaburutzak prestatutako eta zuzendaritzak onartutako jakintzagaien, taldeen eta ordutegiaren esleipena.

Ikastetxearen ordutegia une oro agerian, ongi ikusteko lekuan, eduki behar da beti, irakasle-gelako eta ikasketaburuaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean. Halaber, zuzendaritza-kargu bakoitza ikastetxean egongo den ordutegia adierazi behar da bertan.

Gainera, ikastetxeko eskola kontseiluaren eskura egon behar du, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

[↑Aurkibidea](#)



4.2.- URTEKO LANALDIA

Lanaldi eta egutegi motak edozein direla ere, **irakasleen dedikazio-erregimena 1.462 ordukoa** izango da.

Ebazpen honetan erregulatu egiten da asteko lanaldiko jarduna, lanaldi horren banaketa curriculumare emateko ordutegian, ordutegi osagarria eta ikastetxean egoteko ordutegia.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen [akordioaren](#) (34. artikuluan) eta [Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren](#) (50. artikuluan) arabera, irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak izateko, edo proportzioan dagozkion egunetakoak, urtean zehar zerbitzu-denbora laburragoa balitz. Ondorio horietarako, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Oporraldi hori urte bakoitzeko abuztuan zehaztuko da. Iraileko lehen lanegunean, irakasle guztiek beren ikastetxean eta beren lanpostuan egon beharko dute.

Oporraldia eten ahal izango da gaixotasun edo istripuren bat gertatzen bada, eta interesdunak oporraldia osatzeko eskubidea izango du, inguruabar horiek desagertu eta medikuaren alta jaso ondoren. Hartu gabeko oporraldia aldi bakarrean hartuko da, ahal dela, eskolarik eman behar ez denean.

[↑Aurkibidea](#)

4.3.- ASTEKO LANALDIA

4.3.1. Dedikazio arrunta duten irakasleak

Irakasleek ikastetxean astean **30 orduko zuzeneko dedikazio arrunta** izango dute.

Astean gutxienez **23 ordu ikastetxeko ohiko egonaldikoak** izango dira, eta ordu horien artean daude:

- Curriculumare irakasteko orduak eta hezkuntza-errefortzuko orduak (gehienez 18 ordu astean)
- Ikasleekiko banakako tutoretza-orduak
- Hezkuntza-arreta orduak, jolasgaraiko zaintzak barne
- Gurasoei edo legezko tutorei arreta emateko orduak
- Didaktika-departamentuaren bilera
- IUPan zehaztutako prestakuntza planak gauzatzeko jarduerak
- ...

Ikastetxean zuzenean dedikatu beharreko **asteko gainerako 7 orduetan**, besteak beste, hauek egingo dira:

- Ikastetxea planifikatzeko eta antolatzeko tresnak prestatu; besteak beste, IHPa eguneratu, IPDa egin, IHIPa berrikusi, ...
- Ikastetxearen berrikuntza proiektu aurrera eramane; adibidez [Hedatze](#) proiektua.



- Departamentu bilera osagarriak egin, programazio didaktikoak curriculum berrira egokitzen joateko, ebaluazio-eredua aztertzeke, eremuak ezartzeko beharrezkoa den planifikazioa eta jarraipena egitea...
- IUPan zehaztutako formazio plana gauzatu
- Gelako irakasle taldearen koordinazio bilerak egin
- Mailako tutoreen bilerak antolatu ikastetxeko orientatzailearekin, tutoretza-orientazio plana egokitzeke, ikasleen ongizate-emozionala zaintze aldera neurriak hartzeke,...
- Kide anitzeko organoen bilerak gauzatu
- Ebaluazio-bilerak egin
- ...

Ikastetxean zuzenean dedikatu beharreko ordu horien barruan, zuzendaritzak **irakasle guztiak aldi berean egoteko aldi jakin batzuk** ezarri ahal izango ditu, irakasle guztiak batera egotea eskatzen duten koordinazio-lanak egiteko, hala nola ikastetxeko formazio-planetik erator daitezkeenak. Irakasle guztien aldi bereko egonaldi horiek ikastetxeko zuzendaritzak zehaztuko ditu ikasturtearen hasieran, eta hilean edo astean behin ezarri ahal izango dira.

7 ordu horien plangintza zehatza IUPan jaso beharko da.

Gainerako orduak, ikastetxean zuzenean dedikatu behar ez diren ordutzat hartzen direnak (1.462 ordu gehienez), irakaskuntza-jarduerak prestatzera, azterketak zuzentzera, borondatezko eta banakako lanbide-hobekuntzara eta irakaskuntza-eginkizunarekin lotutako beste gai batzuetara zuzenduko da.

Ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du **jolasgaraietan** edo jolasgaraietan ikasleei eman beharreko arreta, eta jolastokietan eta ikastetxeko beste gela batzuetan dauden ikasle guztien zaintza eta jagoletza aktiboa bermatzeko behar diren irakasleen kopurua esleituko dio zeregin horri. Ikasleen adinaren eta artatu beharreko espazioaren ezaugarrien arabera zehaztuko da irakasle/ikasle ratioa.

Heziketa-zikloetako moduluen sekuentziazio egoki eta koherentea lortzeko, modulu horiek ematen dituzten irakasleek, ikasturteko aldi jakin batzuetan, asteko 25 eskola-ordu eduki ahal izango dituzte gehienez, betiere erreferentziatzat hartuta urtean ematea dagokien curriculum-orduen guztizko kopurua, duten dedikazio motaren arabera.

[↑Aurkibidea](#)

a) Hezkuntza-laguntza

Ikastetxearen Aniztasunari Erantzuteko Planak IUPan zehaztuko du zeregin horretarako erabiliko den ordu-kreditua, eta aniztasun horri ikuspegi integratzailetik erantzuteko eta ikastetxeko giza baliabideak modurik eraginkorrean aprobetxatzeko ekintza eta estrategia egokienak, adibidez:

- Jarduera-talde batean irakasle bat baino gehiago egotea
- Aurreko zikloko kompetentzia batzuk eskuratu ez dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna ematea



- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen ohiko eskola ordutegitik kanpoko hezkuntza indartzea
- Talde-banaketa ikasgai batzuetan
- Etxez etxeko irakaskuntza behar duten ikasleentzako laguntza pedagogikoa. Ezarritako koordinazioa
- Ikasturte osoan eskolatze berriek sortzen dituzten beharrei erantzuteko ordu-kreditua aldatzeko aukera

[↑Aurkibidea](#)

b) Lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa familia eta lana kontziliatzeko eskatu bada, ikastetxeko zuzendaria ahaleginduko da interesdunaren ordutegia eskatutako kontziliazioaren arabera izan dadin, **baldin eta horrek ez badu eragin negatiborik ikasleen arretan.**

Lanaldiaren 1/2ko murrizketa

Lanaldi efektiboa 1/2 murriztuz gero, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 15 orduko lanaldia izango dute, eta horietatik asteko 10 irakasteko eta curriculum emateko izango dira (8 edo 9 eskola-ordu eta 2 edo 1 tutoretza-zaintza, hurrenez hurren). Bai ordu horiek, bai ikastetxean egoteko gainerako 5 orduak —asteko lanaldia osatzen dutenak—, bai ikastetxean zuzenean dedikatzen ez diren gainerako orduak 4.3.1. atalean aipatzen diren zereginetara bideratuko dira, eta arreta berezia jarriko da formazio-denboran, zuzendaritzak hala irizten badio.

Lanaldiaren 1/3ko murriztea

Lanaldi efektiboa 1/3 murriztuz gero, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 20 orduko lanaldia izango dute, eta horietatik asteko 13 irakasteko eta curriculum emateko izango dira (11 edo 12 eskola-ordu eta 2 edo 1 tutoretza-zaintza, hurrenez hurren). Bai ordu horiek, bai asteko lanaldia osatzen duten gainerako 7 orduak, bai ikastetxean zuzenean dedikatzen ez diren gainerako orduak 4.3.1. atalean aipatzen diren zereginetara bideratuko dira, eta arreta berezia jarriko da formazio-denboran, zuzendaritzak hala irizten badio.

Lanaldiaren 1/3 duten irakasleen ordutegia

Irakasle horien ordutegia asteko 10 ordukoa izango da, eta horietatik 8 irakaskuntza-dedikaziokoak izango dira. Ordutegi horrek irakasle titularrarena osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta gera dadin.

Osasun-arazo larriengatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak dituzten irakasleek lanaldiaren heren bateko murrizketa badute, zuzeneko irakaskuntza-orduak astean 6 ordu murriztu ahal izango dituzte. Murrizketa horrek ez du esan nahi ikastetxean egoteko ordutegia murriztuko denik.

Murrizketa-ordu horiek zuzendu beharko dituzte zereginak egitera, liburutegiko lanetara, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzen laguntzera, hezkuntza-



arretako zereginetara eta ikastetxeko zuzendaritzak eskatzen dizkien antzeko beste lan batzuetara. Jarduera horietan emandako orduak beren ordutegi pertsonalean jasoaraziko dira.

Gaixotasun kronikoa duten senideei arreta emateko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senide bat zaintzeko baimena —indarrean dagoen erabaki arauemailean jasotakoa— duten irakasleek gehienez 50 orduko baimena izango dute ikasturte bakoitzeko. Baimen hori ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta baliatu behar da, eskatzaileak ematen duen zerbitzuaren beharrak beteta gera daitezen, eta baimen hori gauzatzeko garaian, behar den koherentzia pedagogikoa eta antolamendukoa bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegiak prestatzean, ikasleenganako zuzeneko dedikaziokoak ez diren haien orduak banatzeko, kontuan hartuko dira baimen hori eman zaien pertsonen adierazitako beharrak. Baimen horrek ez dakar berekin aldeztatik ezarritako ordutegia aldatzeko eskubiderik.

Eskatzailearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean desadostasunik badago baimen hori baliatzeari dagokionez, eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazioa jarri ahal izango du Hezkuntzako lurralde-ordezkararen aurrean, eta horrek ebatziko du erreklamazioa, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

[↑Aurkibidea](#)

c) Ezohiko egoerak

- Zuzendaritza-karguak dituzten irakasleek kargua betetzeko orduak har ditzakete hezkuntza-arretako orduen ordez, betiere hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala betetzen badira.
- Didaktika-departamentu bateko irakasleek beste departamentu bateko jakintzagaiak ematen badituzte, zuzendaritzak baimena eman ahal izango die hezkuntza-arretako orduetako bat bigarren departamentuaren bileretako orduekin ordezkatzeko.
- Irakasle batek oro har ezarritakoak baino eskola-ordu gehiago eman behar baditu astean, soberakina kendu egingo zaio hezkuntza-arretako ordutegitik.
- Zuzendaritzak irakasleren baten hezkuntza-arretako orduak beste jarduera espezifiko batzuekin trukatu ahal izango ditu, betiere hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala betetzen badira.
- Irakasle batek, zerbitzuaren premiak direla-eta, tutoretza bat eta beste kargu bat betetzen duenean, hezkuntza-arretako orduen ordez, bigarren karguaz arduratzeko orduak ezarriko dira, betiere hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala betetzen badira. Ordainsariari dagokienez, karguetako baten osagarri espezifikoa soilik kobratuko da, eta erabaki hori dagokion irakaslearen esku geratuko da.



- Ikastetxeko hezkuntza-arretarako ordutegi bat antolatu beharko da beharrak betetzeko, ikastetxearen tamainaren eta ematen dituen hezkuntza-etapen arabera, arreta berezia jarrita jardunaldi bakoitzeko lehen eta azken saioetan. Eskakizun hori betetzeko, zuzendariak irakasleen hezkuntza-arretako orduak gehitu ahal izango ditu, behar izanez gero.
- Irakasleren batek irakaskuntza-dedikazioko orduen gutxieneko kopurua betetzen ez badu eta bere ordutegia beste ikastetxe batean osatu behar badu, inguruabar hori kontuan hartuko da bere ordutegiak prestatzeko garaian. Ahalegina egingo da egun berean ikastetxe desberdinetan eskolak eman behar ez izateko, eta, hori ezinezkoa denean, joan-etorrien denbora islatu egingo da hezkuntza-arretako orduen eta ikastetxean egon beharreko ohiko beste ordu batzuen murrizketan.

[↑Aurkibidea](#)

d) Irakasleen ordutegi pertsonala

Ikastetxeko egonaldi arrunteko orduak asteko egun guztien artean banatuko dira.

Egunero gutxienez hiru orduz egon beharko dute ikastetxean, astelehenetik ostiralera, lanaldi osoa duten irakasleek. Lanaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 duten irakasleek, berriz, ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharko dute gutxienez lau, hiru eta bi egunez, hurrenez hurren. DBHko eta Batxilergoko irakasleek egunean gehienez 5 eskola eman ahal izango dituzte, eta heziketa-zikloetakoek egunean gehienez 6 eskola-ordu.

Enpresako prestakuntzaren tutoretza-orduak (Lantokiko prestakuntza —LP—, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala), ondorio guztietarako, curriculum emateko ordutzat hartuko dira. Hala, ikasketaburutzari bisita-plan bat eta ordutegi hori erabiltzeko plan bat aurkeztu beharko zaizkio behar besteko aurrerapenaz. Lantokiak ikastetxetik urrun egonez gero, komunikabide seguru eta egiaztagarriak erabilia bermatuko da jarraipena betiere. Lantokiko prestakuntza edo Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala egiteko aldia amaitzean, tutore bakoitzak memoria bat aurkeztuko du. Memoria horretan jaso egingo dira jarraipena eta ebaluazioa (LPko tutorearen kasuan), eta proiektu bat eta memoria bat, jarraipena eta ebaluazioa bilduko dituen (Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Dualeko tutorearen kasuan). Memoria horretan, tutoretza-zereginetan egindako jarduera azalduko da.

[↑Aurkibidea](#)

e) Gorputz hezkuntzako, Musikako eta Plastika eta Ikus-hezkuntzako irakasleak

Ikastetxeko hezkuntza-arretako behar adina irakasle baldin badago, Gorputz Hezkuntzako, Musikako eta Plastika eta Ikus-hezkuntzako irakasleen hezkuntza-arretako orduak, inplikaturako irakasleen berriazko baimenarekin, eskolaz kanpoko ordutegian egin beharko diren eta jakintzagai horiekin lotuta dauden eskolaz kanpoko jardueretako ordu bihurtu ahal izango dira.

Neurri hori aplikatu ahal izateko, bermatu beharko da ikastetxeko hezkuntza-arretako ordu guztiak behar bezala emango direla, eta ikastetxeko beste irakasle batek ere ez dituela astean hiru ordu baino gehiago eman beharko hezkuntza-arretan.

[↑Aurkibidea](#)



f) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak

Beren eginkizunak Hezkuntza, [Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduan](#) zehazten dira (abuztuaren 31ko EHAA). Gainerako irakasleek bezala egingo dute beren lanaldia, eta adierazitako eginkizun guztiak betetzen emango dute dagokien ordutegia, ikasleekin esku hartzeari lehentasuna emanez.

Profesional horiek gela arruntetan esku hartuko dute, salbuespenak salbuespen. Salbuespen horiek Hezkuntza Ikuskaritzak bermatu beharko ditu, eta ikaslearentzako hezkuntza-proposamenean behar bezala justifikatuta egingo dira. Hala ere, esku-hartze hori gela arruntz bestelako espazio batean egitea eskatzen duten inguruabarrak daudenean, gela hori kanpotik ikusi ahal izango da.

Hezkuntza-premia bereziak babesteko profesional espezifikokoak

Ikastetxeetako zuzendaritzek profesional horien lan koordinatua bermatu behar dute plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipenean. Horien artean, honako hauek daude: PT irakasleak, entzumen eta hizkuntzako irakasleak, fisioterapeutak, t, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBTko profesionalak, gor-itsutasuneko bitartekariak, gorren koordinatzaileak...

Hezkuntza-laguntzako espezialista (HLE), fisioterapiako espezialista, okupazio terapiako espezialista, zeinu-hizkuntzako interprete (ZHI) eta logopeda diren hezitzaile lan-kontratudunei dagokienez, eta entzumen eta hizkuntzako (EHI) irakasleei dagokienez; ikastetxeak ikasturtea antolatzeko aintzat hartuko ditu Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariaren [jarraibideak](#)

[↑Aurkibidea](#)

g) Hizkuntza indartzeko irakasleak eta Eusle irakasleak

Ikastetxeko zuzendariak **HIPIa izendatuko** du klaustroko irakasleen artean, behar bezala arazoitutako salbuespenetan izan ezik, **baldintza** hauek betetzen dituztenak:

- Ikastetxean bi ikasturte oso baino gehiago emandako irakasleak izatea
- Hizkuntzen irakaskuntzan esperientzia duten irakasleak izatea edota gairekiko jarrera baikorra duen irakasleren bat.

Gainera,

- Ikastetxeko zuzendaritzak denbora bermatuko du hizkuntza indartzeko irakasleen eta gainerako profesionalen (irakasle tutoreak, irakasle orientatzaileak, etab.) arteko koordinaziorako (EJDan islatuko dira).
- Ikastetxeko zuzendaritzak denbora emango du hizkuntza-errefortzuko irakasleen eta, halakorik bada, Eusle irakasleen arteko koordinaziorako (EJDan islatuko dira), bi profesionalek adostutako irizpide metodologikoekin lan egiteko.



- Hizkuntza-indartzeko irakasleen hezkuntza-esku-hartzea Aniztasunari Arreta Emateko Planean (mailak, arreta ematen duten ikasleak, esku-hartze mota, jarraipena eta ebaluazioa gainerako profesionalekin koordinatuta...) eta Ikastetxearen Urteko Planean islatu beharko da.
- Berritzegune Nagusiak antolatzen duen hasierako formazioan edo etengabeko formazioan parte hartuko dute hizkuntza-errefortzuko irakasleek.
- Hizkuntza-programazioa ikasleen premietara egokitzea eta A2 mailara lortzera bideratzea
- Zuzeneko irakaskuntza-lana ikasle-taldeekin egin beharko da (ez banaka), eta ikasle bakoitzari gutxienez 5 eskola-saio eman beharko zaizkio

Eusle-irakasleek, aurreko eginkizunez gain, honakoak izango dituzte:

- Bere jardunaldi osoa Eusle gelako ikasleen arreta eta premietara bideratzea
- Hasierako balorazioa egitea (ongizate emozionala, hizkuntza eta matematika) beste irakasleekin koordinatuta
- Alfabetatu gabeko ikasle berririk izanez gero, edo prozesuan daudenak Pedagogia terapeutikoko irakaslearen edo ikastetxeko irakasle-orientatzailearekin eskuhartzea antolatzea
- Ikastetxe Talde Dinamizatzailearen partaide izatea
- Hizkuntza-programazioa ikasleen premietara egokitzea eta A2 mailara lortzera bideratzea
- Programako eta ikastetxeko formazio saioetan parte hartzea
- Programaren barruan proposatzen diren programazioa eta material didaktikoak abian jartzea eta, hala badagokio, egokitzea eta berriak prestatzea, betiere programaren printzipio metodologikoei jarraituz.

[↑Aurkibidea](#)

h) Erlijioiko irakasleak

Klaustroko kide dira ondorio guztietarako, eta gainerakoen eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, indarrean dagoen legerian eta araudian zehaztutako eta kontratu-inguruabar espezifikoen ondoriozko salbuespenekin.

Erlijioiko irakasleek jakintzagai horri dagozkion orduak emango dituzte, eta, behar izanez gero, ikastetxeko zuzendaritzak esleitutako beste irakaskuntza-jarduera batzuekin osatuko dute beren ordutegia.

[↑Aurkibidea](#)

4.4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE BATZUK

4.4.1. Zuzendaritza-taldea

Zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak eta, dagokionean, administratzaileak osatuko dute zuzendaritza-taldea.



Ebazpen honetan xedatutakoaren arabera zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketak kalkulatu ondoren, behar adina ordu libre dauden ikastetxeetan, zuzendari laguntzaile bat (zuzendariordea), ikasketaburu laguntzaile bat eta idazkari laguntzaile bat egon daitezke.

Eskolak gauzez ematen dituzten ikastetxeetan, gaueko ikasketaburua.

[↑Aurkibidea](#)

4.4.2. Zuzendaritzakoak ez diren beste kargu batzuk

Zuzendaritzakoak ez diren kargu hauek ere egongo dira ikastetxean:

- a) [BeA figurak eta BODi irakasleak](#)
- b) [Ikastetxeak ikastegia baditu, irakasle ordezkaria](#)
- c) [Ikastetxeak DBH eta beste hezkuntza-etaparen bat \(Lehen Hezkuntza, Batxilergoa edo heziketa- zikloak\) ematen badu, DBHko koordinatzailea](#)
- d) [BAT taldeko koordinatzailea](#)
- e) [Eraldatzen koordinatzailea](#)
- f) [Mentoreak](#)

Ikastetxeak koordinaziorako beste kargu batzuk izendatu ahal izango ditu, bere AJAn ezarritako irizpide eta prozedurekin bat. Irakasle horien ordutegi-murrizketak ikastetxean eskuragarri dauden orduen arabera izango dira.

[↑Aurkibidea](#)

a) BeA figura eta BODi irakasleak.

Figura horiei buruzko informazioa ikastetxe publikoetako [hezkuntza-berrikuntzako arduradunei buruzko jarraibideetan](#) dago jasota (BeA figuras), 2024-2025 ikasturterako. BeA figuren izendapenean ikasturtean egiten den edozein aldaketa jarraibideetan araututako baliozkotze-batzordeak onartu beharko du.

Zuzendari batek BeA figura aldatu behar badu gerora sortutako arrazoiren batengatik, dagokion eraginguneko arduradunari eskatu beharko dio aldaketa hori. Aldaketa behar bezala justifikatu behar da, eta BeA figura gisa proposatutako pertsonak 2024-2025 ikasturterako BeA figuren jarraibideetan ezarritako baldintzak bete behar ditu.

Baldin eta BeA figura batek baja bat badu ikasturtean zehar, irizpide orokor gisa, ez da ordezkaturako, bi zirkunstantzia hauetakoren bat (edo biak) gertatu ezean:

- BeA figurak irakaskuntza-dedikazioko orduak baditu, ordu horiek ordezkotzeko pertsona batekin beteko dira, ordezkapenei buruzko araudi orokorrari jarraituz.
- BeA figuraren bajak bi hilabete edo gehiago iraungo duela aurreikusten bada, ikastetxeko zuzendariak klaustroko kide bat proposatu beharko du BeA figura izendatzeko (BeA figura izateko baldintzak betetzen duen irakaslea izan behar da).



Eskaera dagokion eraginguneko arduradunari eta dagokion lurralde historikoko pedagogia-berrikuntzako arduradunari zuzenduko zaie. Eskaera onartu ondoren, beharrezkoak diren kudeaketak egingo dira ordezeko bat bidal dadin ikastetxera, eta hark bere gain hartuko ditu BeA figura berriaren zuzeneko irakaskuntza-dedikazioko orduak.

Prozedura hori antzera aplikatuko da BODI irakasleen kasuan.

b) Irakasle ordezkaria

DBHa eskola-esparrutik kanpo dagoen ikastegi batean ematen den ikastetxean, irakasle ordezkari bat egongo da, eta hark eginkizun hauek izango ditu ikastegi horretan:

- Ikastegiaren funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, ikastetxeko zuzendaritzak emandako jarraibideak betez betiere
- Ikastegiaren jarduerari eragiten dioten arauak, xedapenak, jardun-proiektuak eta -programak eta akordioak betearaztea
- Zuzendaritzak eskuordetuta, ikastegiko langile guztien buru izatea langile horien jarduerari dagokionez, ikastetxeko zuzendariak arlo horretan dituen eskumenak errespetatuz eta, betiere, zuzendariaren jarraibideak betez
- Ikasgelako irakasleen ordutegi akademikoak betetzen direla zaintzea
- Ikastegiko instalazioak, altzariak eta material didaktikoa egoera onean kontserbatzen direla zaintzea
- Ikastetxeko zuzendaritza ordezkatzeko ikasleekiko eta haien familiekiko edo legezko ordezkariakiko harremanetan
- Ikastegia Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean badago, beste ikastetxe horretako zuzendaritza-taldearekin koordinatzea ikastegiaren jarduerak eta funtzionamendua
- AJAk esleitzen dion beste edozein, eta ikastetxeko zuzendaritzak zuzenean esleitzen dizkionak

[↑Aurkibidea](#)

c) DBHko koordinatzailea

Ikastetxean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta beste hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak) irakasten bada, zuzendaritzak etapa horretako irakasle bat izendatu ahal izango du DBHko koordinatzaile kargua betetzeko. Irakasle horrek honako eginkizun eta ardura hauek izango ditu, ikasketaburutzak zuzenduta eta gainbegiratuta:

- DBHko kurtsoen eta irakasleen koordinazio pedagogikoa
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta hari atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzak, bi hezkuntza-mailetakoko curriculum- zehaztapenaren arteko koordinazioa bermatzeko: arreta berezia jarrita ikasleen hizkuntza eta komunikazio-kompetentzietan, digitalizazio kompetentzietan eta pentsamendu konputazional, programazio eta errobotikan.



- Ikastetxearen komunikazioa eta lankidetzak DBHko ikasleak sartuko diren Batxilergoko eta erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasketetako irakasle taldeekin, ikastetxean bertan nahiz Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntzako beste ikastetxe batzuetan

[↑Aurkibidea](#)

d) BAT taldeko koordinatzailea

BAT taldeko koordinatzaileak eginkizun hauek beteko ditu:

- BAT taldearen koordinazioko eta lan komuneko uneak kudeatzea, ezartzea eta dinamizatzea: bilkuren deialdiak, aktak, edukia...
- Jazarpen-kasuetan esku-hartzeen jarraipena egitea eta haiek konpontzen laguntzea
- Esku-hartzeak modu ordenatu, arin, konfidentzial eta egokian egiten direla zaintzea, bai ikasleekin, bai familiarekin eta irakasle taldearekin
- Berritzegune Nagusiak antolatutako formazio-mintegian eta Hezkuntza Sailak antolatutako formazio-jardueretan parte hartzea, eta jasotako prestakuntza lantaldeko kideen artean partekatzen dela ziurtatzea

e) Eraldatzen programa koordinatzailea

Eraldatzen programa garatzen ari diren ikastetxeek hasitako bideari jarraituko diote. Horretarako, ikastetxeak Eraldatzen programaren irakasle arduraduna esleituko du, eta ikastetxean irakasle egonkorra izan beharko du.

Eraldatzeneko arduradunaren zereginak honako hauek izango dira:

- Ikastetxean programa dinamizatzea.
- Ikastetxean zehaztutako talde eragilearen bilerak koordinatzea eta zuzentzea.
- Eraldatzen sarearen aldizkako bileretan parte hartzea, baita antola litezkeen prestakuntza-saio espezifikoen ere.
- Eraldatzen programako talde teknikoko arduradunekin harreman arina izatea.
- Eraldatzen sareak proposatzen dituen ekintzak ezartzea, ikastetxeko talde eragilearekin koordinatuta.
- Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza diseinatzen, kudeatzen eta ematen laguntzea
- Ikastetxean ezartzen diren palanka-ekintzak tutorizatzea.
- Administrazioak eskatzen dituen datuak biltzea eta ematea.
- Ikastetxeko idazkariari programa honetarako esleitutako diru partidaren kudeaketa ekonomikoan laguntzea (fakturen kontrola, ordainketen frogagiriak...).

[↑Aurkibidea](#)



f) Adi Mentoreak. (Eskola Adimentsua programa)

[2022-2023 ikasturtean Mentoreen Sarea \(DigCompEdu Gelan\)](#) eratu zen. Sare hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Eraldatzeko Planaren testuinguruan kokatzen den ekimena izan da eta bi ikasturteko iraupena izan du, 2023-2024 ikasturtearen bukaeran amaituko dena. Mentore digitalen esperientziatik abiatuta, Eskola Adimentsua programan laguntzeko ADI mentoreak liberatuko dira sare publikoan 2024-2025 ikasturterako.

Zereginak 2024-2025eko ikasturtean:

- Hautatutako mentoreak bere lan-jardunaldia ADI-sareko mentoretza-zereginetara bideratuko du soilik.
- Mentoreen lanaldiaren heren bat jatorrizko ikastetxearen zereginetan arituko da, beti ere Eskola Adimentsua programak dituen helburuak lortzeko ikastetxean bertan.
- Beste bi herenetan Euskal Hezkuntza Sistemari Adi Programa garatzeko zereginetan jardungo dute. Ordu horietan barne hartzen dira koordinazioak, prestakuntza lanak (NOOC, mintegiak, tailerrak,...) eta gainontzeko eskakizunak, beti ere Berritzegune Nagusiko aholkulariekin lankidetzan.
- Mentore bakoitza ikastetxe talde baten erreferentziazko bidelagun izango da. Dagozkien ikastetxe horiei, (mintegian parte hartu ala ez) pentsaera konputazionala, programazioa edota robotika euren ikastetxeetan integratzeko aholkularitza eskainiko die.
- Mentorizazioa lana (bilerak, bisitak, zalantzak, eta abar): dagozkien ikastetxe bakoitzaren ikasketaburuaren bitartez egingo dira (ikasturtean 3 bilera programatu beharko dituzte, gutxienez; ez dira derrigorrez aurrez-aurrekoak izan behar).
- Ikastetxe bakoitzeko ezaugarriak ezagutu eta hauen arabera, behar dituzten baliabideen balorazioak eta proposamenak sortzea (baliabideen hornikuntza gauzatzen lagundu).
- Astean behin koordinazio bilera egingo da (ostegunetan). Bilera hauetan, egin beharren jarraipena, prestaketa, ebaluaketa eta lanen koordinazioa burutuko dira.
- Koordinazio bilerekin gain, ADI programak eraginkortasunez aurrera egin dezan, elkartzeko une gehiago behar badira, ADI mentoreek egin behar hauei lehentasuna emango diete eta BNko aholkulariekin elkartzeko momentuak adostuko dituzte.
- Ikasturte hasieran, mintegiak eta ikastaroak burutzen ari diren bitartean eta amaieran, ekintza, jarduera eta abarren ebaluaketa eta jarraipena egingo da. Jasotako informazio guzti honekin, ikasturte bukaeran txosten bat idatziko du mentore bakoitzak, Berritzeguneak zehaztutako modu eta forman.
- Sortzen diren erronka, baliabide pedagogiko, gida eta abarren jarraipena, moldaketa eta partekatzea egingo dute, gainontzeko Adi mentoreekin eta BNko aholkulariekin, koordinazio bilera horiek baliatuz.
- Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotikaren inguruko praktika onak identifikatzea eta horiek partekatzea eta horien zabalkundea bultzatzea. Horretarako, Digitaldek eskainiko ditu jarraibideak praktika onak ebaluatzeko irizpide partekatuen bitartez, ikastetxe guztietara zabaltze aldera.



- Pentsaera konputazionala, programazioa eta robotikaren lanketa bultzatzeko antolatuko diren ekintzetan parte hartzea.
- Sistemaren beharrak asetzeko Digitaldeko arlo honetan eskatzen dituen bestelako zereginak, aldeztatik adostuta eta koordinatuta.

Lantokia: Mentoreen lantokia 2024-25 ikasturtean atxikituta dauden ikastetxea izango da. Hori dela eta, ikastetxe horiek lan ingurune eta lanabes egokiak bermatuko dizkiote irakasle honi mentoretza zereginetarako, alegia, online bileretako eta balizko aurrez aurrekoetarako, telefono bidezko komunikazio eraginkorrerako eta bere lanaren zeregin guztiak betetzeko.

Berritzegune Nagusiak eskainiko die mentoreei haien betebeharrak egiteko behar duten formazioa eta laguntza. Mentoreen batek beste formazioen (ikastaro, jardunaldi,...) batean parte hartu nahiko balu, bere ikastetxeko zuzendariari eta digitalderi jakinaraziko dio aldeztatik aurretik haien oniritzia jasotzeko.

Ikasturtea aurrera joan ahala, ikastetxeen beharrak hobeto identifikatzen diren heinean, atal honetan jasotako zereginak eta jarraibideak moldatu daitezke baita erreferentziazko ikastetxeen zerrenda, Adi mentoreen espezializazio- eta esperientzien arabera egokitze eta ikastetxeen erronkei erantzuteko.

[↑Aurkibidea](#)

4.4.3. Zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketak kalkulatzeko arauak

“Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen mahai sektorialaren 2022ko maiatzaren 26ko Akordioan, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzkoan” jasotzen dira kargu horietarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak. Akordio horrek honela dio:

Zuzendaritza-funtzioa garatzeko. Irakasle-kreditu bat esleitzen da talde kopuruaren arabera. Kreditu hori 2 lanaldikoa izango da, 15 taldera arte, gehi 0.33 etapa gehigarri bakoitzeko eta 0.33 talde gehigarri bakoitzeko.

Langileak kudeatzeko ordu-kredituak. Ikastetxeari atxikitako langile kopuruaren arabera (irakasleak, hezitzaile ez diren langileak, administrazio laguntzaileak, mendeko langileak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, eta Hezkuntza Sailaren mendeko sukaldeko eta garbiketako langileak), ordu-kreditu bat emango zaie ikastetxeei langileak kudeatzeko, tarte hauen arabera: 30-49 pertsona artean, 0.33 kreditu lanaldi osoaren gainean, 50-75 pertsona artean, lanaldi erdia eta 60 pertsonatik gora, lanaldi osoko dotazio bat (kalkulua egiteko, irakasleen egiturazko LPZ eta LPZ funtzionaleko datuak eta hurrengo ikasturterako ekinerako irakasle ez diren langileen zuzkidura hartuko dira kontuan.)

[↑Aurkibidea](#)



4.4.4. Zuzendaritzako-kargudunen ordutegia

Ordutegi orokorrak aurreikusi behar du ikastetxean zuzendaritza-kargudunen bat egotea ikasleen ohiko eskola-ordutegi osoan.

Zuzendaritza-karguek ikastetxean nahitaez egon beharreko egutegia eta ordutegia malgutu ahal izango dira, karguari dagozkion zereginak egiteko ikastetxearen ohiko ordutegi eta egutegitik kanpoko jardueretan emandako denbora konpentsatzeko, betiere zeregin horiek Ikastetxearen Urteko Planean jasota badaude, eta irakaskuntza-jardueraren ordutegian zuzendaritza-taldeko ordezkari bat egongo dela ziurtatuz, betiere hura arautzen duen araudia betez.

Zuzendariak eta ikasketa buruak aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

Zuzendariek hilero eragingunetan antolatutako **mintegia** izango dute. Mintegi hauek ostegunetan izango dira horien helburua izango da zuzendaritza- eginkizunarekin lotutako gaietan sakontzea. Mintegi horietan parte hartu dezakete zuzendari guztiek (ez ohiko izendapenarekin daudenak eta baita proiektudun zuzendariak), eta zuzendarien hasiera eta etengabeko formazioaren barruan hautazko formazioa-jarduera izan arren, zuzendariak bertan parte hartzea gomendatzen da.

Ikasketa buruak mintegia izango dute, eragingunetan antolatuta. Hautazko formazio-jarduera izan arren, ikasketa buruaren parte hartzea gomendatzen da.

[↑Aurkibidea](#)

Murrizketa-orduak aplikatzea

Zuzendaritza-karguetarako eta beste kargu batzuetarako murrizketen guztizko kopurua aurreko atal guztiei dagozkien murrizketen batura izango da.

Ikastetxeak ordu guztiak banatuko ditu zuzendaritzaren, ikasketaburutzaren, idazkariaren eta aurreikusitako gainerako kargudunen artean, betiere honako jarraibide hauek errespetatuz:

Gutxieneko murrizketa honako hauentzat:

- Zuzendaria: 9 ordu.
- Ikasketaburua: 6 ordu.
- Idazkaria: 6 ordu.
- Irakasle ordezkaria: 6 ordu.
- DBHko koordinatzailea: 3 ordu.

Kargudun titularrari dagokion ordu-murrizketa kargudun laguntzailearena baino handiagoa izango da betiere.

Kargudun laguntzailearen osagarri espezifikoaren zenbatekoa jasotzeko, gutxienez 9 orduko murrizketa izan beharko da.



Finkatutako zenbakiak errespetatuz, zuzendaritza-taldeak erabakiko du, indarrean dagoen araudiaren arabera, kargu bakoitzerako murrizketa-orduen kopurua, ikastetxeari dagozkion ordu guztiak agortu arte.

Ikastetxeak, bere autonomia baliatuz, AJAn ezarri ahal izango du aurreko arauen arabera ondorioztatutakoa baino kargudun laguntzaile gehiago izatea. Nolanahi ere, izendapen horiek ez dute, inola ere, administrazio-ondoriorik izango, eta ez dute inolako ordainsari-osagarririk kobratzeko eskubiderik sortuko.

[↑Aurkibidea](#)

4.5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA. Lanaldia betetzen dela kontrolatzea

“Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordutegi-taulak” aplikazioa erabiliko da. Horretarako, “Irakasleen absentismoa” fitxa erabiliko da. Fitxa horren barruan, honako hauek adieraziko dira: huts egin duen irakaslea, absentzia zein egunetan izan den, horren iraupena eta absentziaren arrazoiak.

EJDn zabalgarri bat agertuko da absentzien arrazoi posible GUZTIEKIN, eta dagokiona aukeratuko da.

Justifikaziorik gabeko absentzien kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDaren absentzien zabalgarrian, eta aplikazioak jakinarazpen bat bidaliko dio automatikoki erreferentziatzko ikuskariari, orduan, horrek Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legean kasurako aurreikusitako prozedurak hasiko ditu. Halakoetan, irakasleak egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu Hezkuntzako lurralde-ordezkararen aurrean, eta horrek hartuko du azken erabakia.

Lan-baldintzak erregulatzen dituen akordioan adierazitakoak ez diren beste arrazoi batzuk direla eta justifikatzen badira absentziak, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDko absentzien zabalgarrian, eta, gainera, inplikaturako irakasleak ondoren adierazten den estekan dagoen “III. eranskina” dokumentua bete beharko du (“Irakasleen eta hezkuntza-langile lan-kontratudunen absentziak” atalean): <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lizentziak-baimenak/web01-a3hklair/eu/h>

Ikastetxeko zuzendaritzak “III. eranskina” izenpetzeak berekin ekarriko du bertan emandako azalpena bermatzen duela, eta azalpen hori sinesgarritasuna eta baliozkotasuna ematen dizkiola. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura.

Irakasleen absentzia guztiak behar bezala justifikatu beharko dira eta, ahal dela, dokumentu bidez egiaztatu beharko zaizkio zuzendariari, horrek eskatu beharrik izan gabe, indarrean dagoen akordio arauemailean ezarritakoaren arabera.

Absentzien egiaztagiria ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan, absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia adieraziko dira. Originalak eta argiak izan beharko dute.

Aldez aurretik jakindako eta aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleek behar besteko aurrerapenez eta idatziz jakinarazi beharko diote ikastetxeko ikasketaburutzari. Horrela egingo



dute, haiek ordezkaturiko dituzten hezkuntza-arretako irakasleek bermatu ahal izan ditzaten absentziak eragindako taldeetako ikasleek egin behar dituzten jarduerak, eta behar diren material eta jarraibideak.

Aurreko ikasturteetan bezala, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen absentziak erregistratu beharko ditu hurrengo hilaren 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eskuragarri egon daitezten.

Greba egingo balitz, ikastetxeko zuzendaritzak Ikuskaritzari gorabehera horren datuak jakinaraziko lizkioke, *“Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordu-tegi-taulak”* aplikazioaren bidez, *“Irakasleen absentismoa”* fitxako *“Greba-datuak”* atalean. Halakoetan, ikasleentzako ahalik eta arretarik egokiena antolatuko du eskura dituen giza baliabideekin.

Era berean, zuzendaritzak irakasleren batek bere ordutegian sartzeko eta irteteko betebeharrak nabarmen betetzen ez dituela ikusten badu, Zuzendaritzak ordutegi hori betetzeko eskatuko dio. Ordu-tegia ez betetzen jarraituz gero, Lurralde Ordezkaritzako Langilego Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari horren berri emango zaie, bidezko neurriak har ditzaten.

Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleen betebeharra da hutsegite-egiaztagiriak zuzendariari garaiz aurkeztea, hark noiz eskatuko zain egon gabe
- Ikastetxetik kanpo IRALEko ikastaroak eta antzekoak egiten ari diren irakasleek ikastaro horietara ez joatearen egiaztagiriak aurkeztuko dituzte ikastaro horiek egiten ari diren lekuetan
- Ohiko eskolaldian irakasleak ikastetxean ez daudenean ikasleei arreta emateko ezarritako prozeduraren berri eman beharko zaio Eskola Kontseiluari
- Eskolen ohiko irakaskuntzan gertatzen den edozein asaldura berehala jakinarazi beharko zaio Ikuskaritzari telefonoz
- Absentzien egiaztagiriak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan, absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoia adieraziko dira. Originalak eta argiak izan beharko dute

Ikastetxeek lurralde-ordezkaritzetako langilego-unitateekin kudeatu ohi dituzten lizentzia eta baimen guztiak unitate horietatik emandako jarraibideen arabera kudeatzen jarraituko dira.

Ikastetxe batzuek, irakasleez gain, Hezkuntza Saileko hezkuntza-langile lan-kontratudunak eta/edo laboralak dituzte. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek beren datuak sartu ahal izango dituzte, irakasleen absentziak erregistratzeko erabiltzen den EJDko fitxa beraren bidez.

[↑Aurkibidea](#)

4.6.- DEPARTAMENTUAK

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan bi departamentu mota eratu ahal izango dira: **didaktika-departamentuak** eta **departamentu ez-didaktikoak**, hala nola Orientabide Departamentua, Berrikuntzarako Departamentua eta ikastetxeak antolaketa eta koordinazio pedagogikorako egokitzat jotzen dituen beste guztiak.



Koordinazio didaktikoko departamentuak eskatzen zaizkien jakintzagai edo moduluen berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Burutzaren zuzendaritzapean daude eta jakintzagai bera ematen duten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea dute helburu, edo, hala badagokio, antzeko jakintzagaietako irakasleen artekoa. Talde horien zeregina eta egiten duten lana taldekide guztien erantzukizuna da.

4.6.1. Departamentuen antolaketa eta funtzionamendua

Ikastetxean departamentuak eratzeko proposamena egitean, klaustroak arau hauek bete beharko ditu nahitaez:

- Eskola-orduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek didaktika-departamentuen bateko kide izan beharko dute
- Ezein irakasle ezin izango da bi didaktika-departamentuetakoa izan. Bi didaktika-departamenturi edo gehiagori dagozkien jakintzagaiak ematen baditu, ordu gehien ematen dituen jakintzagaiei dagokien departamentuetako baino ez da izango. Hala ere, ematen dituen beste jakintzagaiei dagozkien beste departamentuetako bileretara joan ahal izango da, bai eta haien lan eta erabakietan parte hartu ere.

[↑Aurkibidea](#)

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeak:

DBH soilik ematen duten ikastetxeetan, klaustroak proposatuta, zuzendaritza-taldeak zehaztuko du ikastetxean zer departamentu egongo diren, ikastetxeko zehaztapenen curricularrean ezarritakoaren arabera, eta erabaki horren berri emango dio eskola kontseiluari.

Ikastetxean departamentuak eratzeko proposamena egitean, klaustroak arau hauek bete beharko ditu nahitaez, lehen aipatutako arau komunez gainera:

- Beren burutzek ordainsari-osagarria kobratzeko eskubidea izango duten departamentuen gehieneko kopurua ikastetxeko irakasle kopuruaren arabera izango da, taula honen arabera:

IKASTETXEKO IRAKASLE KOPURUA	GEHIENeko DEPARTAMENTU KOPURUA
13 baino gutxiago	3
13 eta 16 artean	4
17 eta 20 artean	5
21 eta 24 artean	6
25 eta 28 artean	7
29 eta 32 artean	8
33 eta 36 artean	9
37 eta 40 artean	10
41 eta 45 artean	11
46 eta 50 artean	12
51 eta 55 artean	13
56 eta 60 artean	14



61 eta 65 artean	15
66 eta 70 artean	16
71 eta 80 artean	17
81 eta 90 artean	18
91 eta 100 artean	19
100 baino gehiago	20

- Ikastetxeak 13 irakasle baino gutxiago baditu, honako departamentu hauek eratzear proposatzen da:
 - Hizkuntzen Departamentua, jakintzagai hauetako irakasleek osatua: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak.
 - Zientzia Departamentua, jakintzagai hauetako irakasleek osatua: Matematika, Matematika lantegia, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia, Teknologia, Teknologia eta Digitalizazioa, Kultura Zientifikoa eta Lanbide Jarduerari Aplikaturako Zientiak.
 - Giza eta Gizarte Zientzien Departamentua, jakintzagai hauetako irakasleek osatua: Geografia eta Historia, Heziketa fisikoa, Hezkuntza Plastikoa eta Ikus-entzunezkoak, Musika, Arte Eszenikoak eta Dantza, Latina, Kultura Klasikoa, Ekonomia eta Ekintzaitza, Erljioa eta Balio zibiko eta etikoak Etikoak.
- Ikastetxeko departamentuak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeko proposamena zuzendaritza-taldeak hartuko du, eta Ordu-tegi Taulak (EJD) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarraibideak betez. Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du proposamenak eskatutako baldintzak betetzen dituen eta, hala bada, oniritzia emango du aipaturako aplikazio informatikoan, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.
- Ikastetxeak, bere autonomiaz baliatuz, bere AJAn ezarri ahal izango du aurreko taulan zehaztutakoak baino departamentu edo koordinazio pedagogikoko beste organo gehiago egotea. Dena den, beste departamentu horietako burutzak izendatzeak ez du, inola ere, ondorio administratiborik izango, eta ez du inolako ordainsari-osagarri-rik kobratzeko eskubiderik sortuko.

[↑Aurkibidea](#)

b) Batxilergoa eta/edo heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak

Antolamendu eta koordinazio pedagogikoaren ondorioetarako, ikastetxeak beraren AJAn aurreikusita dituen bezainbeste departamentu ezarri ahal izango ditu. Hala ere, departamentuetako burutzaren ordainsariari dagokienez, ikastetxeak honako didaktika-departamentu hauek soilik eratzeko eskubidea izango du, betiere dagokion espezialitateko gutxienez bi irakasle espezifiko badaude:

Batxilergoko irakaskuntzak:

1. Gaztelania eta Literatura Departamentua.
2. Euskara eta Literatura Departamentua.
3. Ingeles Departamentua.



4. Frantses Departamentua.
5. Aleman Departamentua.
6. Latin Departamentua.
7. Greko Departamentua.
8. Geografia eta Historia Departamentua.
9. Filosofia Departamentua.
10. Erljio Departamentua.
11. Heziketa Fisiko Departamentua.
12. Matematika Departamentua.
13. Fisika eta Kimika Departamentua.
14. Biologia eta Geologia Departamentua.
15. Marrazketa Departamentua.
16. Teknologia Departamentua.
17. Musika Departamentua.
18. Ekonomia Departamentua.

Lanbide Heziketako irakaskuntzak:

1. Lanerako Prestakuntza eta Orientabide Departamentua.
2. Lanbide-arlo bakoitzaren departamentu espezifikoak, familia horretako prestakuntza-moduluei eta -zikloei dagozkien espezialitateetako irakasleek osatuak, eta zeharkako beste departamentu batzuk. Zeharkako departamentu horien osaera halakoa izango da non Lanbide Heziketako departamentuen guztizko kopuruak ez duen inola ere gaudituko atal honen a atalean agertzen den taulan zerrendatutako irakasleen/departamentuen gehieneko kopurua.

Departamentua 12 irakasle bako bako gehiagok osatzen badute, lurralde-ordezkaritari eskatu ahal izango zaio departamentu hori bitan banatzea, eta hark horren berri emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Batxilergoa eta/edo Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasten dituzten ikastetxeetako departamentuak eratzean, honako arau hauek bete behar dira, atal honen hasieran aipatutako arau komunez gainera:

- Batxilergoko irakasleak ematen duten jakintzagaiari dagokion didaktika-departamentuari atxikita egongo dira. Zehazki, Latineko eta Grekoko departamentu bereziak dituzten ikastetxeetan, Kultura Klasikoko irakasleek horietako bati atxikitzea aukeratuko dute, baina beste departamentuaren bileretara joan eta bere lanetan parte hartu ahal izango dute.
- Ikastetxean espezialitate bateko bi irakasle espezifiko ez daudenean eta, hortaz, espezialitate horretarako departamentu berezi bat eratu ezin denean, antzeko bi espezialitatez edo gehiagoz osatutako departamentuak eratuko dira. Departamentu horiek osatuko dituzte espezialitate horietako gutxienez bi irakasle espezifikok.
- Aurreko arauen arabera eratzen diren departamentuez gainera, ikastetxeek beste bi departamentu ez-didaktiko eratzeke eskubidea izango dute.
- Ikastetxeko departamentuak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeke proposamena zuzendaritza-taldeak hartuko du, eta Ordu-tegi Taulak (EJD) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzak emandako jarraibideak betez. Hezkuntza Ikuskaritzak



egiartzatuko du proposamenak eskatutako baldintzak betetzen dituen eta, hala bada, oniritzia emango du aipatutako aplikazio informatikoan, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.

- Ikastetxeak, bere autonomia baliatuz, AJAn ezarri ahal izango du aurreko ataletan zehaztutakoa baino departamentu edo koordinazio pedagogikoko beste organo gehiago egotea. Dena den, beste departamentu horietako burutzak izendatzeak ez du, inola ere, ondorio administratiborik izango, eta ez du inolako ordainsari-osagarririk kobratzeko eskubiderik sortuko.

[↑Aurkibidea](#)

c) Departamentuaren bilerak

Astean ordubete gorde behar da gutxienez departamentuetako kide guztiak biltzeko, DBHko, Batxilergoko edo heziketa-zikloetako ikastetxeetako ordutegiaren barruan.

Hizkuntza-departamentu guztietan asteko bilera-ordua batera egingo da, hizkuntzei buruzko planteamendu integratu bat garatu eta, hala, programazio integratu bati bide emateko. Ikasketaburutzak kontuan hartu behar du hori ordutegiak prestatzen dituenean. Departamentuko kide guztiek joan behar dute bileretara, eta bileren aktan espresuki jasoko dira, gutxienez, alor hauek: bertaratu direnak eta absentziak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak. Irakasleen gainerako ordutegi pertsonaleko hutsegiteen modu berean justifikatu beharko dira bileretako absentziak eta, dagokionean, ondorio berberak izango dituzte.

Ekainean, departamentuetako kideek bildu behar dute lan-plana eta bere lorpenak aztertzeko eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko.

[↑Aurkibidea](#)

d) Didaktika-departamentuaren zereginak

Espezialitatea osatzen duten irakasle guztien parte-hartzearekin, espezialitatearen berezko jakintzagaiak programatzea. Programazioa egin ahal izango da [curriculumgunean](#) dauden [“Programazio didaktikoak egiteko gidak”](#) jarraituz.

Konpetentziak lortzea erraztuko duten metodologiak helburu hartuta ikastetxean sartzan diren benetako aldaketak islatu beharko dituzte programazio didaktikoek. Halaber, konpetentzien ebaluazioan jarri beharko da fokoa. Programazioek ebaluazio-irizpide zehatzak, ebaluazio-tresna anitzak eta ebaluazio-mota desberdinak jaso behar dituzte, hala nola kalifikaziorako erabiliko diren irizpideak ere. Ildo horretan, programazio didaktiko guztiek, aurreko ikasturtean egindako lanetik abiatuta, aurrera egiten jarraituko dute, ikas-egoerak edo erronkak barne hartuko dituzten unitate didaktikoen, zereginen edo proiektuen diseinua orokortzeko helburuarekin. (Aipatutako gidetako eranskinek horiek diseinatzen lagundu ahal izango dute).

Jakintzagai guztietako irakasleek hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentziarekin lotutako helburuak jaso beharko dituzte beren urteko programazio didaktikoetan, eta lehentasuna emango diote beren jakintzagaiko testu akademikoen idatzizko eta ahozko ulermenari.



Horretarako, Berrikuntzako arduradunak (BeA) laguntza eskainiko dio bere ikastetxeko klastroidea. Bestalde BeA figura honek BeAk Trebatzen formazio programaren barruan dauden mintegiak eta bertako aholkulari-arduradunen laguntza eta aholkularitza izango du; izan ere aholkulari horiek lehentasunez hartuko dute beren gain aholkularitza hori. Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzaren lehentasunezko jardun-helburuen artean egongo da curriculumaren garapena egungo araudira egokitzen dela egiaztatzea. Horretarako, programazio didaktikoak aztertu eta ikasgelak bisitatuko dituzte.

Hona departamentuaren beste zeregin batzuk:

- Bere espezialitatearekin lotutako aukerako jakintzagaiak proposatzea
- Hala dagokionean, ohiko eta ezohiko probak egitea eta kalifikazioen erreklamazioei erantzutea
- Salbuespenen eta baliozkotzeen ondoriozko txostenak edo ziurtagiriak egitea
- Prestakuntza- edo berrikuntza-proiektuak edo bere espezialitatearekin lotutako baliabideak lantzekoak proposatzea
- Emaidza akademikoak eta programazioen gauzatze- eta betetze-maila aztertzea eta baloratzea

Departamentuak, curriculum ofizialak erreferentzia hartuta, horiek egokitu, hautatu eta zehaztu ahal izango ditu diseinatutako lan-planaren eta programazioen arabera, eta aldaketak departamentuaren aktetan jaso beharko dira. Egindako egokitzapenek curriculumaren gutxieneko irakaskuntzak betetzen dituztela zainduko du Ikuskaritzak.

[↑Aurkibidea](#)

e) Departamentuko burutza

Departamentuko kide guztien ardura da departamentuko zereginak eta lanak idazten parte hartzea, baita gairak gabeko jakintzagaiak dituzten ikasleentzako probak egitea eta zuzentzea, estatistikak prestatzea, etab. ere.

Departamentuko burua da bere funtzionamenduaren arduraduna, eta eginkizun hauek ditu:

- Departamentuaren jardura zuzentzea eta koordinatzea
- Bilerak antolatu, prestatu eta zuzentzea
- Departamentuko programazioen arteko koherentzia eta koordinazioa bermatzea
- Departamentuko irakasleek programazio didaktikoak departamentuetan onartutako irizpideen arabera egiten dituztela ziurtatzea
- Programazioen garapenaren aldizkako jarraipena egitea ikasle taldeetan, eta programazioa betetzen dela zaintzea, edukiei eta gutxieneko eskakizun-mailei dagokienez
- Programazio didaktikoen ebaluazioa bermatzea. Ebaluazioa dokumentu espezifiko batean jasoko da
- Etengabe ebaluazioan departamentuko irakasleen koordinazioa ziurtatzea eta ohiko eta ezohiko deialdietan proba bateratua ezartzea
- Departamentuak prestatutako proben kalifikazioak gainbegiratzea
- Ikasleek kalifikazioen inguruan egiten dituzten erreklamazioei erantzutea eta erreklamazio horien ondoriozko espedienteak zaintzea



- Lanak kideen artean banatzea
- Planifikatutako materialak eta jarduerak egon daitezen sustatzea. Horiek ahalbidetu behar dute, departamentuko irakasleren bat ez badago, dagokion hezkuntza-arretaren arduradunak absentzia horrek eragindako ikasleei arreta egokia emateko moduan egotea
- Ikasketaburutzarekin komunikatzea, departamentuaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-planaren garapenari buruz informatzeko, baita departamentuean antzematen duen edozein anomaliari buruz ere
- Egiten diren bileren aktak daudela eta gordetzen direla bermatzea
- Ikastetxeak berak AJAn zehaztutako gainerakoak

Departamentuko burutzak maila bakoitietako programazio didaktikoak 2023ko urriaren 16rako entregatu beharko dizkio ikastetxeko zuzendaritzari, eta horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku geratuko dira. Maila bikoitietako ebaluazio-irizpideak lehenengo ebaluazioa egiten denerako zehaztuta egongo dira eta programazio didaktikoak ikasturte bukaerarako.

Programazio didaktikoak eskuragarri egongo dira eskola komunitate osoarentzat eta haien kopia bana emango zaio didaktika-departamentuko kide bakoitzari.

[↑Aurkibidea](#)

f) Departamentuko burutza izendatzea

Zuzendariak izendatuko du, betiere honako irizpide hauek errespetatuz:

- Zuzendaritzako beste kargurik betetzen ez duen departamentuko irakasle bat izan beharko da
- Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasleen artean izendatuko da, salbu eta zuzendaritzako beste kargurik ez duen departamentuko kide batek ere baldintza hori betetzen ez badu
- Nolanahi ere, aurreko irizpideak errespetatuz, AJAn xedatutakoaren arabera aukeratuko da
- AJAk departamentuko buruzagitza hautatzeko modua aurreikusten ez badu, zuzendaritzak izendatuko du, departamentuko kideek proposatuta. Departamentuak dagokion proposamena egiten ez badu, ikastetxeko zuzendariak bakarrik hartuko du erabakia. Izendatu ondoren, ezingo dio karguari uko egin, ikasturtea hasi baino lehen burutza guztiak beteta egon daitezen

Titularrik ez balego 6 hilabetetik gorako aldian edo, salbuespen gisa, epe laburragoetan, departamentuko beste kide bati esleitu ahal izango zaizkio bere eginkizunak. Eginkizun horiek ikastetxeko zuzendaritzak esleituko ditu, dagokion lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Ikuskaritzak baimena eman ondoren.

[↑Aurkibidea](#)

g) Departamentuaren dokumentazioa

Didaktikako eta koordinazio pedagogikoko departamentu guztiek departamentuko bileren aktak egin beharko dituzte, eta ikastetxeko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eta Ikuskaritzaren eskura egongo dira.

Departamentuaren bilera bakoitzaren akta egingo da. Bilerara bertaratutako guztiek sinatu beharko dituzte aktak, eta departamentuko burutzak izendatutako irakasleak idatziko ditu.



Ikasturtea amaitzean, dokumentu espezifiko batean jasoko da urteko programazioaren ebaluazioa eta bere betetze-maila. Ebaluazio horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- Ikasturtearen ebaluazioaren emaitzak departamentuko jakintzagai bakoitzean
- Material eta baliabide didaktikoen egokitzapena, eta espazioen eta denboren banaketa erabilitako metodologiaren arabera
- Metodologiaren ekarpena gelako eta ikastetxeko giroa hobetzeko

Ikasleen probak, ariketak edo azterketak gorde egin beharko dira bai ebazpen honetan zehaztutako baldintzetan, bai EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9. artikuluan zehaztutakoetan (EHAA, 2008-12-16koa).

[↑Aurkibidea](#)

4.6.2. ORIENTAZIO-DEPARTAMENTUA

a) Orientazio-departamentua eratzea

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da orientazio-departamentua, betiere gutxienez hiru kidek osatzen badute. Orientatzailea izango da departamentuko burua. Beraz, horrek bere bilerak planifikatu eta zuzenduko ditu eta kideen lana koordinatuko du.

Departamentua kide hauek izango ditu:

- Hezkuntza-orientazio espezialitateko irakasleak. Horietako batek departamentuko buru izan beharko du nahitaez
- Curriculum-aniztasuneko taldeetako eta hezkuntza-indargarri espezifiko proiektuetako irakasle arduradunak, baldin eta ikastetxeak proiektu horiek baditu
- Pedagogia terapeutikoko maisu-maistra espezialistak, baldin badaude ikastetxean
- Zereginen ikaskuntzarako gelez arduratzen diren irakasleak, baldin badaude ikastetxean

b) Orientatzaileen eginkizunak

Orientazioa, hezkuntza-jarduera osoaren parte denez, irakasleei dagokie, beren irakaskuntza-eginkizunaren zati gisa. Horrek ez du eragozten gai honetan eginkizun espezifikoak esleitzea hezkuntza-orientazio espezialitateko irakasleei (orientatzaileak).

Orientazio jardunean sentsibilitate berezia izan behar da ikuspegi hezkidetzaillearekiko.

Bigarren Hezkuntzako etaparako [Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Orientazio I. Planari \(2023-2026\)](#) jarraituz eginkizun hauek esleitzen zaizkie, besteak beste:

Aniztasunari erantzutea:

- Tutorearekin, taldeko irakasle taldeekin eta orientazio-departamentuaren barruan, ikasleek ikasteko dituzten zailtasun-egoerak detektatzea eta aztertzea, behar izanez gero ebaluazio psikopedagogikoa egitea, antolamenduko, metodologiako, hezkuntza-indargarriko eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapeneko neurri komenigarrienei buruz aholkatzea eta horien jarraipena egitea.



- Ikastetxeko irakasleak aholkatzea arreta espezifikoko planak eta programak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko (curriculum-aniztasuneko gelak, zereginen ikaskuntzarako gelak, Jarduera Plan Pertsonalizatuak, hezkuntza-indargarri espezifikoko programak, gaitasun handiko ikasleak), eta horien jarraipena egiteko.
- Familiak aholkatzea
- Hezkuntza komunitateko beste eragileak aholkatzea (AZP, ...).
- Adimen Gaitasun Handiak dituzten ikasleen detekzio espezifikoa egitea eta irakasle taldeari JPP egiten laguntzea.
- EUSLE talde dinamizatzailearen kidea da.
- Irakasle taldearekin elkarlanean aritzea ikastetxeko hezkuntza-indargarri plana egiten. Plan horretan, irakasleek beraiek diseinatutako hezkuntza-neurriak hartuko dira, banakakoak edota taldekoak, eskola-zailtasunen aurrean ikasleen ikaskuntza indartzeko.

Orientazioa eta tutoretza:

- Tutoretza planean jorratuko diren lan-eremuak honako hauek dira: garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak, ikasketa prozesua, orientazio akademiko eta profesionala. Bizikasi ekimenaren barruko proposamen didaktikoak espezifikoki lantzeko programatutako jardueretan bereziki.
- Tutoretza plana prestatzeko aholkuak ematea eta maila bakoitzeko tutoreekin aldi-aldi koordinazio-bilerak egitea, plana garatzeari eta ebaluatzeari buruz aholkatzeko.
- Etapa bakoitzerako orientazio akademiko eta profesionaleko programa bat prestatzea ikastetxeko ikasleentzat, ibilbide akademiko eta etorkizun profesionala aukeratzean berdintasuna sustatzeko, eta programa garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzea.
- Irakasleak aholkatzea DBHko 2. maila amaitzean eta etapa amaitzean, edo, hala badagokio, eskolatzea amaieran ikasleen orientazio-aholkua prestatzeko, hezkuntza-neurriei eta prestakuntza-ibilbideko proposamenei buruzko erabakietan bereziki
- Ikasleak eta haien familiak aholkatzea, bereziki garapen pertsonal eta akademikoarekin, hezkuntza-etapen arteko trantsizioarekin eta prestakuntza-ibilbideak aukeratzearekin zerkusua duten gaietan

Bizikidetza:

- BAT taldeko kide aktibo gisa parte hartzea
- Bizikidetza positiboa sustatzea.
- BAT taldearekin batera, Ikastetxean sor daitezkeen jokabide-arazoei aurre egiten eta horiek konpontzen laguntzea.

Koordinazioa eta elkarlana:

- Barnekoa:
 - o Zuzendaritza taldea
 - o Batzorde Pedagogikoa
 - o Tutoreak



- Mintegia
 - BeA figura
 - BAT taldea
 - EUSLE talde dinamizatzailea
 - Ongizate emozionala eta babeserako koordinatzailea
- Kanpoko: Ikastetxetik kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragileekiko eta laguntzekiko koordinazioan lankidetzan aritzea, ikasleen jarraipen egokia, integrazioa eta arrakasta akademikoa lortzeko alde batetik eta bestetik, etorkizuneko irteerak ikasleek ahalik eta zehatza eta beraien interesei egokitua izan dezaten (gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, Unibertsitatea, Lanbide Heziketa, enpresak,...).
- Irakaskuntza:
- Bere espezialitatearekin, hala badagokio, lotutako jakintzagaiak irakastea

Gainera, orientazio planak jasoko ditu orientabide-departamentuak ikasturterako aurreikusitako jarduerak, eta IUPEan txertatuko ditu. Ikasturtea amaitzean, orientazio planak ebaluazioa sartuko du ikastetxearen memorian.

Eta guztietan, DBHn, Batxilergoan eta heziketa-zikloetan, ikasketa burutzak orientatzailearen lana erraztuko du ikastetxeko tutoreekin eta ikasleen orientazio prozesuetan inplikaturako gainerako profesionalekin egiten duen lanean.

c) Hezkuntza-orientazio irakasleen ordutegia

Ikastetxeko gainerako irakasleen antzeko ordutegia bete behar dute, hau da, astean 30 ordu. Ordu horietatik 23 ikastetxeko ohiko egonaldikoak izango dira, eta asteko 7 ordu (hilero zenbatuko dira) ezohiko egonaldikoak.

30 ordu horien banaketa ikastetxeko gainerako irakasleentzat bezalakoa zango da, salbuespen honekin: berriaz orientabide-jardueretan emandako orduak zenbatuko dira, benetan ematen dituzten eskola-orduek gainera.

[↑Aurkibidea](#)

4.7.- HEZKUNTZA-ARRETA

Irakasleek bete-betean lagundu behar dute ikasleekin egiten dituzten esku-hartze guztietan, horiek irteera-profila lortzeko bidean aurrera egiten jarrai dezaten. Hezkuntza-arretako zeregin horretan, irakasleek bideratzaile edo bitartekari, gidari edo laguntzaile gisa jardun behar dute, eta ikasleen oinarritzko kompetentziak lantzen jarraitu behar dute.

4.7.1. Hezkuntza-arretako irakasleak

Ikastetxea eta, bereziki, zuzendaritza, bere ordezkari gisa, ikasleen arduraduna da eskola-ordutegian. Hortaz, une oro, DBHko ikasleen jolasgarrietan barne, ikastetxean egon beharko dute hezkuntza-arretako zereginei behar bezala erantzuteko behar adina irakaslek.



Jolasgaraiei dagozkien hezkuntza-arretako zereginak etapa horretako ikasleei eskolak ematen dizkieten irakasleek beteko dituzte lehentasunez. Ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du jolasgaraian edo jolasgaraietan ikasleei eman beharreko arreta, eta jolastokietan eta ikastetxeko beste gela batzuetan dauden ikasle guztien zaintza eta jagoletza aktiboa bermatzeko behar diren irakasleen kopurua esleituko dio zeregin horri. Irakasleen adinaren eta artatu beharreko espazioaren ezaugarrien arabera zehaztuko da irakasle-ikasle ratioa.

Ordu guzti-guztiak behar bezala beteta badaude soilik esleitu ahal izango dio zuzendaritzak hezkuntza-arretako irakasleren bati beste zerbitzu batzuen arreta.

a) Hezkuntza-arretako irakaslearen funtsezko zereginak

- Jolasgaraian eta/edo jagoletzan ikasleak aktiboki behatzea, ikastetxeko bizikidetzaz arazoak detektatzeko eta prebenitzeko eta horiek Bizikasiko talde dinamizatzailearen koordinatzaileari jakinarazteko
- Korridoreetan ordena eta, oro har, ikasleek ikasgelatik kanpo duten portaera zaintzea. Horrek ez du esan nahi gainerako irakasleak zeregin horretatik salbuetsita daudenik
- Bere txandan gertatzen diren gorabeherak berehala konpontzea, ikasketaburuari lehenbailehen horien berri emateaz gainera, behar duen ikastetxeko edonori laguntza medikoa emateko beharrezko kudeaketak egitea barne
- Irakasleen puntualtasunaren eta bertaratzearen berri ematea bere txandan, hutsegiteen parte behar bezala erabilia
- AJAn esleitzen zaizkion gainerako zereginak

b) Absentzien partea

Ikasketaburutzak irakasleen absentzien eguneroko parte gordeko du. Parte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da beti, eta datu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Irakasleen absentziak eta atzerapenak.
- Ikastetxeko edozein eremutan ikusitako gorabeherak.
- Gertatutako istripuak.
- Hezkuntza-arretako irakasleen sinadurak.

[↑Aurkibidea](#)

4.8. GELAKO ETA TUTOREZAKO TALDEAK

Gelako irakasle taldea da ikasleekin esku hartzeko muina. Talde horren koordinazioa ezinbestekoa da esku-hartzea koherentea izateko eta ikasleen lorpenen eta zailtasunen jarraipena partekatzeko, baita irakatsi eta ikasteko prozesua berriz bideratzeko litezkeen esku-hartzeak ere.

4.8.1. Tutoreak izendatzea

Ahaztu gabe irakasle guztiak dutela beren funtzio eta eginkizunen artean, ikasleen artean sor daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzea, ikastetxe bakoitzean ikasle talde bakoitzak gutxienez tutore bat izango du, 20 ikasle baino gehiago dituzten taldeak eta curriculum-aniztasuneko taldeetan izan ezik, horiek bi tutore izango baitituzte. Tutorea talde horretan jakintzagaiak ematen dituen irakasle bat izango da.



Ahal den neurrian, ahaleginak egingo dira DBHko ikasleek tutore bera izan dezaten ikasturte guztietan, batik bat 1. eta 2. mailan.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan, tutoreak taldeko ikasle guztiek egiten dituzten moduluetao irakasle izan beharko du.

Talde guztiei arreta emateko behar adina tutore ez badago, tutoretza horiek beste kargu batzuk dituzten edo beste tutoretza batzuk dituzten irakasleek hartuko dituzte beren gain. Halakoetan, irakasle horiek hezkuntza-arretako orduetatik salbuetsi ahal izango dira, betiere ordu horiek behar bezala beteta badaude.

Tutoreak ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko ditu, ikasketaburutzak proposatuta, moldakortasun- eta egokitasun-printzipioak kontuan hartuta.

Zuzendaritzak beste eginkizun batzuk esleituko dizkie tutoretza-talde espezifikorik esleituta ez duten irakasleei, baldin eta tutorez bestelako kargurik betetzen ez badute.

Tutoreek beren ordutegian ezarritako orduak izango dituzte tutoretza-planean jasotako tutoretza-programazioa gauzatzeko, indarrean dauden curriculum-dekretuetan ezarritakoaren arabera.

[↑Aurkibidea](#)

4.8.2 Tutorearen edo tutoreen eginkizunak

Tutoreak ikasleari babesa ematearekin eta lagun egitearekin zuzenean lotutako jarduera bat egiten du, bai bakarka, bai taldean, ikasleak bere proiektu pertsonala eraiki dezan.

Behar bezala gauzatutako tutoretza-ekintzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza bere individualtasunean eta aniztasunean kontuan hartuko dela. Talde bakoitzeko tutorea da lagun egiteko, desberdintasunak hautemateko eta inklusioa eta aniztasuna sustatzeko aukera gehien dituen pertsona hezkuntza-komunitatean.

Zeregin hauek egingo ditu:

- Tutoretza-plana prestatzea, ikastetxeko orientatzailearen aholkularitza eta laguntzarekin
- Bere taldeko irakasle taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokionez, bai irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar egoera indibidual eta orokorrak aztertzeari dagokionez. Tutoreek koordinatuko dute behar dituzten ikasleen Jarduera Plan Pertsonalizatuen prestaketa eta jarraipena, hezkuntza-indargarri espezifikoko proiektua, curriculum-aniztasuna.... Tutoreek gutxienez hiru bilera egin beharko dituzte beren taldeko irakasleekin ikasturte bakoitzean, ebaluazio-bilkuretatik kanpo. Bilera horien berri eman beharko dio ikasketaburuari, eta horien deialdia egiteaz arduratuko da
- Ikasleekin talde-tutoretza egitea, tutoretza-programazioan jasotako orientabide-ekintzak barne, baita banakako tutoretza ere, ikastetxeko orientabide-departamentuaren laguntzarekin, hala badagokio. Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera, berdintasuna, sexu-aniztasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko proposamenak jasoko dira tutoretza-planetan, ikasleek beren bizitza-, ikasketa- eta lanbide-ibilbidea aukeratu dezaten, askatasunean eta aukera-aniztasunean oinarrituta eta genero-baldintzapenik gabe



- Tutoretza-planaren barruan, Bizikasi ekimenean zehaztutako proposamen didaktikoak garatzea
- Eskola-jazarpenaren kasuetan, beren gela-taldea inplikaturik egonez gero, irakasle tutoreek ikastetxeko BAT taldean parte hartuko haiek ebazteko prozesuan
- Orientabide-aholkua idaztea, irakasle taldearen eta orientatzailearen aholkularitzarekin, DBHko 2. eta 4. mailatan
- Ikasleei eta haien gurasoei eskola-jardueren inguruko informazioa ematea. Ikastetxeak tutorea bisitatzeko asteko ordutegia jakinarazi beharko die gurasoei edo legezko tutoreei
- Bere taldeko ikasleen guraso eta/edo legezko tutoreekin komunikazio arina izatea, hezkuntza-zereginen laguntzeko, biei baitagokie zeregin hori
- Ebaluazio-saioak koordinatzea eta horien emaitzak entregatzea. Era berean, jakintzagaien estatistikak eta ikasketaburutzak eskatutako datu guztiak bete beharko ditu, baita ikasleen tutoretza-jardueratik eratorritako dokumentu akademikoak ere
- Bere gela-taldeko ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea, eta hutsegite horien berri ematea ikastetxeko ikasketaburuari eta gurasoei edo legezko tutoreei
- Aurrekoak aplikatzeko edo garatzeko, AJAk esleitzen dizkionak

a) Bertaratze-hutsegiteen kontrola

Irakasle guztiak kontrolatu behar dute ikasleak beren eskoletara joaten direla, eta tutoreari jakinarazi behar dizkiote izandako bertaratze-hutsegiteak, ikasleen bertaratze-hutsegiteen jarraipena egiteko ardura duten heinean.

Gurasoei edo legezko tutoreei berehala eta AJAn xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaizkie hutsegite horiek. Erregelamendu horrek horri buruzko araudirik zehazten ez badu, gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazteko epeak eta modua ezarri beharko ditu zuzendaritza-taldeak, hutsegite horiei buruzko informazio zehatza eta zuzena bermatzeko.

b) Bilera gurasoei edo legezko tutoreekin

Ikastetxeak informazio-saioak antolatu beharko ditu gurasoei edo legezko tutoreekin, eta horietan gurasoak eta irakasleak, tutoreak izan edo ez, egon daitezten ahalbidetuko du.

Bilera horien izaera (irekiak, orokorrak, taldekakoak, banakakoak, etab.) eta antolaketa AJAn xedatutakora egokituko da. Araudi horrek ez baditu gai horiek jasotzen, zuzendaritza-taldeak zehaztu beharko ditu. Edonola ere, hezkuntza etapa bakoitzaren hasieran bakarkako elkarrizketa bat, ikasturtean zehar beste bakarkako elkarrizketa bat eta ikasturte hasieran bilera kolektibo bat izatea bermatuko da, gutxienez. Jarduera Plan Pertsonalizatua duten ikasleen kasuan, modu berean funtzionatuko da, eta aipatutako plana. izango da bilera horien ildo nagusia

Era berean, beste bilera batzuk egin ahal izango dira talde osoko gurasoei edo legezko tutoreekin, tutorearen ekimenez, taldeko guraso talde esanguratsu batek eskatuta edo ikastetxeko zuzendaritzaren irizpidearen arabera.



c) Batxilergoko taldeetan tutoretza antolatzea

Ikastetxe bakoitzak bere ordutegia zehaztuko du, erregelamenduz ezarritako gutxieneoak errespetatuz, eta, irakaskuntza-jardueraren orduetako bat bere taldeko irakasle tutorearen zuzeneko tutoretza-lanetan emango du, tutoretza-plana garatzeko.

Tutoretza-ordua ikasleen eskola-orduen barruan sartzen ez bada, irakasleek ikastetxera zuzenean dedikatzeko duten ordutegian egingo da lehentasunez tutoretza-plana, ikasleei banakako eta taldeko arreta hobea emateko.

Halakoetan, ezingo da tutoretza-ordurik zenbatu irakasle tutorearen irakaskuntza-dedikazioko ordutegian.

d) Lanbide Heziketako taldeetan tutoretza antolatzea

Ikastetxe bakoitzak bere ordutegia zehaztuko du, erregelamenduz ezarritako gutxieneoak errespetatuz, indarrean dauden curriculum-dekretuetan ezarritakoaren arabera.

Tutoretza-ordua ikasleen eskola-orduen barruan sartzen ez bada, tutoretza-plana irakasleek ikastetxera zuzenean dedikatzeko ordutegian egingo da, ikasleei banakako eta taldeko arreta hobea emateko.

Halakoetan, ezingo da tutoretza-ordurik zenbatu irakasle tutorearen irakaskuntza-dedikazioko ordutegian.

[↑Aurkibidea](#)

4.9. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IKASLEEN TUTORETZA

Martxoaren [6ko 33/2018 Dekretuak](#), (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoak) xedatzen du zein baldintza bete behar diren EAEn funts publikoekin finantzatuta dauden eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle izateko gaitzen duen masterren practicum, besteak beste, egiteko.

Era berean, dekretu horren xedea da praktiketako prestakuntza-zentroak onartzeko eta praktiketako ikasleen irakasle tutoreak egiaztatzeko baldintzak ezartzea. Hezkuntza-arloan eskumenak dituen sailak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartutako zentroetan bakarrik egin ahal izango da practicum.

[↑Aurkibidea](#)

4.10. HAUTAKETA PROZESUETAN HAUTATUTAKO IRAKASLEEN PRAKTIKALDIA

Ikasturte hasieran praktiketako funtzionarioak dituzten ikastetxeko zuzendaritza taldeak aholkularitza eta informazioa emango dizkie praktiketako funtzionarioei. Orobat, praktiketan dagoen funtzionarioak irakasle arituen tutoretzapean eramango du aurrera praktikaldia. Hau guztia, dagokion urteko ebazpenean xedatzen denaren arabera egingo da.



Irakasle tutoreak praktiketako funtzionarioaren gelara bisita egitea sustatuko da, tutoreak praktiketako funtzionarioaren irakaskuntza-gaitasuna hobetzen lagunduko duten proposamenak egin ditzan, baita, praktiketako funtzionarioak irakasle-tutorearen gelara bisita egitea ere.

Gela barruko behaketa horiek ahalbidetzeko, tutoreen ordutegian eta praktiketako funtzionarioen ordutegian elkarrekin bat egiteko uneak aurreikusiko dira.

[↑Aurkibidea](#)

4.11. LANGILE ESPEZIFIKOAK

Atal honetan aipatzen diren hezkuntza-komunitateko kideek eskola-ingurunean, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo zereginak egiten dituzte, eta zuzenean inplikaturata daude ikaskuntza formalaren prozesuan, kasu batzuetan, eta ikaskuntza ez-formalaren prozesuan, kasu gehienetan.

Ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo ataletan aipatzen diren profesionalekin koordinazioa eta talde-lana bermatu beharko ditu, ikasleek beren eginkizunak betetzen dituzten testuinguruak aprobetxa ditzaten.

4.11.1. Jangelako arduraduna

Zuzeneko kudeaketako eskola-jantokiko zerbitzua emateak —hau da, ikastetxearen beraren bidez emateak— funtzionalki eragiten die kide anitzeko edo pertsona bakarreko hainbat organo kudeatzailerri, besteak beste, OOGari, zuzendaritza-taldeari, jantokiko batzordeari, jantokiko arduradunari eta abarri.

Zuzendaritza-taldeak eskuordetuta, honako eginkizun hauek dagozkio —unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako [eskola-jantokiak arautzen dituen 2000ko martxoaren 22ko Aginduan \(2000-03-28ko EHAA\)](#) jasotzen denez—:

- Otordu-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea, jasangarritasun-irizpideei jarraituz eta elikagaiak xahutu gabe. Azken finean honelako praktika onak sustatu behar dira, ahal den neurrian: elikadura praktika osasungarriak eta jasangarriak sustatu, tokiko, sasoiko eta ingurumen kalitatearen ziurtagiriak dituzten elikagaien aukeraketa bultzatuz eta jantoki zerbitzuan plastikozko ontzien eta bildukien erabilera murriztuz.
- Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza Sailaren mendeko langileriaren buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gaineko aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haien langileriaren arteko lan-harremani, halakorik egongo balitz, kalterik egin gabe.
- Jankideek egin beharreko ordainketen jarraipena egitea, bai haien ikastetxeko jankideena, bai zerbitzua erabiltzen duten gainontzeko ikastetxeetako enena. Jantoki partekatuak badira, kudeaketa ekonomikoa bakarria izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxeko kudeaketa ekonomiko orokorraren barruan egingo da.
- Jantokiko funtsen zuzeneko kontrol jarraitua eramatea.
- Gainbegiratze-zereginen arduratzea. Gainbegiratze-zereginak honako hauek izango dira: zerbitzua ematen den bitartean ikastetxeko instalazioetan egotea eta jantokiko disziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.



- Eskola Kontseiluari proposatzea ikasleek parte hartzeko programak erabaki ditzan.
- Aldian behin sukaldeko tresneriaren inbentarioa egitea, eguneratzea eta berritzea.
- Kontratutako enpresak ematen duen zerbitzuaren ezaugarriari eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea eskola kontseiluari, eta instalazioen obrak eta hobekuntzak proposatzea.
- Elikagaien eta lokalen higiena kontrolatzea eta jantokiko hondakin guztien gaikako bilketa bermatzea.
- Funtzionamendu-orduetan jantokia zaintzea, birkokatutako langileak badira (197/1998 Dekretua, uztailaren 28koa).
- Zerbitzua behar bezala egiteko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, baita indarrean dagoen araudiak agintzen dizkionak ere.
- Gainera, egokia litzateke jantoki-zerbitzuaren ordutegian bizikidetzagiroa hobetzen lagunduko duten ekimenak proposatzea Bizikasiko talde dinamizatzailari.
- Jantokia kudeatzeko eta administratzeko eginkizunak bi langile motaren bidez gauzatu ahal izango dira:
 - Birkokatutako langileen poltsatik datorren jantokiko arduraduna, uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuan aurreikusitako neurriak aplikatuz (1998-09-08ko EHAA).
 - Ikastetxearen beraren jantokiko arduraduna.

Jantoki-zerbitzuaren arduradunak lanaldiaren zati hau eman beharko du:

Jankideak	Jantoki-zerbitzuan emandako lanaldia	Ordu presentzialak
30 arte	Curriculum emateko lanaldiaren herena	1 ordu egunean
31 eta 250 artean	Curriculum emateko lanaldiaren erdia	1,5 ordu egunean
250 baino gehiago	Curriculum osoa emateko jardunaldia	2 ordu egunean

Lehen zerrendatutako eginkizunez gainera, jantokiko instalazioetan egon beharko du, baita bazkalurreko eta bazkalondoko jolasaldietan ere, aurreko taulan adierazitako ordu kopuruaz. Ikasleak behatzeko eta haiei zuzeneko arreta emateko aldi horietan, jantokiaren arduradunak zeregin garrantzitsuak bete ditzake, bai inklusio- eta bizikidetzagiroa helburuekin lotuta, bai eskuratzen ari diren konpetentziak garatu eta finkatzearekin lotuta.

Jantoki partekatuen kasuan (jantokiko instalazioak hartzen dituen ikastetxe bateko jankideek jantokia partekatzen dute beste maila bateko beste ikastetxe bateko jankideekin), jantokirik ez duen ikastetxeak lanaldi erdiko murrizketa izango du, aipatutako 2000ko martxoaren 22ko Aginduaren 15. artikularen e), f) eta j) ataletan ezarritako eginkizunak betetzeko. Eginkizun horiez gain, honako hauek ere beteko ditu:

- Zerbitzua eman bitartean jantokiko instalazioetan egotea, eta jantokiaren diziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.



- Otorduak iraun bitartean eta aurreko eta ondorengo aldietan gainbegiratzea.
- Bere ikastetxeko ikasleei laguntzea jantokia duen ikastetxeraino, eta alderantziz.

Jangelako zerbitzua erabiltzearekin batera, jolasgaraiak ere izaten dira bazkalaurretik eta bazkalondoa. Hezkuntza-administrazioetik kanpoko langileak arduratu ohi dira jolasgarai horiek zaintzeaz. Gertatzen den edozein gorabehera jantokiko arduradunari jakinarazi behar zaio. Era berean, komeni da langile horiek aintzat hartzea, ezagutzea eta balioestea egiten duten lanagatik eta eskola-eguneko tarte horiek dakarten potentzialtasunagatik, hezkuntza-komunitatean sustatzen diren eta IHPan, Bizikidetzaren Planean eta IUPan islatzen diren ikaskuntzak eta jakintzak finkatzeko.

Eskola-jantokiez arduratzen diren profesionalen lana babesteko, hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar dute HPBak dituzten ikasle batzuek, bazkalorduan eta/edo bazkalaurreko eta bazkalondoko jolasgaraietan. HPBko aholkularien jarraibideak betez egindako ebaluazio psikopedagogikotik eratortzen da premia hori, eta profesional horiek zehaztuko dute.

[↑Aurkibidea](#)

4.11.2. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programako irakasleak

Irakasle hauen ordutegi pertsonala ikastetxeko zuzendaritzak onartuko du. Ikastetxeak ordutegi-banaketari eta egutegiari dagokienez onartuta duen sistema orokorraren barruan egingo dituzte dagozkien jarduerak.

Programaren ardura duten irakasleek praktikara eraman beharko dituzte diseinatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, eta irakasle arduradunak zuzenean esku hartu beharko du borondatez parte hartzen duten ikasleekin.

Ordutegi-banaketak aldaketak izan ditzake proiektuen ezaugarri zehatzen eta ikastetxeen egoeraren arabera, eta gutxienez hauen barruan mantenduko da:

- 10 ordu astean, ikastetxearen eskola-ordutegian.
- 20 ordu astean, eskolaz kanpoko ordutegian. Horietatik, gutxienez 2 ordu egingo dira egunero ikasleen arratsaldeko eskola-eguna amaitzean.

[↑Aurkibidea](#)

4.11.3. Irakaskuntzaz kanpoko lanak

Liburutegia, ikus-entzunezkoak, zuzendaritzari laguntzea, kalitatea kudeatzea, hizkuntza-normalizazioa eta antzeko beste lan batzuk).

Ikastetxeren batean irakasleren bat irakaskuntzaz kanpoko zereginetan bakarrik aritzen bada, astean 30 orduko ordutegian jardungo du, osasun-arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunetan diharduten irakasleen kasuan izan ezik, horiek asteko 23 orduko dedikazioa izango baitute.

Irakaskuntza-jardueraren zati bat zeregin horietan emanez gero, haien ordutegia honela antolatuko da: eskola-ordu bateko murrizketa bakoitzeko ordu eta erdi eman beharko dute zeregin horietan. Ondorioz, ikastetxeko ohiko egonaldirako duten asteko 23 orduetako ordu erdi gehituko zaie irakaskuntzaz kanpoko lanetan emandako ordu bakoitzeko, betiere asteko 30 orduko gehieneko mugarekin.



Zuzendaritzak zehaztuko du liburutegia ixteko eta irekitzeko ordutegia, zerbitzua ematen duten langileen lan-eskubideak kontuan hartuta eta errespetatuta, eta sustatu egingo da eskolarik ematen ez den garaietan —hala nola jolasgaraietan, jantokiko aldietan edo irakastorduak amaitu ondoren— liburutegia irekitzeko lehentasuna duten ikasleek hura benetan erabil dezaten.

Ikastetxearen antolaketa orokorrak aukera ematen badu, eta gainerako zerbitzuak behar bezala betetzen direla ziurtatu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak zerbitzu horietara bideratu ahal izango ditu gainerako irakasleen orduetako batzuk, eta ordu horiek behar bezala konpentsatuko zaizkie hezkuntza-arretako ordutegian.

[↑Aurkibidea](#)

4.11.4. Irakasle eta hezitzaile lan-kontratudunak

Irakasle eta hezitzaile lan-kontratudun horiek bete beharoko dute beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoa. Hitzarmen hori Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez erregistratu eta argitaratu zen (2004ko ekainaren 17ko EHAA).

Gainera, batzorde paritario bat eratu da hitzarmen hori interpretatzeko, aztertzeko eta zaintzeko, baita tresna juridiko horrek eta bere eranskinak biltzen dituzten gaiak garatzeko eta horien jarraipena egiteko ere. Langile horien funtzionamenduari buruzko orientabide espezifikoak hurrengoak dira: [Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak / Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako jarraibideak](#)

Zuzendariak irakasleen eta hezitzaileen arteko lan koordinatua bermatuko du plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipenean. Hezitzaileen artean, honako hauek daude: fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBTko profesionalak, gor-itsutasuneko bitartekariak, zeinu-hizkuntzaren interpreteak, gorren koordinatzaileak.

Ikastetxeei urtero bidaltzen zaizkien [jarraibideen](#) arabera egiten eta tramitatzen dira langile horien egutegiak.

a) IBT laguntza-zerbitzua

IBT baliabidetegiek ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzeko lan egiten dute, eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiei aholku ematen diete eta haiekin esku hartzen dute ikasle horiei eman beharreko hezkuntza-erantzunaren diseinuan. IBTko teknikariak, organikoki eta funtzionalki, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusiorako baliabide-zentroetako zuzendaritzen mende daude. Zentro horiek Hezkuntza Sailaren mendeko kanpoko laguntza-zentroak dira, martxoaren 1eko 40/2005 Dekretuaren bidez sortutakoak.

Zerbitzu horren esku-hartzea detekzioaren unetik hasten da. Detekzioa ikastetxetik bertatik etor daiteke, HLBPko aholkulariaren bidez, edo familiengandik, zerbitzu medikoak bideratuta. Azken kasu horretan, IBTko zuzendaritzak dagokion Berritzeguneari jakinaraziko dio.

[↑Aurkibidea](#)

b) Zeinu-hizkuntzaren interpretea

Hezkuntza-sisteman, zeinu-hizkuntzako interpretea profesional kompetentziaduna da ikasgelan ahozko hizkuntzan eta zeinu-hizkuntzan komunikatzeko, eta hezkuntza-jardunean ohiko



irakasleak bere ikasleei komunikatzen diena itzultzen du, hizkuntza nagusia zeinu-hizkuntza duten ikasleentzat ulergarri izateko moduan. Hala, esku hartzen duen taldeko kide da, eta bere kompetentzia pertsonalak eta profesionalak gainerako taldeetara zabaldu daitezke, horientzat eredu eta gidari izango baita.

Eginkizun hauek ditu:

- Gorreria duten ikasleei curriculumerako sarbidea erraztea, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekiko komunikazioa bermatuta.
- Gorreria duten ikasleentzako hezkuntza-erantzunean ikastetxean esku hartzen duten irakasleekin eta gainerako profesionalekin lankidetzan aritzea.
- Irakasleekin koordinatzea gaietan eta irakasteko eta ikasteko jardueretan aurrea hartzeko.
- Urteko plana eta memoria prestatzea, ikastetxean, ikasgelan eta gorreria duten ikasleekin hartutako erabakiak islatuta, baita bere lanbide-kompetentziari dagozkion beste dokumentu eta txosten tekniko batzuk prestatzea ere.
- HLBPko aholkulariarekin eta/edo koordinatzailearekin koordinatzea gorreria duten ikasleak behar bezala eskolatzeko.
- Gidari-interpretaren berezko jarduerak egitea gor-itsutasuna duten ikasleekin.

[↑Aurkibidea](#)

c) Hezitzaile lan-kontratudunen lanaldia betetzen dela kontrolatzea

Hezitzaile lan-kontratudunen eginkizunek halako garrantzi etiko eta morala dute zaintzen eta artatzen dituzten ikasleen ikaskuntza- eta sozializazio-prozesuan, non horiek ez izateak eragin nabarmena baituen ikasleen eskola-dinamikan. Horregatik, gomendatzen da hezkuntza-komunitateko kideek aitor eta balioets dezatela profesional horiek egiten duten funtsezko lana, bai zaintzen eta artatzen dituzten ikasleekin, bai familiekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin.

Hezitzaile lan-kontratudunek ikastetxean betetzen dituzten eginkizunen arabera dagokien ordutegia bete behar dute. Horretarako, Hezkuntza Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak ezarri ahal izango ditu.

Ordutegiaren justifikaziorik gabeko ez-betetze oro dagokion ikuskaritza-zonako buruzagitzari jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendaritzak. Ordutegia ez betetzeak hartzekoen deskontua ekarri ahal izango du, [Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legean](#) ezarritakoaren arabera, sorraraz lezakeen diziplinazko erantzukizuna bazter utzi gabe.

Era berean, greba izanez gero, ikastetxeko zuzendaritzak horren berri emango dio eskualdeko ikuskaritza-buruzagitzari, eta ikasleen ahalik eta arretarik onena antolatuko du eskuragarri dauden giza baliabideekin.

Era berean, profesional batek esleitu zaion irakaskuntza-dedikazioko ordutegian sartzeko eta irteteko betebeharrak nabarmen betetzen ez dituela ikusiz gero, zuzendariak ordutegi horretara egokitze eskatuko dio. Ordutegia ez betetzen jarraituz gero, hori hileko bertaratze-partean jasotzeaz gainera, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaie, dagozkion neurriak har ditzaten.

[↑Aurkibidea](#)



d) Hezitzaile lan-kontratudunen bertaratze-partea

Ikastetxeko zuzendaritzak hilabete bakoitzeko 5a baino lehen bidali beharko dizkio dagokion eskualdeko ikuskaritza-buruzagitzari aurreko hileko bertaratze-partea. Hezitzaile lan-kontratudunek greba egiten badute, bertaratze-partea hori bidaltzeaz gainera, grebarekin bat egin duten langileen izenen zerrenda ere igorriko da greba amaitu eta hurrengo egunean.

Ikastetxeek Hezkuntza Sailak propio diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-partea, Hezkuntza Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien jarraibideei betez. Aplikazio hori bera erabiliko da greba-kasuan gorabeheraren berri emateko eta grebarekin bat egin duten langileen izenen zerrenda egiteko.

Hileko parteak ikastetxean lan egiten duten hezitzaile lan-kontratudun guztien bertaratze-partetzat hartu behar dira. Langile horiek bi ikastetxetan edo gehiagotan lan egiten badute, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak bidaliko du dagokion bertaratze-partea.

[↑Aurkibidea](#)



5. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK

5.1.- IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSI GABEKO JARDUERETARAKO ERABILTzea

[Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren](#) (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) xedea da erregulatzea unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen eraikinak eta instalazioak nola erabili behar dituzten bai administrazio eta erakunde publikoek, bai beste edozein pertsona fisikok edo juridikok, ikastetxearen urteko programazioan aurreikusita ez dauden hezkuntza-, kirol- eta kultura-jarduerak edo bestelako jarduera sozialak egiteko.

Dekretuak, besteak beste, honako alderdi hauek zehazten ditu bere artikuluetan: egin beharreko jardueren ezaugarriak, erabiliko diren instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea, eta eskaera eta baimenen prozedura arrunt eta laburtua.

Ildo horretatik, gogorarazten da ezinbestekoa dela ikastetxeak aipatutako dekretuak ezartzen duen erregulazioa betetzea.

[↑Aurkibidea](#)

5.2.- IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA TRAMITATzea ETA ORDAINTzea

DBHko 3. mailatik Unibertsitateko hirugarren ziklorako arteko ikasketa ofizialetan matrikulatutako 28 urtetik beherako ikasle guztiek Gizarte Segurantzaren Eskola Aseguruan sartuta egon behar dute. 2018-2019 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek honela tramitatu eta ordaindu beharko dute aseguru hori:

1.- Ikasleen matrikulazioa amaitu ondoren, urriaren 31 baino lehen, ikastetxeak EXCEL motako artxibo bat bidaliko dio Hezkuntza Sailari, lehenago jakinaraziko zaion helbide elektronikora. Bertan, ikastetxearen izena, 8 zifrako bere kodea eta KKK (kotizazio-kontuaren kodea) jasoko dira, baita data horretara arte matrikulatuta dauden eta Eskola Aseguruan sartu behar diren ikasle guztien datuak ere. Ikasle bakoitzeko, honako lauki hauek agertu beharko dira nahitaez artxibo horretan:

- Ikaslearen identifikazio-dokumentu mota (NAN, AIT, etab.).
- Identifikazio-dokumentuaren zenbakia (letra barne, halakorik izanez gero).
- Izena.
- Lehen abizena.
- Bigarren abizena (izanez gero).

2.- Hezkuntza Sailak modu elektronikoa sartuko ditu datu horiek guztiak Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren dagokion aplikazio informatikoan, eta ikastetxearen eskola-aseguruaren kuota likidatu izanaren ordainagiria (ordainketa-gutuna) eskuratuko du bertatik, eta posta elektronikoz bidaliko dio ikastetxe bakoitzari. Ikastetxeak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du edozein finantza-erakundetan, ordainketa-gutuna jaso eta gehienez ere bost eguneko epean.



3.- Gerora matrikulatzen diren beste ikasle batzuk Eskola Aseguruan sartzen badira, ikastetxeak aurreko prozedura errepikatu beharko du behar adina aldiz. Matrikulatutako ikasle berrien datuak biltzen dituen EXCEL fitxategia hilabete bakoitzeko azken egunetan bidali beharko da, azaroaren 30etik ekainaren 30era arte, matrikulazio berriak egin diren hilabeteetan. Halakoetan, aurreko bi ataletan deskribatutako prozedura errepikatuko da.

[↑Aurkibidea](#)

5.3.- DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak kudeatuko dituzte arau hauetan ezarritakoaren arabera: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta berori Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez bilduko da. Era berean, ikastetxeak behartuta daude hezkuntza-komunitate osoa prestatzera datu pertsonalak tratatzearen oinarritzko printzipioen eta arriskuen inguruan. Datuen titularrei hizkuntza ulerterrazean eman beharko diete datuak babesteko daukaten politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak datu horiek etengabe eguneratuta eduki behar ditu barne-prozesuen funtzionamendu egokirako. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu datuak aldatuz gero betiere horren berri eman dezaten, horiek eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeek beren eginkizunak betetzeko tratatzen dituzten datu pertsonalak ez dira ikastetxearenak, baizik eta ikasleenak, haien senideenak, bertako langileenak edo ikastetxeak harremanetan dauden beste pertsona fisiko batzuenak. Horiek dira beren informazio pertsonalaren benetako titularrak. Ikastetxeko langileek arduraz eta pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, ikasleen interesa eta babesa lehenetsita.

Erabiltzaileek eskubidea izango dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta beste norabait eramateko, baita haien trataera mugatzeko edo trataeraren aurka egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki garrantzitsua da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Hala, adibidez, hezkuntza-premia berezietan buruzko datuak (adibidez, minusbaliotasunen bat), edo bestelakoak (hala nola alergiak eta intolerantziak), baita ikasleen txosten psikopedagogikoetan, etab. jasotako datuak ikasleen osasunari buruzkoak datutzat jotzen dira.

Baliteke ikastetxeek —zehazki, bertako langileek— jakin behar izatea ikasleek gaixotasun edo alergia jakin batzuk dituzten. Horretarako, informazio hori ahalik eta berme handienarekin tratatzeko neurriak hartuko dituzte.

Horregatik, eta eragindako ikasleen gurasoekin edo, hala badagokio, haien legezko tutoreekin adostuta, beharrezko protokoloak ezarri behar dira informazio hori egoki tratatzeko, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (ikasgeletako egonaldia, aisialdiko ordutegia, gorputz-hezkuntza, jantokia, erizaintza, ebaluazio psikopedagogikoa, etab.), bai ezohiko egoeretan (maisu-maistren edo tutoreen ordezkapenak, urteurren-ospakizunak, irteerak, udalekuak, etab.).

[↑Aurkibidea](#)



5.4.- IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen eta gai horri buruz indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatzen dituen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta artikulatuko da obra zati txikien eta izaera plastiko edo fotografiko figuratiboko obra isolatuen erreprodukzioa, banaketa eta komunikazio publikoa (ikus, bereziki, 32. artikulua).

[↑Aurkibidea](#)

5.5.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko era askotako eragileek parte hartzen dute eta laguntzen dute eskolako bizitzan, eta horrek eskatzen du osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten hainbat alderdi arautzea, batez ere ikasleei dagozkienak, baina baita eskolan ibiltzen diren gainerako kolektibo guztiei dagozkienak ere.

5.5.1.-Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan

Osasun-larrialdiren bat izanez gero, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek berehala deitu behar dute larrialdietako 112 zerbitzura, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

5.5.2.-Osasun-arreta eskola-orduetan

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Gobernu Kontseiluak 2006eko azaroaren 29an erabakitako jarduera-protokoloari jarraituko zaio³.

5.5.3.- Ibilgailuak ikastetxera sartzea

Indarrean dagoen segurtasun-araudiari jarraituz, debekatuta dago ikasleek eta ibilgailuek aldi berean espazio berberak edo sarrera eta irteera berberak partekatzea.

Ikastetxeko zuzendaritzak sartzeko baimena emanda ere, ezingo dira sartu ikasleen sarrera eta irteera orduetan edo ikasleen jolasgaraian. Gainera, prozedura jakin bat, ordutegiak, ibilbideak eta ikastetxearen eremuan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, eta seinaleak ere jarriko dira. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak horren berri izango dute.

Aparteko egoera batean ibilgailu bat ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendariak edo hark eskuordetutako pertsonak lagundu beharko diote.

5.5.4.- Obrak

Litekeena da eskola-orduetan obrak egin behar izatea ikastetxe batean.

³ Eusko Jaurlaritza (2006). Eskola-orduetako osasun-arretarako protokoloa



Obrak egiteko, Segurtasun eta Osasun Azterketa bat sartuko da proiektuan eta bertan jasoko dira jarraibideak. Obra txikien kasuan, jarraitu beharreko Segurtasun Plan bat erantsiko zaio lantokiaren irekierari.

- Edonola ere, obren gunea eta irakaskuntzako gunea erabat berezi beharko dira. Horrek eskatzen du:
 - Obra-eremua erabat hesiz inguratzea
 - Obrako ibilgailuentzat eta obrako langileentzat sarrera bereziak jartzea
 - Obrakoa ez den pertsona orori sarrera galarazteko kartela jartzea
 - Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzea galarazteko kartela jartzea
- Ikastetxeko sarreran eta obra-eremuan ikusteko moduan jartzea bi eremuak, koloreen arabera, argi eta garbi berezita dituen plano bat, dagozkien sarbideak eta jarraibideak adierazita. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzari ere emango zaio.
- Obrako ibilgailuak irekita dagoen ikastetxeko eremutik sartu behar izango balira, obraren arduradunak langileak jarriko ditu etengabe sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikastetxeko ikasleen eta langileen segurtasuna bermatzeko.

5.5.5.-Tabakoa eta alkoholduen edariak

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da indarrean dagoen araudia betearazteaz. Araudi horren arabera, debekatuta dago ikastetxeetan tabakoa eta alkoholduen edariak saltzea eta kontsumitzea, ikasleen adina eta irakaskuntza-mota edozein izanik ere.

5.5.6.-Eskolako laborategien erabilera

Laborategietako jarduerak ikasleen adinera eta gaitasun-mailara egokituko dira, baita instalazioen baldintza teknikoetara ere. Pertsonen segurtasuna eta indarrean dauden protokoloek ezartzen dutena betetzea ziurtatu behar da.

[↑Aurkibidea](#)

5.6.-LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA

Gogorarazten da laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazio guztia Hezkuntza Sailaren [webgunean](#) dagoela, Prebentzio Zerbitzua atalean, eta Prebentzio Zerbitzuko teknikariei ere kontsultatu ahal zaiela.

ZERBITZU OROKORRAK	LAPZ arduraduna	945 018 411
	Higiene arloa	945 018 451
	Psikosoziologia arloa	945 016 546
	Segurtasun arloa	945 016 545



LURRALDE HISTORIKOA	ZONA	ARLO TEKNIKOA	LAN OSASUNAREN ARLOA
ARABA	1 ZONA	945 01 84 51	688670550
BIZKAIA	1 ZONA	94 403 11 92	94 4031194
	2 ZONA	94 403 11 93	
	3 ZONA	94 403 11 93	
	4 ZONA	94 403 11 92	
GIPUZKOA	1 ZONA	943 02 31 74	943 023170
	2 ZONA	943 20 84 44 181 luzapena	943 700491

5.6.1.-Segurtasuneko laguntzailea

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio Zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian asteartean goizeko 8etatik 11tara ez da irakaskuntza-dedikaziorik izango, ahal dela.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen figura ikastetxean egonkortasun nahikoa duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

5.6.2.-Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan

Hezkuntza Sailaren prebentzioaren arloko prestakuntza emateko betebeharra betetzeko (31/1995 Legearen 19. artikulua) eta langileek lege horren 29. artikulua betetzeko, irakasleen formakuntzara zuzendutako orduetatik eta/edo ikastetxean lan egiteko orduetatik gutxienez 2 ordu gordeko dira urtean formakuntza horretarako. Formakuntza hori Prebentzio Zerbitzuak emango du ikastetxe bakoitzean, garaiz hitzartutako egunetan eta ordutegietan.

5.6.3.-Larrialdi-simulakroak

Urteroko jarduera da, eta, ahal dela, ikasturtearen hasieran egingo da. Nahitaezko jarduera da eta IUPan jasoko da. Ikastetxean desgaitasuna duen ikasleren bat eskolatuta egonez gero, hura behar bezala ebakutzeko beharrezko neurri zehatzak adierazi behar dira. Simulakroa egin ondoren, jardueraren ebaluazioa **Segurtasuna – Larrialdiak** atalean gaitutako webguneko formularioaren bidez, eta horrela bakarrik, bidaliko da.

5.6.4.- Botikin eramangarria

486/1997 Errege Dekretuan, lantokietako gutxieneko segurtasunari eta osasunari buruzko xedapenak ezartzen dituenean, xedatutakoari jarraituz, lantoki guztiek, gutxienez, botikin eramangarri bat izango dute, eta honako elementu hauek izango ditu: desinfektatzaile eta



antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen laguntzako materiala aldi behin aztertuko da, eta berriro egingo da iraungi edo erabili ahala.

5.6.5.- Laneko istripuak

Osasun zaintza eta jakinarazpena Hezkuntza Saileko webgunean Segurtasun-Lan istripuak atalean, agertzen den eskemaren arabera egingo dira.

Ikastetxeko zuzendaritzak istripu guztien erregistroa eramango du, bai baja eragiten dutenena bai baja eragiten ez dutenena.

Ikastetxeko langileei egindako erasoak lan-istripuztat hartuko dira, nahita egindakoak izan edo nahi gabe egindakoak izan, eta horiek ere erregistroan sartuko dira.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, ikastetxean izandako istripuen nahiz gertaeren erregistroa eskatu ahal izango da.

5.6.6.-Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

Informazioa entregatzeko eta erregistratzeko prozeduran ezarritakoari jarraituz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko lanpostuen arriskuei buruzko ebaluazioa eta larrialdi-plana emango dizkie ikastetxeko langileei.

[↑Aurkibidea](#)

Vitoria-Gasteiz, sinadura-datan

Begoña Pedrosa Lobato

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA